

# goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2012-06-18  
ASTELEHENA  
369. ZENBAKIA  
9. URTEA  
1,10 EURO  
GOIENA.NET  
TOKIKOM

## Sonografos irabazle, Zaldibarren

Finala estua izan zen 50. txapelketan | 24



Sonografosekoak, pozik. | U.BANE MADERA

Bergarako Laino Skatepark: oholak eta arrapalak baino gehiago | 29



Herriko lokal hutsak apaindu dituzte artistek Bergaran | 11



Arrasateko musikari gazteek urteko emaitza erakutsi zuten | 30

## Hemen dira Sanjuanak, gora!

Arrasateko jai nagusien atariko ekitaldiak egin dituzte asteburuan, bereziki, txikitxoenek | 12



Haurren Danborrada Herriko plazan, saioa amaitu eta berehalá, zapatuan.

JOSETXO ARANTZABAL

## Eskaintza oparoa eta erakargarria, udan ere euskara ikasi eta lantzeko

Barnetegi ibiltariak antolatu dituzte gureko euskaltegiek, besteak beste, udan euskara ikaste-ko eskaintza polita egin guran. Horrez gain, beste erraztasun batzuk ere emango dituzte: Arrasaten, arratsaldez ere izango dira eskolak, eta Oñatin ostalariendako eskaintza izango da. | 2

"Emakumeen futbola bizirik egon da 25 urtez"

Maitane Roa | Mondrako jokalaria | 27



Maitane Roa. | JOSETXO ARANTZABAL

Euskal hedabideen etorkizunerako oinarria ezarri zuten Tokikom jardunaldietan | 4

**%10** eko  
deskontua



LASTAI  
haurtzaintza eta atsedeen gunea

► Zoaz 32. orrialdera.

# Euskara ikasteko eta lantzeko aukera piloa izango da udan

- ▶ AEK-k barnetegi ibiltariak antolatu ditu, GR-12tik
- ▶ Aurten, Amaiurko gaztelua bisitatuko dute
- ▶ Bailarako euskaltegiak ere zabalik izango dira

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Udan ere, euskara hobeto ikasteko, euskara azterketak prestatzeko eta euskaraz bizi izateko aukera piloa izango dira. Debagoienean bertan, udal euskaltegiak eta Erdu-AEK-k hainbat ikastaro eskaintzen dituzte, berritasun batzuk ere tarteko; eta, bestalde, mendian ibili eta Euskal Herria hobeto ezagutu gura dutenek badute aukera AEK euskaltegiaren bizikletazko eta oinezko barnetegi ibiltarietan. Horieta edozein joan daiteke, ez da bakarrik AEK-ko ikasleendako; baldintza bakarra da, antolatzaileek dioten moduan, "15 egunean euskaraz bizi izan nahi izatea".

Aurtengo barnetegi ibiltarietan ere badago berezitasunik. Asier Arroita antolatzaile taldeko kideak honela dio: "Aurten Nafarroaren konkistaren 500. urteurrena denez, ibilbidea moldatu dugu Amaiurrera joateko".

Beste berritasun bat oinezko barnetegi ibiltarian dago: Sorogainen, Garraldako lagun batzuekin elkartzeko dira eta, haiek antolatuta, tirolina izango dute.

Bitxikeria gisa, Debagoienetik ere pasatuko dira: oinezko barnetegi uztailaren 1ean ailegatu da Leintz Gatzagara.

## 1.000 kilometro bizikletan

AEKren bizikletazko barnetegi ibiltaria 12. urtez egingo da aurten, eta oinezkoa, 3. urtez. *Euskal Herria muturretik muturrera* izena du oinezko ibiltariak, izan ere, helburua Euskal Herria mendebaldetik ekialderaino zeharkatzea da. Ekainaren 30ean hasiko da, Igorren, eta uztailaren 15ean bukatuko da. Hiru Erregeen Mahaira igotzea da azken helburua, Gorbeia, Anboto, Aizkorri, Aralar eta beste mendigune eder eta ezagun, zein deskubritzea merezi duten beste leku ezezagunago batzuk zeharkatu eta gero. Egutero 20 edo 25 kilometro inguru egingo dituzte, gehienak goizean. Gaietan, norberak eguneko gauzak bakarrik eroango ditu, eta furgonetan eroango dute beste dena. Gaua eman behar duten lekuan zain izango dute furgoneta.

Bizikletazko barnetegi ibiltaria abuztuaren 4tik 19ra egingo dute. Ia 1.000 kilometro egingo dituzte, Urduñan hasi eta Zarau-

tzeraino. Egutero, batez beste, 65 kilometro egingo dituzte. Hor ere furgoneta izango dute.

## Kobazulo ezezaguna

Bi barnetegietako ibilbidea urterik urte "politagoa eta zehatzagoa" da, eskarmentuari esker. Aurten, GR-12 ibilbidea egingo dute; iaz, GR-12 eta GR-11 uztartu zituzten. "Zazpi herrialdeetan izango gara; Zuberoan gutxi sartuko gara, baina hura ere bisitatuko dugu", esaten du AEK-ko ordezkariak.

Bisitatuko dituzten leku batzuk "euskaldunondako oso esanguratsuak dira, eta entzunda, behintzat, ere oso ezagunak; baina jende asko, beharbada, ez da han egon", esaten du Arroita.

Horiekin batera, "apurka-apurka deskubritu" dituzten beste leku batzuk bisitatuko dituzte: "Adibidez, Opakuatik abiatuta, kobazulo oso ezezagun bat dago, baina ikaragarria da. Lakua dago barruan. Hori beste leku baten egongo balitz, ziur sarrera kobratuko luketela".

## Euskalki asko

Euskal Herriko zazpi lurraldeetan ibiliko direnez, parte-hartzaileek



lazo barnetegi ibiltariko taldea, gailurrean. | ARGAZKIAK: ASIER ARROITA



Zaldien artean pedalei eragiten.



Tokian tokiko herritarrekin batzen dira barnetegikoak.



Furgoneta zain izango dute gaua eman behar duten lekuan.



Iaz bizikletazko barnetegi ibiltarian joan zen taldea.



Atsedent hartzeko unea, paisaiatz gozatu bitartean.



Hainbat mendate igoko dituzte aurten ere, oinez.

## AEK-ren ibilaldiak

**ZER**  
Oinezko barnetegi ibiltaria, ekainaren 30etik uztailearen 15era; bizikletazkoa, abuztuaren 4tik 19ra.

**IZENEMATEA**  
Denondako zabalik: euskara ikasleak, euskaldun zaharrak, AEK-ko ikasleak eta ez direnak. Telefono zenbakia: 630 14 81 59; e-maila: [ibiltaria@aek.org](mailto:ibiltaria@aek.org).

**PREZIOA**  
473 euro. Trasteak eroateko furgoneta, lo egiteko lekuak, otorduek eta ibilbideari buruzko liburuxka eta mapak prezio horretan daude.

**AURTEN**  
Amaiurko gaztelua bisitatuko dute, eta, oinezkoan, tirolina egingo dute.

"euskalki asko ezagutuko dituzte. Izan ere, bidean, leku bakoitzekeo hitzuneekin harremanetan jartzen gara, eta euskaldun berriendako, gehienbat, harritzekoa izaten da zenbat euskara mota dauden ikustea".

Parte-hartzaileak denetariko mailetakoak izaten dira: EGA tituludunak, oinarrizko maila dutenak, euskaldun zaharrak... Hiru irakasle ere badoaz. Euskara eskolarik ez dago; berba praktika da egiten dutena.

Urtero moduan, ekintza kulturalak ere antolatu ditu AEK-k. Aurtengo antolatu dituzten jarduerak batzuk hauek dira: "Iaz bezala, seguruenik aurten ere egongo da masaje ikastaroa. Bestalde, landare ikastaroa ere egin zen iaz, partaide batek emanda: mendira askotan joan arren, askok ez ditugu landareak edo zuhaitzak ezagutzen, eta ikastaro teoriko-praktikoa egingo dugu".

### Aurten, arratsalde ere bai

Debagoienean gelditzen direnek ere badute non euskara hobetu edo praktikatu, izan ere, bailarako euskaltegiak zabalik jarraituko dute. Horiek ere badute berrieta

sunik: batik bat, Oñatiko euskaltegiak antolatu duen ostalariendako euskara ikastaroa; eta, bestetik, Arrasateko Erdu-AEK-k lehenengo aldiz arratsalde ere emango dituela eskolak.

Erdu-AEK-n, 2. mailako eta EGA azterketa homologatuak prestatzeko udako ikastaroa emango dute; uztailean, 2tik 26ra; eta irailean, 3tik 13ra; 72 ordu. Matrikula zabalik dago ekainaren 22ra arte. Erdu-AEK-ko arduradunek hau azpimarratzen dute: Ikasturte honetara arte, euskaltegiak maila bat lortuta zutenek, berdin zen

zein urtetan, azterketetara joateko aukera zuten, behin eta berriro. Aurten HABEK aukera hori moztu egin du, eta aurten matrikulatuta edo aurreko udan matrikulatuta egon zirenei eman die, bakkrik, aukera. Udako ikastaro hau aukera ona da aurrez maila horiek lortu zutenentzat, eta urte osoan berriro aritu nahi izan ez dutenentzat, aurten aurkezteko aukera emango dielako".

Oñatin, ostalariak oinarrizko euskara ikasteko aukera dute 60 orduko ikastaroan, udal euskaltegiak. Ekainaren 22ra arte eman

daiteke izena, eta dagoeneko zapi lagunak eman dute. Euskaltegi-ko arduradunak pozik daude orain arteko erantzunarekin.

Bestalde, EGAKo 2. deialdirako eskolak jaso gura dutenek ikastaroa *on-line* jasotzeko aukera ere izango dute aurten, iaz bezala.

### EGAKo taldeak osatzen dira

Arrasateko Udal Euskaltegiak, EGAKo ikastaroa emango dute uztailean eta irailean, baina "denok" dutela han lekua gogorarazten dute arduradunek: 1. edo 2. hizkuntza eskakizunak lortu gura dutenek, euskaraz hobeto berba egin gura dutenek, euskalkia landu gura dutenek...

Bergarako Udal Euskaltegiak ere, "edozein mailako" ikastaroak antolatzeko zabalik daude. Batez ere, 3. mailako taldea izaten da, eta aurten, 100 orduko ikastaroa prestatu dute. Ekainaren 25era arte matrikula daiteke.

Leintz Udal Euskaltegiak ere, EGA, ikastaro intentsiboak, etorkinendakoak... antolatzeko gertu daude. EGAKo ikastaroa uztailean osoan eta irailean emango dute; urtero osatzen da taldea, eta aurten ere hala izatea espero dute.

### ESANAK

"Edozein etor daiteke, edozein euskara maila izanda; euskaldun zaharrak ere izan ditugu"

ASIER ARROITA | BARNETEGI IBILTARIETAKO ANTOLATZAILA

"Oinezko barnetegian, aurten, tirolina egingo dugu, Garraldako lagun batzuei esker"

## Euskaltegiak, zabalik

### BERRITASUNAK

Bi dira aipagarriak aurten: Erdu-AEK-k lehenengoz arratsalde ere emango dituela eskolak; eta Oñatiko euskaltegiak ostalariendako ikastaroa emango duela.

### MATRIKULA EPEA

Arrasate, Bergara, Leintz eta Oñatiko udal euskaltegiak zein Arrasateko Erdu-AEKn zabalik dago izenematea.

### UZTAILEAN ETA IRAILEAN

Bi hilabeteetan dago eskolak hartzeko aukera edozein euskaltegitan.

### PREMIAK

Eskaera handiena EGAKo eskolek izan arren, beste edozein premia duenak ere zabalik ditu ateak.

Orain Arrasaten

Benetan **pisua galdu** nahi duzu?

Rosa Sarabia doktoreak kontsulta berria irekiko du:

**PronoKal<sup>®</sup> metodoa**

Zientzia eta zorrotasuna pisua galtzeko

- Kontrol mediku zorrotza
- Pisu galtze handia - Gosegabezia

Bilbon: Clinica Sarabia: Ercilla kalea, 42.

CMU centro médico UDALAITZ

Euskal Herria plaza 3. ARRASATE  
Tel.: 943 79 44 22.

Rosa Sarabia doktorea

Medikuntzan eta kirurgian lizentziaduna

OBSIDATEAREN ETA GEHIEGIZKO PISUAREN UNITATEA

BOTOXA - EZPAINAK - MESOTERAPIA

BARIZEAK - HAZIERA FAKTOREAK

BULARRAK - SUDURRA - SABELALDEA

Medikuntza estetiko eta kirurgia plastiko

Esan baietz betiko

# Euskal hedabideen etorkizunerako oinarria, Tokikom jardunaldietan

Egubakoitzean Garaia gunean 100 lagun elkartu ziren euskal hedabideen geroaz hausnartzen

UBANE MADERA | ARRASATE

"Aktibatu da kolektibo bat kezkatuta dagoena etorkizunari buruz zentzu bitan: arriskua dago daukaguna galtzeko, baina aldi berean aukera dago daukagunetik salto bat egiteko, urrats bat emateko. Parte-hartzea oso esanguratsua izan zen, etorkizunerako oinarria ematen duena".

Hala baloratu ditu Mikel Irizarrek, Tokikom elkarteko presidentek Garaia Berrikuntza Gunean egindako jardunaldiak. *Zer esparru komunikatibo behar du XXI. mendeko euskal hiztun komunitateak?* izenburuarekin, galdera horri erantzuteko oinarritzko gakoak aurkitzen saiatzea zuten helburu jardunaldiok.

100 lagunek parte hartu zuten, "kopuru eta kalitate altuko" parte-hartzea izan zela definitu du Irizarrek. Adibidez, *Berría*, *Argia*, *El Diario Vasco*, CodeSyntax, Mondragon Unibertsitatea, GOIENA, *Antxeta Irratia*, Pausumedia eta *Hernaniko Kronikaren* ordezkariek izan ziren. Eta urrunagotik Flandes hegoaldean liderra den tokiko egunkariko ordezkaritza ere bai.

## Sintesia, udan

Jardunaldion helburua beteta, udazkenerako lana finkatu eta gauzatzea da orain Tokikom egingo duena: "Irten dira ideia eta informazio asko. Orain informazio hori guztia prozesatu eta gehitu egingo dugu lehendik abiatu genuen zirraborrora. Uztailean hiru tailer egingo ditugu. Zehaztu barik daude, baina seguruenik bat izango da negozio ereduari buruz, bestea kazetaritza moldeei buruz eta hirugarrena egitura komunikatiboari berari buruz. Eta udan egin behar dugu horren guztiaren sintesia (...) Gero, horrek guztiak bi bide egingo ditu: bat gure lanerako eta bestea marko orokorrari buruzko gogoeta bultzatzeko", dio Irizarrek.



Hainbat erakundetako ordezkariek, jardunaldietan. | MONIKA BELASTEGI

MIKEL IRIZAR | TOKIKOM ELKARTEKO PRESIDENTEA

## "Hedabideena oinarritzko palanka da"

**Ideia asko atera dira jardunaldietan, bat edo bat nabarmenduko zenuke?**


Ondorio garbi bat da tokikotasunaren bir-formulazioa egin behar dela. Teknologia eta gizartearen bilakaerak ireki egin dizkigu interesak eta ez gara mugatzen esparru itxi batera, herria. Eskualdea ere badago, eskualdetik haratago ere badago... tokikoa baino gehiago gertuko informazioa litzateke toki hedabideendako lan esparrua eta horren azpian, noski,



Mikel Irizar. | GOIENA

behar da sare bat, **Beharrezkoa da erakundeen babes aurrera egiteko...**

Hedabideena bada palanka oinarritzkoa euskararen normalizaziorako eta gure komunitatean koherentsia soziala eta autokonfiantza sortzeko. Etorkizunera ganoraz joateko hedabideetan apustu egin behar da. Ez da %10 gutxiago ipini behar, baizik eta %30 gehiago. Horretaz gura ditugu konbenzitu erakundeak.



INAZIO ARREGI  
GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

## "Politikoez agendan izan behar gaituzte, duinak eta lehiakorrak izateko"

"Interneteko GOIENAREN atariak gora egin du eta egunero 5.000 bisitari eta 14.000 orri ikusten dira. Baina Aztikerrek egindako azterketaren arabera, Interneteko erabiltzaileak gutxi dira oraindik. Bestalde, sarea egin beharra ezinbestekoa da, denek irabaziko lukete lehen mailan jokatzeko. Eta efizientziaz lan egin, teknologia berriak erabiliz. Prestakuntza eta inbertsioak ere ezinbestekoak dira".



IBAN ARREGI  
BERRIA TALDEA

## "Abantailaz jokaten dugu; txertatuta gaude komunitatean"

"Behar-beharrezkoa da komunikazio esparru euskalduna osatzen dugunok norabide berean jartzea. Proiektu nazional sendoa behar da, baina eskualde edo tokiko hedabideen erakunde sendoak ere beharrezkoak dira. Gipuzkoan *Hitza*-k dira bigarren euskarria. Abantailaz jokaten dugu tokiko informazioari dagokionean. Txertatuta gaude komunitatean".



NEREA AZURMENDI  
EL DIARIO VASCO

## "Euskarazko hedabideak ezinbestekoak dira euskara ikusiagoa egiteko"

"Erreferentzialtasuna lortu dute euskarazko tokiko hedabideek eta aitzindariak ere badira hainbat alorretan. Oasirik badago: txikitasunean arin mugitzeko dohaina duena. Dimentsio txikiko hedabideak ondo posizionatuta daude. Aliantzak behar ditugu, indar metaketa behar dugu ezinbestez, euskarazko hedabideendako bai, baina bereziki, komunitate osoarendako".




XABIER LETONA  
ARGIA

## "Erakundeen sostengua areagotu ezean egindako guztia behera etorriko da"

"Tokiko hedabideen indarra sekulakoa da. Estrategikoak gara! Jakina! EITB izan zen estrategiko eta horregatik jasotzen du milioika euro urtero: 70 milioi euro. Gu estrategikoak gara erakundeendako? Beno, bada, 5 milioi euro jasotzen dugu urtero euskarazko gainerako hedabideok erakundeetatik. Eta gu inoiz baino indartsuago gaude, erreferentzialtasunaren aldetik".

## Errausketaren kontra, koloretsu

5.100 kartularen azpian eta Zurriolako hondartzan (Donostia), atzo, domeka milaka herritar elkartu ziren *Aire garbiak bira nazan, zero errausketa* lelopean mosaiko erraldoia sortzeko. Gipuzkoako Zero Zabor taldearen deialdi horretan Debagoieneko ordezkaritzak ere parte hartu zuen. Argazkian Arrasate eta Eskoriatzako alkateak.



AITZIBER ARANBURUZABALA

## UNED-Bergarako eskaintza jendaurrean, Donostiako Mitxelena

MAIALEN REGUEIRO | BERGARA  
UNED-Bergara Ikastetxe Elkartuak hitzaldi informatiboa antolatu du ekainaren 20rako, eguaztena, Donostiako Mitxelena Kulturunean, 2012-2013 ikasturtearen hezkuntza eskaintza aurkezteko.

### Europara egokitu

Unibertsitateko hainbat sailetako arduradunek, goi mailako ikasketa eskaintza osatzen duten

Graduak, Masterrak, Dokortzak... aurkeztuko dituzte. UNED-ek berak azpimarratu duen moduan, horiek guztiak Europako Goi Mailako Hezkuntza Espaziora egokitutako ikasketak dira.

Bestalde, etziko aurkezpenaren ostean, aukera eman gura dute ikasketa eta sailetako buruekin elkartu eta zalantzak eta galderak eurei zuzenean planteatzeko.



Mankomunitateko eta jatetxeetako ordezkariak, jardunaldien aurkezpenean. | MAIALEN REGUEIRO

## Debagoieneko I. Txakolin Eguna egingo dute Antzuolan uztailean

- ▶ Horixe da XI. jardunaldi gastronomikoen berrikuntza nagusietako bat
- ▶ Uztailaren 15ean izango da bailarako Kataide, Otxia eta Upain saldekin

MONIKA BELASTEGI | ARRASATE

Debagoieneko I. Txakolin Eguna antolatu dute uztaileako Debagoieneko Mankomunitateko Turismo Sailak, bailarako zenbait jatetxek eta Debagoie-

neko Landa Garapenerako Elkar-teak, XI. Jardunaldi Gastronomikoen barruan. Izan ere, jardunaldiotan, eskualdean txakolina ekoizten dutenak ere hasi dira elkarlanean.

Uztailaren 15ean izango da Txakolin Eguna, Antzuolan, eta bailarako hiru ekoizlek hartuko dute parte: Arrasateko Jabier Arregik, Kataide txakolinarekin; Arrasateko Felix Etxagibeleg,

Otxiarekin; eta Oñatiko Juan Zelaia, Upainekin. Helburua da eskualdean ekoizten den txakolina ezagutzera ematea.

### Barazkiak haurrei hurbiltzen

Bertako produktuak zuzenean ekoizleei erostea aukera bat da, baina azokak ere aukera ona izaten dira Debagoieneko ekoizle eta artisauen produktuak bertatik bertara ezagutzeko eta dastatzeko.

Hori horrela, jardunaldi berezia ere egongo da uztailaren 21ean, bertako eta sasoiko barazkiak bailarako haurrei hurbiltzeko asmoz. Hain justu ere, Arrasateko Seber Altube plazan egiten den azoka aprobetxatuta, umeendako tailerrak antolatu ditu Auzo Lagunek.

### Txokolatea menuetan

Egubakoitzean abiatu ziren XI. Jardunaldi Gastronomikoak eta uztailaren 31ra bitartean iraungo dute. Ohi bezala, denbora tarte horretan menu bereziak eskainiko dituzte bailarako zenbait jatetxek, garaiko eta bertoko produktuekin osatutakoak. Hain zuzen ere, bailarako baratzeko barazkiak, euskal baserriko oilaskoa eta txokolatea dira menu guztietan azalduko diren produktuak.

Bestalde, parte hartuko duten jatetxeak hauek dira: Arrasateko Hilarion, Hamalau eta Santa Ana; Bergarako Lasa eta Zumelaga; Elgetako Maialde Hotela; eta Oñatiko Etxeaundi, Goiko

Benta eta Soraluze. Jatetxe bakoitzak zehazten du ze egunetan eskainiko duen menua, eta aurrez erreserba egitea gomendatzen dute.

### Bisita gidatuak ere izango dira

Bertako produktuen jatorria eta elaborazio prozesua ezagutzeko bisita gidatuak ere antolatu dituzte: Antzuolako Lapatza nekazaritza ekologikoko baserrira; Aretxabaletako Mendibitzu okela ekologikoa ekoizten duen baserrira; Arantzazuko Gomiztegi kooperatibara; eta Leintz bailaran, *Iturriko gatz mahaian gozo* delako bisita egitera. Parte hartzeko aurrez eman behar da izena Mankomunitateko Turismo Sailean: 943 79 64 63 eta 943 71 89 11 zenbakietan edo [turismo@debagoiena.net](mailto:turismo@debagoiena.net) helbidean.

### Gastronomia eta turismoa

Gastronomiarekin batera, bailarako eskaintza turistikoa ezagutzeko aukerak ere proposatzen dituzte jardunaldietako antolatuzaileek: Arrikruzteko kobetara, Arantzazura eta Oñatira bisita; Bergarako gune monumentalera; Elgetako gerra zibileko ibilbide tematikora; Aizkorri-Artz Parketxera; paintballa egiteko eta segwayan ibiltzeko ibilbideetara.

2009an abiatu ziren lehen jardunaldiak Mankomunitatearen eta eskualdeko hainbat jatetxeren artean, eta elkarlana eragile batzuetara zabaltzen joan da.

## 'Zergatik ez?' tailerra antolatu dute, lehen hitzetik euskara erabiltzeko

Euskal Herriko euskara elkarteek antolatu dute; besteak beste AEDk, Txatxilipurdik eta Jardunek

M.B. | ARRASATE

Euskal hiztun askok, euskara mihian izanda ere, lehen hitza gazteleraz egiten dute. Ohiko egoera askotan gertatzen da hori. Bada, horri buelta emateko helburuarekin, 2010ean *Zergatik ez?* izeneko tailerra antolatu zuen Topagunea Euskara Elkartearen Federazioak. Orain, zabalkundearen eraginkorrak izateko, Federazioak Euskal Herriko 12 euskara elkarterekin elkarlanean –Arrasateko AED eta Txatxilipurdi eta Bergarako Jardun, besteak beste– eskainiko du tailerra.

Saioen helburua da euskal hiztunak hausnartzen jartzea. Izan ere, lantzen diren gaien artean, parte-hartzaileek egoera bakoitzaren aurrean hizkuntza jarrerek izan dezaketen eraginaz gogoeta egiten dute. "Euskararekiko jarrera baikorrak sustatu nahi ditugu", dio proiektuko arduradun Sonia Perezek. Oinarrian, jardunaldiak galdera baten bueltan antolatu dira: *Zergatik ez kokatu euskara guztion elkar-*

*gunerako, komunikaziorako hizkuntza gisa?* Eta tailerraren amaieran galdera horri *Zergatik ez? Jakina, bai Horixe!* erantzuten ahaleginduko dira.

### Euskal hiztunei zuzenduta

Ekimena euskara ezagutu arren erabilera gune harreman eta arloak irabazteko dituzten euskal hiztunei zuzenduta dago; hau da, euskaldunen gehiengoari, datuen arabera –egun, Euskal Herrian euskara ezagutzen dutenen erdiak baino ez du erabiltzen–: besteak beste, hizkuntzekiko duten harremanaz hausnartu nahi duten herritarrei, nortasuna eta identitatea definitzen ari diren nerabe eta gazteei eta hizkuntza joeren eredu izaten diren irakasle, begirale eta haurtzainei eta gurasoei bideratuta dago.

Saioen gainean informazio gehiago jaso nahi dutenak tailerra antolatzen duten elkarteekin harremanetan jar daitezke, edo 946 21 58 05 eta [sonia@topagunea.org](mailto:sonia@topagunea.org) helbidera jo dezakete.

## Oñati eta Arantzazu arteko autobusek ordutegi berria izango dute uztailaren 1etik aurrera

Uztailaren 1etik aurrera, Oñati eta Arantzazu arteko autobus zerbitzuan udako ordutegia abiaraziko dute. Oñatitik 07:30ean abiatuko da lehenengoa eta orduro irtengo da bat 18:30era bitartean; horixe izango da azkena, hain justu ere. Arantzazutik Oñatirako lehena, berriz, 08:00etan abiatuko da, eta 19:00etan azkena. Arrikruzten geldialdia egingo duten autobusak ere egongo dira. Hain justu, Oñatitik 10:30ean eta 15:30ean abiatuko diren autobusak Arrikruzten geratuko dira. Baita Arantzazutik 12:15ean eta 17:15ean abiatuko direnak ere.



## Euskal Tonbolako saria Arrasatera

Merche Tena arrasatearrak jaso du Euskal Tonbolako sari potoloa: autoa. Duela hilabete ekin zion tonbolan jokatzeari eta ezustean eta oso pozik jaso du Dacia Duster autoa. Eguaztenean ekarri zion autoa Arrasatera Euskal Tonbolako ordezkari batek, Belun tabernara. Autoa jasotzera familiako zenbait kiderekin joan zen Tena, eta guztiei ere asko gustatu zitzaion.



Migel Lazpiur. | GOIENA

## Migel Lazpiur bergararrak irabazi du Korta sarietako bat

M.B. | ARRASATE

Confebaskeko lehendakari izandako enpresari bergararrak Jose Mari Korta sarietako bat jaso zuen martitzenean. Beste lau sarietakoak Justo Ercilla, Jesus Hermosilla, Juanjo Azkarate eta Migel Gandiaga izan dira.

Epaimahaia azpimarratu duenez, nabarmentzekoa da bost sarituek euren lan jarduerara garatu duten enpresaritzako sektoreekiko duten konpromisoa. Halaber, "enpresaritzako balioak garatzen, enpresak sortzen eta jarduerara berriak eta lanpostuak sortzen izan duten garrantzia" ere azpimarratu du epaimahaia.

# Kooperatibak, markak hautsi nahian

- Konfekoop-eko bazkideek 2010ean baino %5 gehiago fakturatu zuten iaz
- Iaz 117 kooperatiba sortu ziren, eta aurten, ekainera arte, beste 93 daude sortuta

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Euskal kooperatibak ondo eusten dabilta krisialdiari, eta 2012. urtea iaz baino kooperatiba gehiago eta fakturazio handiagoarekin bukatuko ditu. Iazko ekitaldia oso zifra onekin bukatu zituzten Konfekoop-en, Euskadiko Kooperatiben Konfederazioan dauden 868 kooperatibek: 9.983 milioi euro fakturatu zituzten, 2010ean baino %5 gehiago. Gainera, iaz 117 kooperatiba sortu ziren, eta 2012ko ekainera arte beste 93 zeuden sortuta; eta 56.257 lanpostu zituzten, 2010ean baino 503 (%1) gehiago). Urtea bukatu orduko, kooperatiba kopuruaren marka hautsi daiteke.

Datuak Konfekoop-eko presidentek, Javier Goienetxeak, eta Erkidekoak, Agustin Mendiola, eman zituzten, Bilbon egindako prentsaurrekoan.

Konfekoop-en batzen dira Euskadiko kooperatiba federazio guztiak, eta federazio horietan daude Euskadiko kooperatiben bazkideen, eragiketa-bolumenaren eta enpleguaren %90 eta %95 artean. Iaz bat eginda zeuden 868 kooperatibetatik gehienak (704) lan bazkidetuko kooperatibak ziren; 79, irakaskuntzakoak; 68, nekazaritzakoak; bederatzi, kontsumokoak, sei, garraiokoak; eta bi, kreditukoak. Gehienak, 406, Gipuzkoan daude; 315, Bizkaian; eta 147, Araban.

## 38.088 lan-bazkide

Sektoreka, zerbitzu sektorekoak ziren 469 kooperatiba; 388, eraldaketakoak edo bigarren sektorekoak; eta 11, zuzeneko produktukoak edo lehenengo sektorekoak.

Langile motari dagokionez, iazko 56.257 langileetatik gehienak, 38.088, lan-bazkideak ziren, eta



Javier Goienetxea (ezkerrean) eta Agustin Mendiola, Konfekoop-en 2011ko emaitzen berri ematen. | DOBLE SENTIDO

18.169, langile arruntak. Sexu araberako, oso parekatuta zeuden zifrak: 28.647 langile gizonezkoak ziren, eta 27.610, emakumezkoak.

Kooperatiben fakturazioa 9.983 milioi eurokoa izan ziren, eta 4.703 milioi euro esportazioetatik fakturatu ziren. Kooperatiben Nazioarteko Urte honetan, zifra hauek gogorazi ditu Konfekoop-ek: munduko 1.000 milioi pertsona, biztanle guztien %15, kooperatibako bazkidea da; 100 milioi langile dituzte kooperatibek; 300 kooperatiba handienek 1,6 trilioi dolar fakturatzen dituzte, eta munduko 9. potentzia ekonomikoa izango lirarteke.

## "Dagoeneko, hobeto"

Konfekoop-eko arduradunek aurreikuspen batzuk zabaldu zituzten: euren iritziz, "geroz eta garrantzia handiagoa emango zaio enpresa-jardueran lortzen diren etekinak banatzeko moduari". "Dagoeneko" kooperatibak gainerako enpresak baino hobeto daudela esan zuten, eta datozen urteotan kooperatibismoa asko haziko dela esan zuten, betiere kooperatibak gainerako enpresetatik "bereizten" dituzten printzipio eta balioei eusten badiete.

Bestalde, esan zuten euskal kooperatiben ereduak baduela errekonozimendua, baina "modu formalean" ere errekonozitu dadin gura dutela, eta Lanbide bezalako erakundeetan ordezkatuta izan gura luketela. Faltan igartzen dute kooperatibek ere zeresana izatea Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoan, eta "gutxienez, ordezkaritza bat" izan gura dutela Lanbidean. Horren gainean, gaineratu zuten "egoera aztertzen" dabilzala eta pausoak emango dituztela ordezkaritza hori lortzeko.

JOSE MARI LARRAÑAGA | FOROKOOP-EKO KIDEA

## "Gizartea aberasteko asko egin dugu, baina gehiago ere egin dezakegu"

Jose Mari Larrañaga eskoriatzara Forokoop-en VI. Jardunaldiko moderatzaileetako bat izan zen, joan den eguaztenean Garaian.

### Kooperatibak krisiaren aurrean izan da aurtengo jardunaldiaren gaia. Zergatik?

Krisi hau sortu da sistema bat dagoelako; bada, kooperatibon sistema desberdina da. Hori plazaratzea da gure betebeharra.

### Jardunaldiko gai bat hau izan da:

#### ze ekartzen du kooperatibak krisiaren aurrean?

Gizakiok maitatzeko sortu gara, eta gauzak, erabiltzeko; baina, mundu honetan, gauzak maitatu egiten dira, eta pertsonak, erabili. Hau da gure proposame-



L.K.

na: pertsonak kapitalaren aurretik ipintzea.

### Etorkizuna hortik joango da?

Kostako zaigu, baina mundua giza-tartzen doa, pixkana-pixkana. Orain krisi larria dugu, baina ni gaztea nintzanean gutxiago geneukan —gerra bukatu berri, gosea—, eta ez genion krisia deitzen. Oraingoa ezin daiteke alde batera utzi, baina ezin da alperrik galdu krisiak hobetzeko ematen duen aukera.

### Kooperatiben emaitzak izan da beste eztabaida bat.

Bai. Europan, Debagoiena eta Debarrena dira aberastasuna eta pobrezia artean desberdintasun txikiak duten lekuak, eta kooperatibismoak zerbait aportatu du hori horrela izan dadin. Gure helburu nagusia da gizartea aberastea, ez gu. Orain arte asko egin dugu, baina gehiago ere egin daiteke.

## Gaztempresak 189 enpresa sortzen lagundu zuen iaz

L.K. | ARRASATE

Euskadiko Kutzaren Gaztempresa fundazioak 189 enpresa sortzen lagundu zuen iaz. Enpresa berri horiek 266 lanpostu sortu zituzten, denetara. Horren berri eman du Euskadiko Kutzak. Fundazioak Enplegu Sailaren, Europako Gizarte Funtzaren eta Mondragon Korporazioaren laguntza du.

Enpresa berri gehienak Bizkaian sortu ziren, 82, hain zuzen; 50, Gipuzkoan; 29, Araban; eta 23, Nafarroan.

Ekintzaile edo enpresa berrien sortzaileei dagokionez, honako datuak eman ditu Gaztempresa Fundazioak: gizonezkoak eta

emakumezkoak erdi eta erdi ziren; batez besteko adina 34,8 urtekoa zen; ekintzaileen erdiak langabeak ziren; %38k unibertsitate mailako ikasketak zituzten.

Sektoreka, enpresa berri gehienak (%68) zerbitzuetakoak izan ziren; merkataritza arlokoak, %26.

### 2010ean baino %69 gehiago

Gaztempresak gogora ekarri du langabeziak txarrerako joera izan zuela, eta Euskadin %11,2ko langabezia tasa izan zela abenduan. "Gure historiako azkenaldiko datuak baino okerragoak dira, eta ekonomia garatu batendako

txarrak dira, batez ere gazteei dagokienez". Gazteen langabezia tasa %24,2ra ailegatu da. Bestalde, hainbat faktorek eraginda, "negozio txikiak martxan jartzea gero eta zailagoa izan zen", esan du fundazioak.

Egoera horretan, Gaztempresak 2010ean baino %69 enpresa gehiago finantzatu zituen iaz, eta 4.286 milioi eurotik gorako finantzaketa eskaini zien.

### 5.000 lanpostu

Gaztempresa Fundazioa gizarte erantzukizun kooperatiboaren filosofiaren barruan jaio zen, gizarteari kooperatibek jaso zuten balioaren zati bat itzultzeko nahiarekin. Bere historian zehar, Gaztempresa Fundazioak 2.800 enpresa sortzen lagundu du, eta horiek 5.000 lanpostu baino gehiago sortu zituzten.

## Eroskiko goi-zuzendariak %13,5 gutxiago kobratu zuten iaz

L.K. | ARRASATE

Goi-zuzendariak soldata txikitu die Eroskik 2011n: 13 goi-zuzendariak %13,5 gutxiago kobratu zuten. Iaz, goi-zuzendaritzako 13 kideek 1,72 milioi euro kobratu zituzten, eta aurreko urtean hura osatzen zuten 11 kideek, 1,99.

Eroskik bere horretan utzi zuen administrazio batzordeko kideek dietetan kobratzen dituzten 8.000 euroak.

Eta krisiari aurre egiteko neurri gehiago hartu gura ditu Eroskik: zehazki, bazkide ohiei aukera eman gura die, Eroskiri bere garaian ekarritako dirua Eroskin uzteko, interesen truke. Proposamen hori Eroskiren

ohiko batzar orokorrera eramango dute. Eroskiren helburua da bere ondarea indartzea.

Bazkide ohia beti aske izango da gura duen erabakia hartzeko.

DATUA

1,72  
MILIOI

Eroskiko goi-zuzendariak 1,72 milioi kobratu zuten iaz; 2010ean, 1,99.

Oskar Arantzabal | Ekonomialaria

# "Hemen industriak eta ekonomia errealak pisu handia dauka"

- ▶ Euskal Herriaren bideragarritasun ekonomikoari buruz jardun zuen Arantzabalek
- ▶ Estatu txikiek mundu globalizatuan hobetu funtzionatzen dutela azaldu zuen

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Nabarraldeko antolatuta *Nafarroa-Euskal Herria Estatu independentearen bideragarritasun ekonomikoa*-ri buruz berbetan egon zen Oskar Arantzabal ekonomialaria Bergaran. Harekin izan gara gaiaren inguruan eta Europa barruan nola geratuko ginatekeen galdezka.

**Espainiako erreskatea dela eta gero eta gehiago izango dira estatu independente baten aldeko ahotsak, baina badira hori ekonomikoki bideragarria ez dela diotenak ere.**

Pil-pileko gaia dugu egun hauetan. Egia da sarritan argudiatu zaigula txikiak izango ginatekeela estatu moduan. Kontua da Europan badirela sei estatu gu baino txikiagoak, eta munduan beste 60 bat. Inork ez du zalantzan jartzen horiek bideragarriak diren edo ez, beste kontu bat da hori egokiena den edo ez. Orain zalantzan jartzen ari dena da zein den estatu baten tamaina egokiena funtzionamendu zuzenerako.

**Estatu txikien paradigma ekonomikoaz diharduzu artikulu batean. Islandiak, Luxenburgok... horiek izango dute protagonismoa etorkizuneko Europan?**

Nik uste dut protagonismoa orain bertan dutela. Adierazle ekonomiko askori begiratuta: barne produktu gordina, giza garapeneren indizea, lehiakortasuna... zerrenda horietan estatu txikiak agertzen dira goian. Izan ere, Europako Batasunaren fundatzaileek kulturen Europan sinesten zuten, eta, alde horretatik, uste dut ondo kokatuta dagoela. Estatu txikiak irekiagoak dira esportazio eta inportaziorako, mundu globalizatuan hobeto funtzionatuz.

**Erregioen Europa batez hitz egin izan da.**

Beste era batera eratzeko formulak dira. Azken batean, 500 milioi biztanle daude Europan, eta estatu gutxiak. Horrek urrutiago jartzen du herritarra erakundetatik. Hurbiltasunak konfiantza handiago ematen du, eta, gainera, finantzak kontrolatzeko ere aukera gehiago daude.

**Krisiak Euskal Herrian Espainian baino gutxiago eragin du. Zergatik?**

Eredu produktibo ezberdina dugulako. Hemen industriak eta ekonomia errealak pisu handia dauka, eta Espainian, osera, eraikuntzak eta turismoak. Bere egunean lanpostu asko sortu zituzten, baina orain ez da garai onena. Esaten



Oskar Arantzabal ekonomialaria. | GOIENA

**"Europan badira sei Estatu gu baino txikiagoak direnak, eta munduan 60"**

dute gure eredu produktiboa Alemaniatik askoz ere hurbilago dagoela: makina-erreminta, metala, autogintza...ditugulako. Kalifikazio agentziek Espainiari baino kalifikazio hobea ematen digute, bi maila gorago. Bestalde, hezkuntza aldetik oso jende trebatua daukagu guk. Hortaz, askoz hobetu kokatuta gaude.

**Europa mailan non kokatuko zenuke Euskadi?**

Barne produktu gordinari begiraturaz gero puntan-puntan gaude; langabezia tasan batez bestekoan gabilta: %11-12; ikerketa eta garapenera ere nahiko ondo gabilta, %2; eta, esportazioetan ere bai. Hortaz, punta-puntan egon gaitz-

**"Gure eredu produktiboa Alemaniatik hurbilago dago"**

ke, gauza asko hobetuta, noski. **Euskal estatuaren sorrera, hortaz, ekonomikoki bideragarria da eta interesatzen zaio Euskal Herriari?**

Bai, noski interesatzen zaiola, batez ere motibazio aldetik. Egia da gauza batzuk hobe daitezkeela: sarritan aipatu izan da energia kontuetan gabezia handiak ditugula. Orain, energia berriztagarrien aldeko apustu handia egiten ari da. Bestalde, enpresa txiki asko ditugula esan ohi da, baina badira elkarlana bideratzen dituzten erakundeak.

**Nola erreakzionatuko luke Espainiak horrelako kasu batean?**

Espainiara gero eta gutxiago saltzen da. Azken urteetan behe-

**"Espainiarekiko harreman ekonomikoa jaitsi egin da azkenaldian"**

ra egin du nabarmen Espainiarekiko lotura ekonomikoak; eta azken bolada honetan askoz gehiago. Egia da sarritan aipatu dela balizko boikota gerta daitekeela, eta badira adibideak. Adibidez, Kataluniako kavarekin gertatu zena: salmentak %6 jaitsi ziren, baina katalanek, gero, esportatu egin zuten. Esloveniari ere boikot egin zitzaion Serbiaren aldetik, baina egun, Eslovenia Europa barruan dago eta Serbia ez. Alde horretatik, ez dut uste horri halako beldurra izan behar zaionik, erosle ere bagarelako, eta harreman komertzialetan joan-etorriko fluxuak izaten dira. Hasieran uste dut

eragina izango duela, baina, haurren haserrealdian gertatzen den moduan, gero pasatu egingo da.

**Eta Europaren barruan jarraituko genuke?**

Europan barruan geruza asko daude. Batzuk Europa barruan daude, baina eurogunean ez. Nik uste dut, ñabardura askorekin, baina Euroaren barruan egoteak egonkortasuna ematen digula. Gainera, gure kasuan Ipar Euskal Herriarekin moneta bera erabiliko genuke. Aparte joango bagina, beste moneta bat jaulki beharko genuke, eta hori, beharbada, garesti aterako litzaiguke.

**Europako Batasunaren barruan ez egonda, posible izango litzateke gaur egungo mailari eustea?**

Europan Batasunetik irtenez gero, beste arazo bat sortuko litzateke: pentsa paradisu fiskal bihurtuko bagina, ba, Europari hori ez zaio interesatzen. Barruan egotearen aldeko apustua egongo litzatekeela uste dut.

## ZABALIK

**IÑAKI CASAS**  
http://goiena.net/iritzia/



## Hiru Haundiak

**M**inutu gutxi batzuk geratzen dira ekainaren 1a amaitzeko. Gaua, goizalde jada, beroa da Ondategin, eta urduritasuna eta ikusmina nabari da giroan. Aurretik 100 kilometro ditugu, eta Euskadiko hiru mendi mitiko: Gorbeia, Anboto eta Aizkorri. Bada, probak berez daukan gogortasuna areagotu egingo da iragarri dituzten tenperatura altuak direla-eta.

Mila eta hirurehun kirolari, arropa teknikoa soinean, frontalak, motxilak janariz eta urez beteta... antolatzaileek irteteko pistola-tiroa noiz emango zain.

Atzean geratu dira prestakuntza hilabete eta ordu asko, entrenamenduak, eta 24 orduan jakingo dugu sakrifizio horien guztien emaitza, Araiako helmuga zeharkatzeko denbora-muga hori da-eta. Helburua: iristea. Batzuek arinetan egingo dute, beste batzuek oinez. Garrantzitsuenaren erronka gaintzea da.

Kirolari batek, irteera-puntuak dagoenean, ordura arte egin duen lanaren ziurtasuna dauka, eta horrek segurtasuna ematen dio, baina beti geratzen da inponderableen marjina.

Azkenean, antolatzaileek tiro egin dute. Burua hotz. Jan eta edan etengabe. Egina. Lehenengo aldapa. Tendinitis bat agertu da. Burua hotz. Jatekoa eta edatekoa Otxandion. Arima batek antiinflamatorio bat eman dit, Landarainoko bidea arinduko dit horrek. Iritsi gara Arabako *hondartzara*. 40 kilometro geratzen dira. Gel antiinflamatorioarekin beste igurtzialdi bat. Eguzkia eta 30 gradu baino gehiago. Burua hotz. Errotak, amaiezina. Aizkorri, topera. Trumoiak gainean. Beherantz bidea hartzeko ordua da. Argi txikia dago. Hamarrak dira, euria ari du. Lortu dugu!

800 kirolarik baino gehiagok lortu dute euren helburua eta sari-tua ikusi dute euren erronka. Prestakuntza egokia, ibilbidea ezagutzeara, une kritikoak gestionatzea, ezustekoen aurrean egokitzeko gaitasuna... horiek guztiek egin dute posible helmugara iristea. Hiru Haundiak, bizitzaren metafora handia.

**"Argi txikia dago; gaueko hamarrak dira, euria ari du; lortu dugu"**

## USTEAK USTE

ARANTZAZU EZKIBEL | aezkibel@goiena.com

## Etxera pozik fan nintzalako...

**L**anetik etxera askotan kantsauta, haserre edo dana dalako umoriarekin faten gara. Arrazoiak asko izaten dia. Aurreko martitzenian, baiña, erabat pozik eta "beteta" allau nintzen etxera. Bi errealitate bertatik bertara ezagutzeko aukeria izan neben, eta baita errealitate hori bizi daueinak be. Pertsona ausartak, sentitzen dauen moduan bizi gura daueinak, bizitza datorren moduan onartu eta aurre egittia erabai daueinak eta, gaiñera, maittasunez betiak. Leziño bat emun noztain, nahiz eta euren asmua ez dan izan iñoi leziñuak emuten ibiltia. Lerro hauen bittartez, eskerrik asko, Iratxe, Belen eta Ixotz, eta jarraitu zarein modukuak izaten!

## KALE INKESTA

Aurten ere, badatoz San Juanak, zer egiteko asmoa duzu?



**MERTXE TROJAOLA**  
ARRASATE

"Ni jaietan Arrasatetik kanpora joaten naiz. Urte askotan herrian geratu gara, baina orain gazteen txanda da, beraiek disfrutatu behar dute".



**ANE IZQUIERDO**  
ARRASATE

"Nire kasuan, lan eta lan. Jaietako giroa oso gustuko dut, baina taberna batean lan egiten dut. Hala ere, jaietako falta zaiela esango nuke".



**ANDONI ALTZELAI**  
ARRASATE

"Jaietako disfrutatzen dut, ahal izanez gero, jaietan herrian geratzen naiz. Gainera, aurten beste jubilatutako batzuekin karroza bat prestatu dugu".



**MIREN ERRARTE**  
ARRASATE

"Lagunekin topera disfrutatu. Egitaraua ona da eta kontzertuak ere oso potenteak. Herriko jaietan jendea hemen geratu beharko litzateke".

## HANDIK ETA HEMENDIK

## Bart Bijmens eta tokiko prentsa Flandrian

**Joxe Aranzabal**  
http://goiena.net/blogak/farola/

Egun hauetan Bart Bijmens kazetari flandestarra Euskal Herrian da, gaur parte hartuko du-eta Tokikom jardunaldian.

Bertan, *Het Belang Van Limburg* tokiko egunkari arrakastatsuen online eta offline esperientziaren berri emango du. Atzo gure fakultatean izan zen, eta elkarrizketa interesgarria izan genuen berarekin. Azaldu zigunez, bere egunkaria 1879an sortu zen, eta Limburg eskualdean kokatzen da, Flandriako probintziarik txikiena, non bizi diren 850.000 lagun. Het Belang van Limburg egunkariak 60 kazetari dauzka, egunero 100.000 ale saltzen ditu (horietatik %72 harpidetza bidez) eta merkatuaren %80 egin du bere. Hortaz, jaun eta jabe da Limburgen.

Edizio digitala: harrigarriena baina, edizio digitalaren bilakaera iruditzen zitzaidan. 2011n plazaratu zen, CMS batean oinarritua Edukiak Kudeatzeko Sistema

bat, eta dagoeneko 7.000 herri kazetari dauzka, zeinek txintxo-txintxo sartzen duten informazioa webgunean. Herriarrek era guztietako informazioa bidaltzen dute: testuak, argazkiak, datuak, bideoak... eta egunkari digitalak argitaratu egiten ditu, bertako kazetari profesionalak (zazpi, edizio digitalean) editatuta.

Limburg probintzia 48 komunitatetan daukate banatuta, eta Bart Bijmens-ek dioenez, 45etan oso ondo funtzionatzen du herri kazetaritza. Astean barrena edizio digitalean argitaratutako herri kazetariaren albisteak larunbatean paperean kaleratzen dira, 10 ediziotan, bakoitza 16 orrialdekoa, eguneko egunkariarekin batera.

[...]  
Etorkizuneko desafioen artean bi nabarmentzen ditu: bat, aldatzea papereko kazetariaren jarrera, gorrotatu egiten baitute edizio digitala; eta bi, egokitu edizio digitala telefono aurreratuera. Urtea amaitu aurretik, bestalde, 8.000 herri kazetari izan nahi ditu. Bitartean, mimatu egiten ditu dauzkanak, eta hilean behin formazioa eskaintzen die, argazki onak ateratzen erakutsita, esate baterako.

## Zaharra berri

**Luis Aranberri 'Amatiño'**  
http://eibar.org/blogak/amatiño/

Euskal politikak garai berritan diharduenik ezin uka. Eta ez, soilik, politikagintzak irabazi duelako, oraintsu arte zenbait girotan –arunt asko eta ezinbesteko bailiren– erabili ohi ziren terminologiak, mezu-motak eta aldarri-jarioak erabat zaharkitu eta zentzugabetu direlako baino. Aldaketaren adierazgarri aproposak Amets Arzallus mugakumeak, mugez hain zuzen, jarritako bost bertso eder bezain zehatz eta diok, zeinetan bosgarrenak dioen: "*Baina guk sartu nahi dugu denak doazen gurdian / pentsatu gabe zer kirats duen zulo horrek ipurdian / gero bizitza galtzen uzteko lau mugarraren guardian / beste zentzu bat bilatu gabe garenaren izerdian / guk estatua nahi ote dugun mixeri horren erdian*". Hausnar horrek zer ikusi gutxi du gero azken berrogei urtean bertso-girotan nagusi izan den erretorika arolarekin eta bai, ostera, euskal abertzaletasunak –Luis Eleizalde, Ixaka Lopez Mendizabal eta Jose Eizagirre idazleen ordezkarietaz– Lausanneko nazionalitateen kongresuan (1916) aldarrikatu zuenarekin.

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte  
E05 Basabe Poligonoa,  
20550 ARETXABALETA

**Lehendakaria** Estepan Plazaola

**Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate  
**Erredaktore burua** Ubane Madera  
**Sailietako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Asteburuko edizio arduraduna** Ubane Madera  
**Maketazioa** Kepa Martelo, Imanol Soriano  
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Ziortza Martin, Imanol Elortza  
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate  
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia  
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA**  
ARRASATE 20500:  
Udalora Lizenziaduna 31 | 132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

**ORDEZKARITZA**  
ARETXABALETA 20550:  
E05 Basabe Poligonoa  
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550  
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05  
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com  
**Harpidetza** Aretxabaleta 20550  
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05  
harpidetza@goiena.com  
**Lege Gordailua:** SS-0088/04  
**ISSN:** 2173-707X  
**Tirada:** 5.000 ale  
**Difusioa:** 4.383 ale

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako initzen erantzukizunik.



**Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**




**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



# Carrefour

## GORBEIA



Ekainaren 23ra arte



Carrefour Discount  
Esne osoa,  
erdigaingabetua  
edo gaingabetua  
1l

0,49 €

Behi-xerra  
primerakoa  
Kiloa

7,20 €



Oilasko-bularkia  
Kiloa

4,99 €



Legatz  
freskoa  
Kiloa

5,90 €

Sandia  
beltza  
Kiloa

0,55 €



# DIZATOZ LOAN\*

\*50€ baino gehiagoko erosketa eginda,  
Carrefour Gorbeiarantz etortzeko AP-1eko  
autobidea ordaintzen dizuegu.  
Ezinbestekoa da autobideko tiketa aurkeztea.

Uztailaren 31ra arte

Carrefour

Carrefour   
GORBEIA

ARRASATE

ARETXABALETAK

ESKORRIATZA

[carrefour.es](http://carrefour.es)

# Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



## AKUPUNTURA

### INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behe, ezk / 943 77 13 34

### ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

## ALBAITARIAK

### ETXEBERRIA JULIO

(DEBAGOIENeko ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

## DENTISTAK

### ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otorala lizentziaduna 18 solairu artea ezk.  
943 79 13 68

### AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

### ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

### ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

### ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behe / 943 79 71 90

### BENGOA SAN MIGUEL ANGEL

Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

### BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behe / 943 76 05 77

### CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

### GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

### IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

### IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

Elgeta / Torrealdea 2 behe ezk. / 943 76 80 06

### LOPEZ DE GOIKOETXEA

Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

### MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

### SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA

### TAMAYO CONCEPCION

Oñati / Atzeko kalea 6 behe

620 12 48 43 / 943 71 61 82

## ENTZUMEN ZENTROAK

### INSTITUTO OPTICO - BIOACUSTICA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

## ERREUMATOLOGIA

### GORASARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA

TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

## FARMAZIA

### AMAIA IGARTUA SAGASTIZABAL

Oñati / Kale zaharra, 1 / 943 78 01 22

amaiaigartua1@gmail.com

## HOMEOPATIA

### AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11

943 08 11 00 / 695 78 19 21

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

### LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA

### PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## MASAJISTAK

### AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behe / 943 76 73 43

### ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

## OPTIKAK

### BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

## ORTOPEDIA

### MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

### UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA

(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## OSTEOPATIA

### BENGOA NEREA

Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

### ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

## PODOLOGOAK

### ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk. / 943 79 97 46

### IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

### OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKIATRA

### GALLASTEGI PABLO

Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

## PSIKOLOGOAK

### GARMENDIA LANDER

Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

### NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

### PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## YOGA

### SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behe

943 76 11 38 / 639 23 57 53.

# HERRIAK



Banco Bilbao Vizcaya zegoen lokalean, Karlos Galarragaren, Murgizuren eta Unai Azkarateren koadroak jarri dituzte. | E.M.



Barrenkale eta Bidekurutzetan biltzen dira artelan gehienak. Irudian, Riki Azkargortarena, Edertu zegoen tokian. | E.M.



Riki Azkargorta eta Juanjo Altuna, Karlos Galarragaren lanaren ondoan. | E.M.

## BERGARA

# Herri barrua, alaiagoa eta koloretsuagoa Bergaran

Pintoreek eta bestelako artistek hutsik zeuden lokal komertzialak apaindu dituzte euren lanekin

EDU MENDIBIL | BERGARA

Koloretsuagoa izango da Bergarako herri barrua datorren zapatutik aurrera. Hutsik geratu diren lokal komertzialak apaindu dituzte Beart elkarteko margolariak eta beste hainbat kolektibok. Guztira, 36 erakusleho apaindu dituzte eta emaitza San Juan bezperan ikusi ahal izango da. Azken egunotan artelanak jartzen izan dira artistak, Udaleko brigadako langileen laguntzaz, baina estalita izango dira artelanak zapatuta arte: zapatu iluntzean jarriko dituzte jendaurrean. Era berean, herriko artisten lan prozesua erakutsiko dute Muniben irudien bitartez, eta luntza izango da San Juan suak iritsi baino lehenago.

Herri barruko komertzio askok jarduerari utzi diote azken urteotan, eta horrek ematen duen irudia, zoritxarrez, ez da onena. Horren aurrean, erdiko kaleei bizitasun eta kolore apur bat emateko, Udalaren eta margolarien ekimena etorri da. Herri barruko

lokal horietan *aktuatzeko* aukera eman zaie artistei eta lanaren emaitza urtebetean izango da ikusgai. Hain zuzen ere, inguruko herrietako jendea erakartzea da helburuetako bat.

### Pinturak eta bestelakoak

Esandako moduan, herriko margolarien batera argazkizaleak, eskultoreak eta taila eta zeramikagileak izan dute lokalak apaintzeko aukera. Betiere, erakuslehoetara egokitutako lanak izatea zen bete beharreko baldintza. Bedelkarko kideek pozik jaso

zuten erronka, eta, lokalen zozketa egin ondoren, lanean jarri ziren orain dela hilabete batzuk. Udaleko Turismo Batzordeak udako turismo denboraldiari begira plangintza abian jarri nahi zuen, eta, beraz, udan Bergarara etortzen diren bisitariek, herriko ondareaz gain, pintoreen lana ere gertutik ezagutzeko aukera izango dute.

### Itxura berria zapatutik aurrera

San Martin plaza inguruan hutsik geratu diren lokal komertzialetan jarri dituzte artelanak. Artekalean batzen dira gehienak, hango 15 lokalek itxura berria izango dute -eta zapatutik aurrera. Barrenkalean zortzi lokal hartu dituzte artistek, Bidekurutzetan sei eta San Pedro kalean hiru. Kasu askotan, urtetan egon dira lokalek itxita, eta, zalantza barik, itxura alaiagoa erakutsiko dute aurki. Juanjo Altunak, esaterako, hondartza bat margotu du Artekaleko Pablo fruta-denda zegoen lokalean. Beraz, udan ez dugu ezer faltan igarriko aurren...



Gaspar jatetxeko koadroak, estalita.



Anton Arrillagak ere hartzen du parte. | E.M.



Udal brigadakoek jardun dute erakuslehoetan koadroak muntatzen. | E.M.

DATUA

36

ERAKUSLEIHO

Apaindu dituzte Bergarako artistek. Lanak urtebetean izango dira ikusgai.



Sorgin Gauean akrobazioak egin zituzten. | JOSETXO ARANTZABAL



Governors taldeko kideek su eta gar hasi zuten kontzertua. | J.A.



Errementeri dantzako entsegua. | J.A.



Haur Dantzarien Eguneko neskek, herriko plazako alardean. | IRATI GOITIA



Haur danborradako konpainietako bat. | U.M.



Mus txapelketako lehen eta bigarren irabazleak. | GOIENA.



Uxue Alberdi eta Jone Uria, bertsoan. | J.A.



Mery May, kontzertuan. | J.A.

## ARRASATE

# Sorginek sua piztuta, txikiek dragoia esnatuta... hemen dira Sanjuanak!

Arrasateko jai nagusien hasierako ekitaldiak egin dituzte asteburuan, bereziki etxeko txikienek

UBANE MADERA | ARRASATE

Datorren asteburua izan daitekeenaren aurrekari "txikia" izan da oraingo hau Arrasaten. Sanjuanen atarian ohi denez, txiki-xoenek izan dute herriko jai-

tako giltza nagusia zapatu eta domekan. "Danborrada oso ona irten dela dio jendeak", kontatu du Juan Luis Arkauz SUDC elkarteko presidentek, zapatuko jardunaren gaienean. Eta kazetarioi

dagokigun lekukotzatik, bat egin ten dugu baieztapen horrekin.

Bestalde, atzoko Haur Dantzarien Eguna erakutsi zuen Arrasaten dantza tradizionalarekiko zaletasuna bizi-bizi dagoe-

la. Baina zalantzaren bat balitz, haiek uxatuko dituen erretratu paregabea ikusi genuen Jokin Zaitegi plazaren bueltan elkartu ziren 100 dantzari-musikari eta konpartsakoen eskutik.

## Sorgin Gaua eta beste

Osterakoan artean, Sanjuan suarekin ezinbesteko lotura duten sorginak erakartzeko Emakume Txokoaren Sorgin Gau koloretua izan zen zapatu gauean, akrobazia eta guzti. Haren ostean, Governors Arrasateko talde indartsuaren doinuak eta Mery May gazte arrasatearraren gozotasuna zabaldu ziren Herriko plazan.

Arratsaldean, berriz, bestelako zaletasunak erakarri zituen Batzokira karta jokoak, eta "giro apartean" jokatu zuten Sanjuanetako XVI. mus txapelketa. Irabazleak: Rico anaiak.

## ARRASATE

# Gaztetrokoetako ikasturtea amaitzeko, patinen festa bikaina

Urban Fest jaialdian argi geratu zen Arrasaten sekulako maila dagoela



Skate, mikropatin eta patin gainean sekulako maila erakutsi zuten. | A.B.

ARRITXU BARRUSO | ARRASATE

Txatxilipurdi elkartearen bulego berriaren aldameneko skateparkean patinak, patineteak eta mutikoak hegaz ikusi ahal izan genituen zapatu arratsaldean. Txatxilipurdik antolatuta Urban Fest jaialdia egin zuten, eta Arrasateko gaztetrokoak gogotsu ibili ziren arrapalan gora eta behera. Txatxilipurdiko Etor Miner ibili zen gidari lanetan eta azaldu zuen eguna iristeko irrikian egoten direla gaztetrokoak: "Zaletasun handia dago Arrasaten eta horregatik hasi ginen duela urte batzuk festa hori antolatzen. Kurtso amaierako festa izaten da eta sasoi iristen denean berehala hasten dira jaialdia noiz egingo dugun galdezka".

**Salto eta trikimailu ikusgarriak**

Txapelketak jokatu zituzten hainbat modalitatetan: skateak, mikropatinak eta patinak. Guztietan ere sekulako maila erakutsi zuten skater gaztetrokoek, eta aho zaballik, txundituta utzi zituzten ikusleak hegaz egiteko duten ahalmenarekin: "Kontutan izan behar da asko eta askorendako garraio bidea direla tramankulu hauek, beraz ordu asko ematen dituzte haien gainean", adierazi zuen Etor Minerrek.

**Graffitiak ere bai**

Kaleko arteak ere izan zuen tokian Urban Fest jaialdian eta graffiti erakusketa ere ikusleen atentzia deitu zuen.



Graffiti-street art erakusketa egin zuten. | A.B.



Rosa Sanchezek doinu senegaldarrak dantzatu zituen. | JOSETXO ARANTZABAL



Gaztetrokoak ere batu ziren Aste Zapatistako ekintzetara. | JOSETXO ARANTZABAL

## ESKORIATZA

## Beste mundu bat posible dela erakutsi nahi izan dute asteburuan Eskoriatzan

ARRITXU BARRUSO | ESKORIATZA

Zapatisten baloreak zabaldu eta erakutsi nahi izan dituztela azaldu zuen zapatuan Yurre Romarate zabalek. Eskoriatzako Aste Zapatistako antolatzailea da eta pozik dago asteak emandakoarekin: "Ekintza gehienek erantzun ona izan dute eta pozik gaude. Beste mundu bat eta beste printzipio eta balore batzuk posible direla erakutsi nahi izan dugu".

**Zapatua egun handia**

Aste osoan zehar denetarikoko ekintzak egin ostean zapatua zuten Aste Zapatistaren egun handia. Urtero moduan bazkariak jende dezente erakarri zuten; ez da harriztekoa, menua ikusita: janari mexikarra, menu begetarianoa eta mojitoak.

Jaki gozoez gain, perkusioa, danborrak eta musikaririk ez zen falta izan Aste Zapatistari amaiera emateko.



ESKORIATZA ETA OÑATI

JOSETXO ARANTZABAL

**Erretiratuak ospakizunetan han eta hemen**

Oñatiko kiroldegian 255 erretiratu inguru elkartu ziren atzo Erretiratuaren Eguneko bazkarian. Aurretik Jose M. Biain (92 urte) eta M. Karmen Peña (88 urte) senar-emazteak omendu zituzten. Bazkalostean bertso eta dantza artean pozik ibili ziren.

Eskoriatzako Olazar elkarteak erretiratuek berriz, 25. urteurrena ospatu zuten domekan. Goizeko mezaren ostean eguerdian kiroldegian elkartu ziren 230 erretiratu inguru bazkaltzera.



ARRITXU BARRUSO



Uholdeak ekiditeko Axerikoa zubian lanak sustatu ditu Jaurilaritzak. Irudian, zubia behetik ikusita. | ARTXIBOA

## Sei hilabeterako itxiko dute Musakolako sarrera

Oinezkoen, garraio publikoaren zein autoen zirkulazio aldaketak izango dira

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Axeriko zubiko obrak, San Isidroko ermitaren ondoan, maiztaren 25ean hasi ziren. Bada, Udalak jakinarazi du Musakolako sarrera moztu egin beharko dela eta oinezkoen, garraio publikoaren zein autoen zirkulazioa bideratzeko aldaketak iragarri ditu. Obra horien eraginez Musakolako herriko sarrera sei bat hilabetez itxita egongo dela eta "ahalik eta epe laburrean" itxita izateko saiakera egingo dute.

Oraindik ez dute eperik zehaztu bidea ixteko, "behar-beharrezkoa" izan arte ez delako itxiko. Eusko Jaurilaritzako ur agentziak sustatu ditu lanak zubiak eragin ditzakeen uholdeengatik eta Construcciones Murias enpresa ari da lanak egiten.

### Aldaketak zirkulazioan

Itxierak eragin zuzena izango du autoen zirkulazioan. Gainontzeko sarrera eta irteerak erabili beharko dira: Osinakoa, Takolokoa eta Mugarrietakoa. Kiroldegira doazenak, bestalde, orain arteko ibilbidea egin ahaliko dute.

Hiri autobusari dagokionez, geltoki guztietan geldituko da autobusa eta geltokiak betiko lekuan mantenduko dira. Hala ere, ibilbidean moldaketa txiki bat egin beharko da: autobusak, Musakolatik sartu eta irteteko, Osinako zubitik sartu eta irteten beharko dira errepide nagusira - GI-627 errepidea -. Horregatik, geltoki batzuetan atzerapena egon daiteke ordutegian. Ohar bat jarriko da geltoki guztietan horren berri emateko. Eta noski, herri

arteko Pesa enpresak kudeatzen dituen autobusengan ere izango du eragina: Musakolatik sartu eta irteten diren autobusak Osinako zubitik sartu eta irteten beharko dira errepide nagusira. Ondorioz, atzerapenak egon daitezke eta Musakolako geralekuaren inguruan ere aldaketak egon daitezke.

Osinako bidegurutzean trafiko asko pilatuko denez, neurri zuzentzailea hartuko du Udalak: Aretxabaletatik datozenak Osina aldera ezingo dira sartu egun sartzen diren lekutik. Kaskonategiko biribilgunera (Eroskikoa) joan beharko dira eta bertan buelta hartuta sartuko dira Osina aldera. Lehen egunetan udaltzainak herritarrei laguntzeko egongo dira.

## Toki berria Udalaren web orrian Emakume Txokoa, Aukea eta Enplegurako

Informazioa era ordenatu baten zabaldu eta irudiari garrantzia eman, webguneen helburuak

MAIALEN REGUEIRO / J.B. | ARRASATE  
Emakume Txokoa, Enplegu garapena eta Aukeako webguneak aurkeztu dituzte. Talde edo arlo bakoitzari toki bat egin diote Udaleko webgunean. Ane Bilbao arrasatearra izan da webguneak diseinatu dituen.

### Sarerezko beharra


Aukearena herritarrek zerbitzuaren gaineko informazio guztia eskuragarri izateko helburuarekin sortu da. Izan ere, hemendik aurrera herritarrek Aukeara joan edo deitu beharren, webgunean izango dute behar duten informazio guztia. Harpidetza ere egin daiteke postaz. Horrez gain, alokairuak egiteko aukera egongo da webgunean, besteak beste. Azkenik, kirol elkarte bakoitzaren lotura gehitu da eta lotura horren bidez, bakoitzak nahi duen kirol elkartearen webgunera sartu ahaliko da. Helbidea, honakoa: [www.arrasatekirola.com](http://www.arrasatekirola.com). Enplegu sailaren arduradunek, bestalde, jendeak geroz eta infor-

mazio gehiago eskatzen dutela konturatu ziren. Horregatik sortu zuten webgunea: gehien erabiltzen dena lan eskaintza eta lan prestakuntzaren arloa da eta horiek egunero eguneratzen dira. Informazio guztia era ordenatu batean argitaratzen da. Helburu nagusia, interakzioa sustatzea litzateke. Helbidea: [www.arrasatekoenplegusaila.com](http://www.arrasatekoenplegusaila.com).

Emakume Txokoaren web orriak, azkenik, irudia eta diseinua lehenesten ditu. Emakumeen irudi asko ikus daitezke. Egiten diren ekintza guztien berri emango da webgunearen bitartez, baita orain arte egin diren ekintzen berri ere. Izan ere, Emakume Txokoak hurrengo urtean hamar urte egingo ditu eta urte hauetan guztietan egin diren ekintzak berreskuratu dira webgunean jartzeko. Emakume Txokoaren atari berriaren helburu nagusia da pentsamendu feminista bultzatzea. Helbidea: [www.emakumetxokoa.com](http://www.emakumetxokoa.com).



Webgune ezberdinen ordezkariak udaletxeko aurkezpenean. | M. REGUEIRO



Emakume Txokoaren webgune berriaren azala. | ARRASATEKO UDALA

## San Juan bezperan egingo da aurten Arrasate Margo taldeak antolatzen duen pintura lehiaketa

J.B. | ARRASATE

Ohi baino beranduago baina aurten ere Arrasate Margo taldearen pintura lehiaketak ez du hutsik egingo. San Juan bezperan egingo da, zapatu honetan. Aurtengoa zortzigarren edizioa izango da.

### Alde zaharra arte iturri

Gaia eta teknika aukerakoak izango dira eta parte hartzaileek aukeratuko dute non kokatu, beti ere alde zaharrean den bitartean. Izan ere, aurkeztu beharreko lanetan alde zaharreko txokoren bat margotu beharko dute. Parte hartu gura dutenek zapatuan

09:00etatik 10:00etara Tamayo paper dendara joan beharko dira izena emateko eta euskarria kontrolatzeko. Euskarriaren neurria norberaren aukerakoa izango da kategoria guztiendako. Lanak Harresi aretoan entregatu beharko dira 14:00ak baino lehen eta epaimahaiak 14:30erako jakinaraziko ditu irabazleak. Hiru kategoria daude: 13 urte artekoak, 17 urte artekoak eta helduak. Haur eta gaztetxoek margo kutxa edo margotzeko materiala jasoko dute eta helduendako, berriz, dirua izango da saria. Hainbat sari daude: lehen sariak, adibidez,



lazgo edizioa. | ARTXIBOA

600 euro irabaziko du eta Herriko saria lortzen duenak, ordea, 300 euro poltsikoratuko ditu. Argibide gehiagorako, [arrasatemargotaldea@gmail.com](mailto:arrasatemargotaldea@gmail.com) helbidera idatzi.

## Zalduspe-Osinagako pasagunea itxi egingo dute hilaren 20ean, egitura nola dagoen aztertzeko

Nafarroako etorbidea industrialdearekin lotzen duen Zalduspe-Osinagako oinezkoendako pasagunea itxi egingo dute etzi, hilak 20. Udal iturriek jakinarazi dutenez, lanak egiten diren bitartean egongo dela itxita, hau da, 08:00etatik 14:00etara. Bigarren aldia da pasagune hori itxiko dutena: zubiaren egitura nola dagoen aztertu nahi dute azkarregi dabil-eta herdoiltzen; hainbat lagin hartuko dituzte. Laginek eskaintzen dituzten emaitzen arabera erabakiko du Udalak arazo horri zelán egin aurre.



Stop Atez Atekoa plataformako bi kide, sinadurak erakusten. | AMAIA TXINTXURRETA

## Atez atekoaren aurkakoeak sinadurak bateratuko dituzte

Stop Atez Atekoa eta Arrasate Garbi plataformak dabiltza sinadurak biltzen

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE  
Joan den astean tentsio handiko osokoan onartutako atez ateko sistemaren aurkako bi plataformek euren iritzia adierazi gura izan dute. Stop Atez Atekoa plataformako bozeramaile Oskar Gartzia honakoa adierazi zuen eguenean egindako prentsaurrekoan: "Alkateak indar poliziala erabili zuen errepresio moduan, indarkeriaz hustu zuten osokoa. Egia da ez zela zauriturik egon, baina uste dugu indarkeria larri erabili zutela eta nagusikeriaz, planifikatuta eta azpikeriaz jokat

tu zutela". Alkatearen jarrera ere kritikatu zuen: "Eskatzen diogu publikoki barkamena eskatzeko" esan du Gartzia. "Gure protestekin norbait iraindua sentitu baldin bazen, hemendik barkamena eskatzen diegu" gaineratu du. Gartzia gogoratu zuen dagoneko herrian 4.000 sinadura baino gehiago batu dituztela.

**Arrasate Garbi, etxeetaraino**  
Era berean, atez atekoaren aurkako beste plataformak, Arrasate Garbi, esku-orriak banatu ditu etxez etxe sistemaren kon-

trako sinadurak biltzeko: "Atez atekoaren kontra gaudelako, inposaketarik nahi ez dugulako eta Arrasaten balio demokratikoak defendatzen dituen gehiengo bat dagoela azaltzeko sinadurak jasotzeari ekin diogu", diote esku-orrian. Egungo sistemari bosgarren edukiontzia gehitzea proposatzen dute. Sinadurok uztailaren 15era arte jasoko dituzte.

Plataforma bakoitza bere alde tik dabil bilketarekin baina alkateari helarazi aurretik sinadura guztiak bateratuko dituztela jakinarazi dute.

## Hilaren 22tik 25era giro ona bermatuko duen egitaraua antolatu du Txosna batzordeak

**J.B.** | ARRASATE

Txosna batzordearen egitarauko nobedadeen artean, Txosnagunean jaiak egun bat aurreratu direla eta hilaren 25eko Zeuk iñ, zeuk jan koadrilen arteko bazkaria nabarmendu dituzte. Kontzertuei dagokienez, Txosnaguneko bi jaialdi nabarmendu dituzte: hilaren 22an, Los Cretinos, Itziarren Semeak eta Bongo Botrako taldeen emanaldiak eta hilaren 25eko Drop!

Egurra eta Kitto eta Betagarri taldeen kontzertuak.

### Jaiet hasiera, eskubaloioek

Aurten txupinazoa Ford Mugarri eskubaloi taldeko jokalariek botako dute: "Igo ez arren, oso denboraldi ona egin dute eta euren lana txalotu gura dugu". 12:00etan izango da, Txosnagunean.



## AED, Txatxilipurdi eta Ekin elkarten batzar orokorrak eguenean

AED, Txatxilipurdi eta Ekin elkarten ohiko batzar orokorra egingo dute -ordena horretan- hilaren 21ean Kulturategi Jokin Zaitegi gelan. Batzarrak 17:30ean hasiko dira eta bazkideei dei egin diete, egitasmo ezberdinen eta diru kontuen berri izateko. Amaieran, mokadutxoak egiteko aukera egongo da.

## Eguenean 'Pronostiko erresebatua' Herriko plazan, 19:30ean

Sexologia zerbitzuak ekaineko prestatu duen *Sexualitateak* deritzon egitarau berezian kale antzerki interesgarri batez gozatzeko aukera egongo da ekainaren 21ean Herriko plazan (19:30). *Pronostiko erresebatua* kale antzerkia da; "mediku talde ganoragabe bat" du protagonistan, umorez bustitako saioan.



JOKIN BEREZIARTUA

## Herri eskolako danborrada

Arrasate Herri eskolako 2 eta 8 urte arteko haurrek danborrada egin zuten egubakoitzean Musakola eta Bedoñaben. Bedoñaben, ikusmin handia piztu zuen ekitaldiak eta haurren guraso eta senideek bete egin dute eskolako patioa. Sei kantu jo zituzten, eta beroaren eraginez abestiak jarraian jo behar izan zituzten. Badatoz Sanjuanak!



Jon Arizmendi eta Josu Beltran, koadrilen egunerako kamisetekin. | J.B.

## Baserriko produktuak mundu zabalekoekin batera, zapatuko azokan

Saharrek, pakistandarrek eta hegoamerikarrek parte hartu zuten



Herriarrak Brasilgo produktuak probatzen. | U.M.



Saharako tea bertan prestatu eta ateratzen ibili ziren. | U.M.

**UBANE MADERA** | ARRASATE

Pakistango eta Saharako tea, Hegoamerikako arepak, cus-cusa... munduko zapore exotikoak, baina era berean, zelanbait "gureak" ere badirenak eraman zituzten zapatuan baserriarren azokara. Guztiak ere, gure artean bizi diren

hainbat etorkinek herrikideei emateko prestatutakoak ziren. Eta aipatzekoa da arrasatearrek eta gainontzeko bisitariek gogo eta gustu onez dastatu zituztela jakiok, eta zela prestatzen diren ikusi ere bai. "Oso pozik gaude gu eta oso pozik ibili dira eurak hemengo kontuetan sartzeko aukera izan dutelako eta arrasatearrek harreman zuzena izan dezaketelako, besteak beste", adierazi du Iraitz Agirrek, Bagara elkarteeko ordezkariak. "Mundu guztia berdina dela esan nahiko nuke", mezua azpimarratu gura izan du, berriz, Brahimsalem Lehesen sahararrak.

Bagara elkarteak azoka biziberritzeko egitasmoaren baitan gauzatutakoa izan da zapatuko parte-hartze hori. Uda aurrekoak eginda, informazioa jasotzeko prozesua amaitutzat eman dute.

# Bergara KEko futbol sailak 168.000 euroko aurrekontua izango du

Batzar orokorra egin zuten eguenean Miguel Altunako areroan; bazkideen kuota 5 euro igotzea adostu zuen zuzendaritza taldeak

EDU MENDIBIL | BERGARA

Bergara KEk urteko batzarra egin zuen eguenean Miguel Altunako aretoan. Hamabost bat lagun joan ziren batzarrera eta normaltasun osoz joan zen bilera. Besteak beste, datorren denboraldirako 168.700 euroko aurrekontua onartu zuen futbol sailak. Amaitu berri den denboraldikoa baino baxuagoa, 177.505 eurokoa izan baita 2011-12 denboraldikoa. Era berean, bazkideen kuota 5 euro igotzea adostu zuen zuzendaritzak.

Kirol arloari dagokionez, gizonezkoetan bederatzi talde eta emakumezkoetan lau talde aurreikusi ditu futbol sailak. Ohorezko erregionaleko taldean ez da aldatarik izango eta Neka Galanek jarraituko du entrenatzaile postuan. Oraindik ez dute taldea osatu baina nagusiki herriko, harrobiko jokalariekin jokatzeari eutsiko dio taldeak. Zuzendaritzan pozik daude Neka Galanek bere lehenbiziko denboraldian egindako lanarekin: gazteei aukerak eman dizkie, eta, aldi berean, mailari eusteko helburua arazorik gabe lortu zuen taldeak.

## Lehen mailako erregionala

Hurrengo denboraldiko nobedade nagusia lehen erregional mailako taldea izan daiteke. Hori da behintzat zuzendaritza taldearen helburua eta hasiak dira zenbait entrenatzaileekin hitz egiten. Datozen egunotan jakingo da zeinek hartzen duen taldearen ardura. Bi talde nagusiak uztailearen bukaeran izango dituzte lehen saioak, ondoren oporrak hartzeko. hasiera baten, aurre denboraldia abuztiaren 20aren bueltan hasiko dute.



Futboleko zuzendaritza pozik dago Neka Galan entrenatzaileak talde nagusiarekin lortutakoarekin. | GOIENA

## Partiduak Ipintzan

Bestalde, Ipintzako futbol txapelketarekin jarraituz, partiduak izango dira aste barruan Ipintzan. Nagusien mailan 14 talde dira

lehan, bi multzotan banatuta. Multzo bakoitzeko onenak sailkatuko dira azken kanporaketarako eta finala Agorrosinen izango da aurten. Futbol-8ko txa-

pelketak ere jokatzen ari dira: gizonezkoetan zein emakumezkoetan seina talde daude. Bietan ere finalak uztailearen hasierarako aurreikusita daude.

## OHARRAK

### SAN MARTZIALERAKO MAHAIEEN ALOKAIRUA

San Martzialerako mahaiak alokatu nahi dituztenek kultura etxera jo dezakete ekainaren 21era arte, aste barruan 18:00etatik 21:00etara. Mahai bakoitzaren alokairua 20 eurokoa da. Eskatzaile bakoitzeko 100 euroko fidantza jarri beharko da eta egindako eskaerarekin batera agiria jasoko dute, jasotako materiala zehaztuz. Mahaiak eta aulkiak ekainaren 30ean, zapatua, entregatuko dituzte, 17:00etatik 20:00etara, San Martzialen. Argibideak 943 77 91 58 telefono zenbakian.

### REALZALEEN BATZARRA ETA AFARIA HILAREN 22AN

Bergarako Erreal-Zaleak taldeko urteko batzarra egingo du egubakoitzean, hilaren 22an, Agorrosinen, 19:00etan. Ondoren afaria egingo dute bertan eta izen-ematea (20 euro) Zurradero kaleko Matxiategi Elektrizitatea dendan (943 76 19 94) egin daiteke, eguaztenara arte.

### KOARDROAK NAHIKARIN ETA RAIZABAL GOZOTEGIAN

Kontxi Idigorasen akuarela erakusketara dago ikusgai Masterrekako Nahikari tabernan. Hilaren amaierara arte izango da ikusgai erakusketara Masterrekako tabernan. Bestalde, Selena Lizarzabururen koadroak ikusteko aukera izango da datozen asteotan Raizabal gozotegian, Artekalean.

### EQUO ALDERDIAREN EKITALDIA EGUENEAN

Bergarako Equo alderdiak deituta, eguenean, hilaren 21ean, Denboren Bankuak eta bertako diruaren erabilpena izango dute aztergai kultura etxean, 19:30ean. Era berean, banku etikoen jardura eta *Oparitu zuhaitz bat* egitasmoa jorratuko dute.

### MARIAREN LAGUNDIKO IKASLEEN ZOZKETA

Holandako elkartruckerako Mariaren Lagundia Ikastolako 4. mailako ikasleek egindako zozketan 1.649 izan da saritutako zenbakia. Irabazleak bi lagunendako asteburu bateko egonaldia irabazi du. Txartelaren jabeak 943 76 25 40 telefonora dei dezake.

### MULTIJARDUERA ABUZTUAN, AGORROSINEN

Abuztuari begira, Multijarduera eskaintza egingo dute lehen aldiz Agorrosinen. Bi txanda izango dira, eta txanda bakoitzean, adinaren arabera bi talde bereiziko dituzte: 4 eta 7 urte bitarteko haurrendako eta 8 eta 12 urte bitartekoendako hain zuzen. Edozein argibidetarako [www.agorrosin.net](http://www.agorrosin.net) webgunera edota 943 77 70 95 telefono zenbakira jo dezakezue.

## San Joxepeko abesbatza San Antonion

San Joxepe erretiratuen elkarteko abesbatzak emanaldia eskaini zuen eguaztenean, San Antonio auzoko jaien barruan. Ramon Etzaniz txistulariaren saioaren ondoren, erretiratuen txanda etorri zen. Kantu alaiak eskaini zituzten San Antonioko kaperaren kanpoaldean eta ondoren, San Antonio eguna ospatzeko, luntxa izan zen Gure Ametsa elkartearen. Jende mordo bat zen.



SAN JOXEPE





Mariaren Lagundiko eraikinaren obra-hondakinak ateratzen dabiltza orain Demoliciones Rydekoak. | E.M.

# Mariaren Lagundiko botatze lanak, hil bukaerarako amaituta

Eraikina bota ondoren, obra-hondakinak ateratzen dihardute egunotan

EDU MENDIBIL | BERGARA

Eraikinaren botatze lanak amaituta, obra-hondakinak ateratzen dihardute orain Mariaren Lagundiko eraikin berria zegoen tokian. Demoliciones Ryde enpresakoak ari dira aipaturako lanekin eta arduradunen arabera, ekaina bukaerarako amaituko dutela espero dute.

Eraikina botatzeko lanak hasieran uste baino dezente gehiago luzatu dira. Abenduaren 19an hasi zituzten baina otsailen bertan behera laga behar izan zituz-

ten eraikinaren ondoko Zabalo-tegi 14ko etxeetan pareta bat falta zelako.

## Etxebizitzan zain

Udalak eta Ortelbar eta Lotzen enpresetako ordezkariak hitzarmena sinatu zuten joan den maiatzaren 17an, udaletxean. Hain zuzen ere, aldi baterako enpresa sortu dute Lotzenek eta Ortelbarrek, Erregetxo Plaza izenarekin. Sinatutako hitzarmenaren arabera, Mariaren Lagundiko eraikin berriaren tokian, 63 etxebizitza

egitea aurreikusten da. Horietatik 38 libreak izango dira; 13 tasatuak eta 12 babes ofizialekoak, Udalak gestionatuko dituenak. Era berean, 63 garaje eraikiko dituzte eraikinaren azpian eta, horrez gain, komertziorako bi lokal egongo dira. Etxebizitzei dagokienez, logela bat, bi logela, hiru eta lau logelakoak izango dira. Enpresa eraikitzailearen arabera, oraindik ez dago zehaztuta lanen hasiera noiz izango den. Erregetxo plaza dagoen tokian aparkalekuak egitea aurreikusi du Udalak.

## TXALOAK ETA TXISTUAK



## Azoka ondoko zebrabidea



Irakurle batek ohartarazi digunez, Oxirondo azoka eta Santa Marina parrokiaren ondoan jendeak ohitura dauka garai bateko lekutik bidea gurutzatzeko. Toki horretan, Matxiategi aldetik datozen gidariek ez daukate ikuspen handirik eta arriskua nabaria da oinezkoendako, batez ere autoak abiada handian badatoz. Zebra-bidea semaforo ondoan dago, eta hura da bidea gurutzatzeko toki aproposa.

## Bergarako Musika Eskolako bazkideek urteko batzar nagusia egingo dute bihar, martitzena

Musika Eskolak batzar nagusia deitu du bihar martitzenerako. Lehen deialdia 19:00etan izango da eta bigarrena 19:30ean. Ez ohiko batzarra egingo dute batzar nagusia bukatutakoan. Bazkideei dei egin diete batzarrean parte hartzeko. Bestalde, Luis Laskurainen koadroaren zozketan 2.188 izan da saritutako zenbakia. Txarretelaren jabeak Musika Eskolara jo dezake.

## Internet ikastaroak eta beste hainbat eskaintza datozen asteotan Irizar jauregiko KZGunean

Irizar jauregiko KZ Guneak, ohi denez, Internet ikastaroak eskaintzen ditu. Era berean, Google Aps ikastaroak ere egongo dira gaurtik, hilaren 18tik, ekainaren 28ra bitartean. Eta, horrez gain, beste hainbat ikastaro daude aukeran: *Zure seme-alabak babestu*; *Informatika Lainoan*; *Ebay*; *Paypal*; *Itzultzaileak*; edota *QR kodeak*. Argibideak: [www.kzgunea.net](http://www.kzgunea.net) edo 943 02 36 26.

## Bergara Hiria argazki lehiaketako lanik onenak Aroztegi aretoan ikusgai, ekainaren 24ra arte

Bergara Hiria argazki lehiaketako erakusketa ikusgai dago Aroztegin, domekara arte. Jorge Murgiondo, Benito Cantero eta Agustin Gurrutxaga bergararrak daude sarituen artean aurten. Erakusketan lehiaketako 40 argazki onenak jarri dituzte ikusgai, tartean Andres Indurain (koloretako irabazlea) eta Luis Pontijas (zuri-beltzeko lehen saria) argazkizaleenak.

## Odol ateratzea egingo dute etzi, eguaztena, anbulatorioan; parte hartzea eskatu dute

Odol Emaileen Elkarteak gogoratu dutenez, etzi, eguaztena, odol ateratze egingo dute. Ohi bezala, anbulatorioan izango da, 18:00etatik 20:30era. Uztaileko berriz, beste bi odol ateratze iragarri dituzte, hilaren 4rako eta 25erako hain zuzen. Odol beharra dagoela eta, odol emaien parte hartzea eskatu dute Bergarako elkartetik.

## Irakurzaletasun Astea Jardun elkartearekin, uztailearen 2tik 7ra

E.M. | BERGARA

*Irakurzaletasun Astea* iragarri du Jardun euskara elkarteak uztailearen 2tik 7ra bitartean. Egitasmoaren helburu nagusia euskal irakurketa sustatzea da. Jardunekoen hitzetan, "ekimen honen bidez, euskararen erabilera gozagarria bultzatu nahi dugu. Era berean, euskal literaturaren produkzioan laguntzen du egitasmoak".

### Deskontu interesgarriak

Ekitaldien artean, uztailearen 4an haurrendako ipuin kontaketa izango da Agorrosineko kanpo igerilekuan, 17:00etan. Eta, aurreko urteotan egin bezala,

uztailearen 2tik 7ra Ibargaraiko Elkar dendan euskarazko liburuak (haur, gazte zein helduen literatura) merkeago erosteko aukera izango da. Aste honetan zehar, euskarazko literatur liburuak erosterakoan (bi liburu gehienez pertsona bakoitzeko), saltzaileak emandako erosketa txartela Jardunera eraman eta deskontua abonatuak diete erosleei. Helduen literaturan %50eko deskontua izango da, gazteen literaturan %30ekoa eta haur literaturan %15ekoa. Deskontuaren dirua jasotzeko epea uztailearen 13ra arte izango da zabalik Jarduneko bulegoan.



Euskal irakurketa sustatzea da helburu nagusia.

# Elkartasun proiektuetarako laguntzak eskatzeko epea zabalik

- ▶ Uztailaren 6a da eskaerak udal bulegoetan aurkezteko azken eguna
- ▶ Deialdia ekainaren 6ko Gipuzkoako Aldizkarian kaleratu zen

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Garapen bidean dauden herrialdeekiko lankidetzako proiektuak gauzatzeko dirulaguntzen deialdia egin du Udalak. Baldintza zerrenda eta atal bakoitzean banatuko den diru kopurua zehazten duen deialdia, ekainaren 6ko Gipuzkoako Aldizkarian publikatu zen. Hori horrela, interesatuek uztailaren 6ra arteko epea dute euren eskaerak eta proiektuak aurkezteko.

Guztira, ia 133.000 euro bideratuko dituzte elkartasun proiektuetarako, iaz baino 2.600 euro gehiago: %4 (5.316 euro) herrian bertan egingo diren sentsibilizazio arloko ekintzetarako; %20 (26.580 euro) larrialdi edo emergentzia egoerei aurre egiten laguntzeko; eta %76 (101.001 euro) garapen bidean dauden herrietako bizilagunen bizibaldintzak garatu edo hobetzera zuzendutako ekintzetara.

**Araudi aldaketa**

Udal Gobernuak aldaketak egin ditu dirulaguntzak banatzeko araudian. Orain arte, Oñatirekin anaitutako herrialdeei zuzentutako diru atala zegoen –iaz, %36 banatu zen atal horretan–. Gehiena, Hermansoloñak Argentinan dituen elkartasun proiektuetara bideratzen zen.

Aurten, Hermansoloñaren eskaerak gainerako GKEenekin

batera aurkeztu eta aztertuko dituzte. Bestalde, arau berriaren arabera, dirulaguntza hauek eskuratzen dituzten erakunde eta partikularrei sentsibilizazio ekintzak egiteko konpromisoa eskatuko zaie. Eta prozesuaren gardentasuna bermatze aldera, jasotako dirulaguntza justifikatzeko dokumentu txostena azaldu beharko dute.

DATUA

**133.000**

EURO

Hori dira Udalak elkartasun proiektuetan gastatuko duen dirua.

## Herritarrendako arreta zerbitzua ipini dute

M.B. | OÑATI

Udal Gobernu Taldeak herritarrendako arreta zerbitzua ipini du: egubakoitzetan egoten dira zinegotziak 15:00etatik 19:00etara arte. Egunak antolatze komeni da alde aurretik izena ematea. Bi bide daude horretarako: 943 78 04 11 telefonoa edo [partehartzea@oinati.net](mailto:partehartzea@oinati.net) helbidea.

Herritarrendako arreta zerbitzuan askotariko galderak egin daitezke: ingurumena, herri antolaketa, kirol, kultura, turismo eta gazteen dako eskaintzak... Gainera, nor bere iradokizun, kexa edo kezka aurkez ditzake.



Denboraldiko futbol jokalariek onenek aipamenak eta sariak jaso zituzten Etxeberria jatetxean egindako afarian. | ANTON GARMENDIA

## Futbol sailak emaitza positiboarekin bukatu du denboraldia: 5.957 euro

Egubakoitzean egin zituzten denboraldiko balorazioa egiteko batzarra eta afaria

M.B. | OÑATI

Aloña Mendiko futbol sailak denboraldia bukatutzat eman du. Urteko batzarra egin zuen futbol taldeek egindako lanaren balorazioa egiteko, eta sailak izan duen bilakaera ekonomikoa ezagutzera emateko. Bestalde, denboraldia agurtzeko afaria egin zuten. Futbol talde bakoitzeko jokalariek onenek sariak jaso zituzten (ikus ondoko taulan). Gainera, iaz futbola utzi zuen Unai Arregik eta aurten lehen taldea utzi duen Roberto Idigorasek aipamen bereziak jaso zituzten presidenteari eskutik. Aloñaren alde egindakoagatik "esker ona" jaso zuten.

**Sarrerak eta gastuak**

Diru kontuei dagokionean, futbol sailak emaitza positiboa izan duela esan zuen diruzainak Aloña Mendiren egoitzan egindako agra-

rraldian: 5.957 euroko saldo positiboarekin bukatu du urtea. Diru-sarrerak handienak bazkideen kuotak (54.815 euro) eta Azkoagaingo tabernako salmentak (21.091 euro) izan ziren. Bestalde, gasturik aipagarrienak bidaiak (18.293 euro), sariak (14.400 euro), eta tabernako edariak (12.633 euro) izan ziren.

**Kirol arloa**

Kirol arloari dagokionean, talde guztiek egindako lana txalotu zuten. Batzuek beste batzuek baino emaitza hobekiak lortu zituzte. Futbol sailak federatutako hamar talde izan ditu.

Urteko batzarrean bestalde, eskola kirolak eta futbol eskolak egindako lana azpimarratu zuten. Hainbat monitorek "lan bikaina" egin dute harrobiko jokalariekin Josean Larrearen gidaritzapean.

### FUTBOL SAILEKO AIPAMENAK

#### OHOREZKO ERREGIONALA

KEMENARI SARIA

**Mikel Palacios**

ERREGULARTASUNA

**Iker Agirre**

GOLEGILE ONENA

**Asier Ugarte**

KIROLZALETASUNA

**Josu Millas**

AIPAMEN BEREZIAK

**Unai Arregi-Roberto Idigoras**

OHOREZKO GAZTEAK

KIROLZALETASUNA

**Gorka Lazkano**

GAZTEAK LEHEN MAILA

KIROLZALETASUNA

**Julen Astigarraga**

OHOREZKO KADETEAK

KIROLZALETASUNA

**Aritz Azurmendi**

### KADETEAK LEHEN MAILA

KIROLZALETASUNA

**Iñigo Blazquez**

KADETE NESKAK

KIROLZALETASUNA

**Nerea Uriarte**

OHOREZKO INFANTILAK

KIROLZALETASUNA

**Joseba Anduaga**

ESKOLARTEKO INFANTILAK

KIROLZALETASUNA

**Unai Astigarraga-Zacarias Akkhouh**

INFANTIL NESKAK

KIROLZALETASUNA

**June Ugarte**

ALEBINAK

KIROLZALETASUNA

**Eneko Galdos- Jon Bartolome**

## Musika eskolako ikasturte bukaerako saioa

M.B. | OÑATI

Jose de Azpiazu musika eskolakok ikasturte bukaerako kontzertua egingo dute eguean, hilaren 21ean: Foru plazan, 19:00etan. Biolin, metal, haize, triki-pandero, perkusio, txistu eta akordeoi taldeek, askotariko piezak eskainiko dituzte; alegia, ikasturtean zehar ikasitakoa kalera aterako dute. Besteak beste, Kepa Junkera, Cold Play, Xabier Lete eta Esne Beltzaren piezak eskainiko dituzte. Guztira, 250 ikasle-irakasle elkartzeko dira. Kontzertua bukatzeko, Play dance egingo dute ingurartzen diren herritarrekin.

### OHARRAK

**HITZALDIA**

Hiri hondakinen kudeaketari buruzko hitzaldia antolatuko du Oñatiko Pap Ez! Plataformak: hilaren 20an izango da, Santa Ana antzokian, 19:00etan. Garbiker enpresako Mikel Huizi izango da hizlaria.

**DANBORRADA**

Irailean egingo den haurren danborradan parte hartu behar duten neska-mutikoei azken entseguak egingo dituzte asteon: bihar eta etzi (ekainak 19 eta 21) elkartuko dira Errekalde Herri Eskolako sotoan, 19:00etan. Oporren ondoren, beste hainbat entsegu egingo dituzte.

**ASISERA BIDAIA**

Arantzazuko frantzikostarrek Asisera (Italia) bidaiara antolatuko dute uztailaren 29tik abuztuaren 8ra arte. Interesatuek Bidaurretan eman behar dute izena, 943 78 01 05 telefonora deituta.

## ESKORIATZA

## Leiho eta balkoietakako loreen lehiaketa deitu du Udalak, bosgarren urtez

Estreinakoz herritarrek botoa eman ahal izango dute onena aukeratzeko

AMAI TXINTXURRETA | ESKORIATZA

Udaleko kultura batzordeak lehiaketa horren bitartez eskoriatzarrak animatu gura ditu herriko leihoak eta balkoiak loreekin apaintzera. Horrela, herria edertzeaz gain, udaberri-uda garaian herriko kale nahiz fatxadetan loreak protagonista izatea lortu nahi dute, beste urte batzuetan bezala.

### Ez da izenik eman behar

Lehiaketan parte hartu ahal izateko ez da izenik eman behar. Nahikoa izango da leiho eta balkoiak lorez, aihen-belarrez edo beste edozein landarez apaintzea. Herriko hirigunean dauden etxeetako leihoak eta balkoiak hartuko dira kontuan, kaletik begiratuta ikusteko moduan daudenak.

Lore apainketa diseinua erabat librea izango da eta sanjua-netarako leiho eta balkoi guztiek prest egon beharko dute, epaimahaiak bere lana egin ahal izateko.

### Irizpide estetikoak

Baloraziorako, irizpide estetikoak bakarrik neurtuko dira: batetik, lore-konposizioaren bolumena eta kolore konbinazioa; eta bestetik, leiho eta balkoiaren koka-



Eskoriatzako balkoi bat loreekin apainduta. | A.T.

penaren arabera egindako ego-kitzapena.

### Herritarren botoak

Aurten berritasun bat dago leihoak eta balkoiak baloratze-ko orduan; izan ere, Kultura batzordekideek, lorezaintzako profesionalak eta Olazar elkar-tereko kideek osatutako epaimahaiak lehenengo aukeraketa egingo du eta sei balkoi edo leiho aukeratu dituzten ondorengo bozketarako.

Domeka honetatik datorren eguaztenera bitartean, epai-

mahaiak aukeratutako leiho eta balkoiak argazkiak kultura etxe-ko sarreran eta Interneten egongo dira ikusgai, eta orduan et-terriko da herritarrek bozkatzeko txanda. Nahi duenak eman ahal izango du botoa, baina pertsona bakoitzak boto bakarra eman ahal izango du.

### Irabazlea

Irabazle bakarra egongo da eta San Pedro bezperan jakinarazi-ko dute izena, hilaren 28an. Saria bertako produktuz osatutako saski bat izango da.

## ARETXABAETA

## 'Alekania'-ren lehen zenbakia atera du Lanbidek

A.T. | ARETXABAETA

Aretxabaleta Lanbide Esko-lako normalizazio batzordeak euskara hutsez idatzitako *Alekaria* aldizkariaren lehen zenbakia argitaratu du.

Ikastetxean euskara bul-tzatze asmoz sortu dute *Alekaria*, eta, ondorioz, eus-kara hutsean idatzita dagoen aldizkari bat plazaratzeko erronka hartu du normaliza-zio batzordeak.

*Alekaria* ikastetxeko ikas-le eta irakasleei banatu zaie dagoeneko paperean, baina Interneten ere ikusgai jarri dute guztion eskura. Helbide honetan irakur dezakezue *Alekaria*-ren lehen zenbakia: <http://issuu.com/iaretxabaleta/docs/alekaria01>.

## Garbitasun zerbitzua, lehiaketara

A.T. | ARETXABAETA

Udal eraikinen garbitasun zerbitzua lehiaketara aterako du Udalak. Baldintzetako bat izango da urteroko prezioa 152.722,67 euro izatea, BEZa barne. Aurkezten denak hona-ko sailkapena izan beharko du: U taldea, bat azpitaldea eta A kategoria. Iragarkia Europako Batasuneko aldiz-karian argitaratzen denetik 40 eguneko epea egongo da eskaerak aurkezteko, eta eslei-tua izaten den enpresak kontratatu beharko ditu eraikun-tza publikoan garbitzaile diren sei langile. Bi urterako izango da esleipena, eta beste bi urtez luzatzeko aukera izango da. Asmoa da irailean eskaintzak zabaldu eta esleitzea.

## Etxeko langileen lege berriaren gaineko hitzaldia egingo dute bihar, martitzena, Arkupen

Lege berriaren nondik norakoak azaltzeaz gain, tarte bat egongo da herritarren zalantzak argitzeko. Saioa etxeko lanetan dihar-dutenei, enplegu-emaleei eta, beste barik, interesa duten per-tsonei dago zuzenduta. Hizlaria gai horretan aditua den Lanbi-deko langile bat izango da. Arkupen izango da bihar, martitzena, 17:00etatik 19:00etara bitartean. Aretxabaleta, Eskoriatza eta Bideberri mankomunitateko Gizarteratze Zerbitzuak antolatu dute etxeko langileen lege berriaren gaineko hitzaldia.

Osasunagatik  
Ingurugiroak  
kezkatzen gaituelako  
Ongizate arrazoiengatik  
Seme-alabengatik  
Arrazoi ekonomikoengatik

ZERGATIK GAIZKI EGITEN jarraitu,  
ONGI EGIN badezakegu?



Nahastutako bilketa = Kutsadura  
= Zabortegia/Errauste planta



Gaikako bilketa = Birziklatzea  
= Osasuna

ondo  
egitera  
goazz



## ELGETA

## 'Zu bai artista' ikuskizuna egin zuten ikasleek ikasturteari amaiera emateko

Barikuan hartuko dituzte udako oporrak Elgetako Herri Eskolan; egun horretan egingo dute ikasturte amaierako bazkari berezia

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Barikuan Herri Eskolako artista gazteek hartu uzten Espaloia kafe antzokiko eszenatokia eta haien guraso, izeba-osaba eta aitona-amonak bete egin zuten aretoa. *Zu bai artista* izeneko ikuskizuna eskaini zuten epaimahai eta guzti, eta adinka antolatuta dantzan eta kantuan egin zuten txikienetarik hasi eta datorren ikasturtean Ipintzarako saltoa egingo duten seigarren mailako ikasleekin amaitu arte.

Haur Hezkuntzako neska-mutikoek San Petrike eta Txulalai dantzak eskaini zituzten. Jarraian lau eta bost urteko gelako haurrek kantu bat egin zuten ingelesez. Lehen Hezkuntzako haurrek, berriz, dantzan egin zuten eta surf egiten ikusi genituen lehen eta bigarren mailako ikasleak. Hirugarren mailakoek *All my people* dantzatu zuten; laugarren mailakoek *We found love*; eta bosgarren mailakoek *Ma Chérie*.

### Seigarren mailako agurra

Ikuskizunean epaile lanak egin zituzten seigarren mailako neska-mutikoek ere dantzan egin zuten. Ez hori bakarrik, agur bertsoak abestu eta txirula ere jo zuten. Bosgarren mailakoek agur poli-



Hirugarren mailako neska-mutikoak Espaloian egindako saioan. | L.Z.

ta eskaini zieten; maindire bat zabaldu zuten non *Seigarren maila, faltan botako zaituztegu* ipintzen zuten. Emanaldiari amaiera emateko eskolako ikasle guztiek batera *Mantuxa* izeneko kantua abestu zuten, eta guztia hain ondo atera zenez saria ere jaso zuten. "Ekainaren 22an bazkari berezia eta bi hilabeteko oporrak" ipintzen zuten opari-txartela jaso zuten.

### Bazkari berezia barikuan

Barikuan, hilak 22, amaituko da ikasturtea Elgetako Herri Eskolan. Hori dela-eta, irakasleek bazkari berezia prestatu dute eta ikasle guztia elkartuko dituzte eskolako patioan batera bazkaltzeko. Makarroiak, okela gisatua eta izozkia dituzte menuan. Bazkaria, aurten, Maialde landetxeko Jesus Mari Kalboetxeagak gertatuko du.

## Bertsoa eta lore sorta Nerea Villa irakaslearendako

Ikasturte amaierako ikuskizuna berezia izan da Nerea Villa irakaslearendako. Aurten hartzen du erretiroa elgetarrak, eta isilean gordeta omenalditxoak zuten prest ikasleek. Berarendako izan zen ikuskizuneko lehenengo aipamena. "Ikuskizuna hasi aurretik Nerea gure irakasleari bertso bat abestu nahi diogu gurekin eskolan urte asko pasa ondoren erretiroa hartzen duelako", esan zuten aurkezleek. Elgetako ingeleseko irakaslea izan da Villa urteetan. Ikasleek erakutsitako guztia eskertu zioten bertsoan, eta lore sorta ere oparitu zioten.



Nerea Villa lore sorta jasotzen. | L.Z.

## LEINTZ GATZAGA

## San Juan bezperaren zain Andramaixak gertatzen hasi dira

Jai nagusiak antolatzen hasita egon arren aurretik San Juan bezpera eta San Martin eguna datoz

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Herritarren laguntzarekin gertatzen ditu Udalak iraileko jai nagusiak, eta aurtengo Andramari jaiok gertatzeko dagoeneko egin dute lehenengo batzarra, ekainaren 8an, hain zuzen. Hala, herritarren ideiak eta iritziak ezagutu, eta egitarauaren zirriborroa gertatzen hasi dira. Biga-

rrren bilerarako deirik oraindik ez dute egin Kultura batzordeko kideek, baina laster izango da, uztaila bukatzerako jaietako kontu guztiak ondo lotuta izan gura dituztelako. Goiz da egitarauaren berri emateko, baina faltako ez diren hitzorduen artean daude mendi bizikleta ibilaldia eta pilota partiduak.

### Umeendako sua arratsaldean

Andramaixak baino lehen San Juan bezpera dator, zapatuan hain zuzen. Gureleko kideek egun pasa egiteko asmoa daukate: elkartean bazkaldu, eta arratsalde partean sua egin. Hala, umeek gauera arte itxaron beharrik ez dute izango suaren inguruan ibiltzeko. Udalak, ostera, ohiko ekitaldiak antolatu ditu gau partearako: sardina-jana eta sua.

Eta hurrengo domekan, uztailak 1, ere jai giroa izango da herrian. Batetik, Zurtitzako San Martin eguna ospatuko dute Goierri auzoko ermitan; eta bestetik, 35. Dorletako Ama txirrindulari lasterketa egingo dute.

## ARAMAIO

## 'Irakurri, gozatu eta oparitu' ekimeneko parte hartzea ona ari da izaten

Txirritola elkarteak antolatzen du ekimena haur zein helduen artean irakurzaletasuna bultzatzeko

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Txirritolak apirilaren 23an jarri zuten martxan Topagunea euskara elkarteen federazioak antolatzen duen *Irakurri, gozatu eta oparitu* egitasmoa. Aramaion iaz antolatu zuten lehenengoz. Ekimenaren helburuak dira irakurzaletasuna sustatzea, euskararen erabilera gozagarria bultzatzea, irakurketak suposatzen duen gozamenaren aldarrikapena egitea, herritarra liburutegi publikoen erabilteazale aktibo bihurtzea eta, bide batez, euskarazko liburuen ekoizpena eta salmenta areagotzea. Bada, Olga Jauregi liburuzainak dio haurrak gehiengoan izan arren helduak ere saiakerak egiten ari direla euskaraz

irakurtzeko: "Euskaraz jakin arren ez daude alfabetatuta eta beraz, asko kostatzen zaie euskaraz irakurtzea. Hala ere, asko badabilza saiakera egiten". Haur eta helduen artean 50 bat herritar gerturatu direla dio Jauregik. Iaz moduan, parte hartzea ona ari da izaten: "Jendea pozik dago eta aukera aprobetxatzen dabil", dio.

### Mikel Axpe irabazle zozketan

Maiatzeko 30 euroko bonoaren zozketa egin zen eta Mikel Axpe izan da irabazlea. Ekimena ekainaren 30era arte luzatuko da eta egun hori baino lehenago egingo dute ekaineko bonoaren zozketa. Parte hartzeko dei egin dute antolatzaileek.



Mikel Axpe sariarekin, Martin eta Julen lagunaren artean. | TXIRRITOLA ELKARTEA

## ANTZUOLA

## V. gastronomia lehiaketan patata-tortilla izango da protagonista nagusia

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Aurreko urteetako arrakasta ikusita, aurten ere gastronomia lehiaketa antolatu dute jaietako egubakoitzerako, uztailaren 13rako. Patata-tortillak egingo dituzte bosgarren edizio honetan. Izena emateko epea uztailaren 6ra arte dago zabalik, egubakoitza, udaletxera deituta (943 76 62 46) edo [www.antzuo-la.com](http://www.antzuo-la.com) webgunean.

Antzuolako gastronomia elkarteek, auzotarrek, koadrilek, herriko adozein elkarteek, zein horretarako osatutako Antzuolako taldeek eman dezakete izena. Taldeek bi edo hiru lagunekoak izan behar dute.

Egitarauari dagokionez, 10:45erako egon beharko dute parte-hartzaileek gaztetxe aurreko arkupean. 12:30erako tortilla eginda egon beharko

da. Eta 12:45ean sari banaketari ekingo diote. 13:00etan dastaketa izango da.

Epaimahaia herritarrek osatuko dute. Eta Udalak jarriko ditu: jakiak, sua eta sariak. Ontziak -zartagina, kazola, sardexka, aitxoak, etab.-, berriz, parte-hartzaileek eroango dituzte.

### Kontzertua eta hitzaldia

Biharko bi hitzordu dituzue: batetik, Musika eskolako ikasleentzako kontzertua izango da, 18:00etan, Torresoroan.

Eta Osasun Pastoraltzak Arrasateko Kulturaren zarpian hitzaldia egingo du doluan daudenei laguntzeko. Hizlaria Donostiako Izaskun Andonegi izango da. Doluari nola aurre egin izango da berbagai.

## DEBAGOIENA EZAGUTZEN



**JAKIÖN**  
Jakionek emandako  
**Produktu sorta\***  
\* Jakioneko produktuz osatutako otarra.

**Zeintzuk dira Deba ibaiak zeharkatzen dituen hamar udalerriak (bost Debagoienekoak eta bost Debabarrenekoak)?**

Argazkia eta galdera > Miguel Angel Elkoroberezibar

**Parte hartzeko**

Telefonoz: 943 25 05 05  
SMS bidez: Bidali **KLUBA ERANTZUNA**  
[ bazkidearen zenbakia ] 215800 zkra.  
E-postaz: [kluba@goiena.com](mailto:kluba@goiena.com)

Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.

**Atera etekina**

goienakluba 2012

# %10 eko deskontua

**lastai**  
LASTAI  
haurtzaintza eta  
atseden gunea  
Gasteiz, 945 35 85 59

- %5eko deskontu gehigarria helduentzako atseden arloan.
- %5eko deskontua haur-kotxe eta automobileko segurtasun - aukietan.
- %5eko deskontua sehaska, haur-kotxe eta automobileko segurtasun-aukietarako denboraldiko ehungaietan.
- %10eko deskontua denboraldiko haur-arropan. (Beharpenetan eta eskaintza berezietan izan ezlik).

### LORTU DESKONTUAK HAUETAN ERE BAL

**AQUARIUM**  
Donostiako aquarium-a  
Donostia, 943 44 00 99

**ARGIA**  
euskarazko aldizkari orokorra  
Lasarte-Oria  
943 37 15 45 - 943 37 34 03

**AVIA MECA**  
gasolindegia  
Arrasate, 943 79 13 39

**BEGIENDO**  
optika  
Aretxabaleta, 943 79 98 21

**EUREKA!**  
zientzia museoa  
EUREKA!  
zientzia museoa  
Donostia, 943 01 24 78

**ESKO SPORT**  
kirol denda  
Eskoriatza, 943 71 52 96

**GAHIR**  
fisioterapia-osteopatia  
Eskoriatza, 943 71 43 41

**GAES**  
Centros Auditivos  
Entzumen zentruak  
GAES  
entzumen zentroa  
Arrasate, 943 71 27 93  
Bergara, 943 76 94 55

**GUZTIZ EDER**  
edertze zentroa  
Oñati, 943 78 01 46.

**IKER**  
SUKALDEAK  
IKER  
sukaldeak  
Arrasate, 943 79 00 43  
Oñati, 943 53 35 48

**IZENADUBA BASOA**  
Euskal Herriko parke mitologikoa  
Mungia, 94 674 00 61

**JAIXAK**  
disfrutatzeoko oparixak  
JAIXAK  
denda  
Bergara, 943 76 31 45

**LILURA**  
edertze institutua  
LILURA  
edertze zentroa  
Bergara, 943 76 31 71

**MULTIOPTICAS**  
lehen zerbiztu optikoetan  
MULTIOPTICAS  
optika  
Arrasate, 943 79 29 95  
Bergara, 943 76 15 75

**NAREN**  
fisioterapia zentroa  
NAREN  
fisioterapia zentroa  
Aretxabaleta, 943 08 21 89

**RENAULT AUTOBERRI**  
RENAULT AUTOBERRI  
kontzesionarioa  
Arrasate, 943 71 24 72



**TXURI URDIN**  
izotz jauregia  
Donostia,  
943 46 44 00

## EUREKA MUSEOAREN ESKAINTZAK

### SARRERAK EUREKA MUSEOAN

Musikaren Egunerako eta udako soltzizioaren ospakizunerako bi gonbidapen bikoitz. Ekainaren 23an izango da 12:00etatik aurrera.



Bidali **KLUBA EUREKA**  
[Bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.



### SARRERAK EUREKA MUSEOAN

ikusteko gonbidapenak. Zozketa suertatu ondoren hiru hilabeteko epea duzue joateko. Pertsona bakoitzendako bi gonbidapen.



Bidali **KLUBA MUSEOAN**  
[Bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.



**Parte hartzeko**

Telefonoz: 943 25 05 05  
e-postaz: [kluba@goiena.com](mailto:kluba@goiena.com)  
SMS bidez.

Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko dira.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketaren helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezertzatzeko, helbide honetara idatzita: [kluba@goiena.com](mailto:kluba@goiena.com)

Urteko kuota: 50 €. | Tel.: 943 25 05 05  
e-posta: [kluba@goiena.com](mailto:kluba@goiena.com) | [goienakluba.com](http://goienakluba.com)

**goienakluba**  
Abantailaz betetako kluba!



# KIROLA

SASKIBALOIA

## GBC, EBA eta harrobiko jokalariek bat eginda saskibaloia festan

- ▶ Bergara Saskibaloia Elkarteak antolatu zuen jaia
- ▶ 93 talde lehiatu ziren, iaz baino 11 gehiago

MIREIA BIKUÑA | BERGARA

Gipuzkoako saskibaloia etorki-zuna baduela ikusi ahal izan genuen aste bukaeran Bergaran. Hango saskibaloia elkarteak hiruko txapelketa egin zuen, eta Gipuzkoa oso 345 jokalariek eman zuten izena, mutilak eta neskek, elite mailatik hasita, harrobiko mailetara arte. Gipuzkoa Basket taldean (Mikel Motos), EBA mailan (Askatuak taldeko Pablo Arantzabal eta Easoko Pablo Arenatza, Lander Seguro-la, Dani Alonso eta Dani Agirre) eta Debagoieneko eta Gipuzkoako harrobiko taldeetan diharduten jokalariek bat egin zuten Bergarako plazan. Antolatzaileak, oso pozik. "Harrituta gaude gure txapelketak izan duen bilakaerarekin. Iaz baino 11 talde gehiagok eman dute izena, eta elite mailan, nesken bi talde izan ditugu. Oso pozik gaude", esan zigun saskibaloia taldeko kide Marian Melladok.

**Maila bakoitzeko irabazle bat**  
V. hiruko txapelketa bi egunetan jokatu zuten: zapatuan, elite mailakoak (tartean Debagoieneko taldeak), kadeteak eta juniorrak; eta, domekan, infantilak, alebinak eta benjaminak.

Lehen fasea ligaxka modura jokatu zuten, eta talde onenak finalerdirako sailkatu ziren. Partidua irabazteko aukerak bi ziren: kopuru jakin bat lortzen zuen lehen taldea izatea, edo partidua bukatzean -normalean 10 minutu- puntu gehien lortzea.

Hori horrela irabazleak izan ziren: elite mailan, Pamesa la de mi cuarto (mutilak), eta Tintin, Milu y compañía (neskak); elite Debagoienean, Manolo y Benito (mutilak); juniorretan, Aquí mando yo (mutilak); kadetetan, Truchillas (mutilak) eta Oca torta (neskak); infantiletan, Panatinaikos (mutilak) eta Mongolas (neskak); alebinetan, Andoni Gartzia (mutilak) eta Saski noski (neskak); eta benjaminetan Saski apurtzaileak (mutilak) eta Neskatxo pinpirinak

(neskak). Guztiak jaso zituzten sariak Bergarako udal ordezkarien eskutik. Dirua eta garaikurra jaso zituzten, besteak beste. Gainera, infantil, alebin eta benjamin mailetak parte-hartzaileek domina bana jaso zuten.

Hiruko jaurtiketen txapelketak ere jokatu zituzten. Mikel Arejolaleiba, Gorka Gonzalez, Leire Altube eta Andoni Gartzia izan ziren onenak.



Saskibaloia jokalariek bat saskirako barneraketa egiteko unean. | JOSETXO ARANTZABAL

MARIAN MELLADO | BERGARA SASKIBALOIA ELKARTEKOA

### "Laguntza emandako enpresa, taberna eta jokalariek gurasoei, eskerrik asko"

Gustura zeuden Bergara Saskibaloia Elkartearen kideak hiruko txapelketak emandakoarekin: talde eta parte-hartzaile asko, eta giro bikaina.

**Errekor guztiak ondu dituzue.**

Bai, hala da. Iaz baino 11 talde gehiago izatea marka ona da. Horrek erakusten du gauzak ondo egiten ditugula. Laguntza handia izan dugu.

**Eskerrak emateko moduan zaudete orduan?**

Bai. Eskerrak eman gura dizkiet lagundu diguten enpresa guztiei, bereziki Soraluceri. Bera baita gure oinarri sendoa. Eskertu gura dut,



GOIENA

baita ere, herriko tabernek egindako ahalegina. Horiei esker, parte hartu duten Bergarako taldeen artean hainbat bazkari-afari zozketatu ditugu. Bukatzeko, eskerrik beroenak jokalariek gurasoei, euren laguntza barik ezinezkoa izango zen halako txapelketa antolatzea.

**Bosgarren ekitaldia eginda, sei-garrena antolatzeko asmotan?**

Bai. Erantzuna oso ona izan da; bai taldeek emandako erantzuna eta baita ikustera etorri direnek emandakoa ere. Hiruko txapelketak oihartzuna dauka Bergaratik eta Debagoienetik kanpo, eta horrek gogoan ematen digu aurrera egiteko. Halako txapelketek kirola kalera atera eta gure lana erakusteko aukera ematen digute. Kantxara ez doazenengana heltzeko bidea da.

DATUA

# 345

JOKALARI

Horiek dira hiruko saskibaloia txapelketan parte hartu zutenak, elite, junior, alebin, kadete, infantil eta benjamin mailetan.



GORKA  
DONOSTIARRA

"Lagunekin etorri naiz. Ondo pasatzeko asmoz etorri gara, eta txapelketa irabazten badugu, askoz hobeto. Giro ederra dago, saskibaloia giro ederra. Saskibaloia jokalaria naiz eta halako txapelketak beharrezkoak direla uste dut".



MAITANE ETA ITSASO  
BERGARARRAK

"Urtean zehar futbolekin jokatu dugu, eta saskibaloia probatzeko asmoz etorri gara. Oraingoan, jokatu gaituzte. Antza, oinekin eskuekin baino hobeto moldatzen gara. Saskibaloia probatu arren, ez dugu futbola utziko. Futbolekin partidua irabaziko genituen".



AGUSTIN ETA FRAN  
BERGARARRAK

"Bi partidua jokatu ditugu, eta bat irabazi eta bestea galdu egin dugu. Txapelketa irabazteko gogoarekin etorri gara, baina ezinezkoa bada, ondo pasako dugu. Ez gara saskibaloia jokalaria, baina kirola gustuko dugu, eta bergararrak izanik, animatu egin gara. Kirola kalera ateratzea oso inportantea dela uste dugu".



SILVIA ETA ANE  
URRETXUARRAK

"Iaz ere egon ginen, eta aurten berriro etorri gara. Urtean zehar saskibaloian jokatu dugu, eta denboraldia bukatuta, aukera ona da halako txapelketan parte hartzea. Bergaran giro ona egoten da, eta lagunak artean kirola egiteko aukera ematen digu. Oraingoan bi lehiak irabazi ditugu. Ea bada, finalera heldu eta irabazten dugun".

**ARETO-FUTBOLA** | Sonografos txapeldun, Zaldibarko finalean | **24**



Neska bat baloiarekin. | J.A.



Mutilen arteko norgehiagoka. | J.A.



Neskak, baloia menderatzeko lehia. | J.A.



Taulapeko jaurtiketa bat. | J.A.

**AUKERAZKO IBILGAILUAK SALGAI**



23.900€-tik aurrera

> **FORD Kuga**  
2012 | Diesela | 0 Km



Araba etorbidea, z/g ARRASATE  
943790744 • www.mugarri.es

- Ford Focus 2012 | Diesela | KM 0 18.500 €
- Ford Focus 2012 | Diesela | KM 0 17.500 €
- Ford Transit 2012 | Diesela | KM 0 21.700 €
- Ford Fiesta 1.3 | 70 2008 | Gasolina 6.300 €
- Ford Focus TDCI 110 2011 | Diesela 12.500 €
- Citroën Picasso TD 92 ZP 2007 7.800 €
- Ford Mondeo Tdci 130 ZP 2007 7.900 €
- Ford Kuga tdc1 140 zc 2012 | Diesela | 0 km 24.800 €
- Toyota Land Cruiser Td 3 ate 125 zc 2000 | Diesela 7.800 €
- Ford Galaxy tdc1 140 zc Diesela | 0 km 29.500 €



16.450 €

> **Megane Spor Tourer 130**  
2010 | Diesela | 26.000 km | Berde met.



San andres auzoa 8  
ARRASATE • 943 71 24 72

**MERKEALDIAK**

- 24 hilabete arte duen edozein aukerazko ibilgailu: %0ra finantzatu
- Fluence 105 2009 | Diesela | 14.000 km | Granatea 15.000 €
  - Megane coupe 130 2009 | Diesela 15.000 km | Urdina 15.000 €
  - Gran Scenic 130 2012 | Diesela | 0 km | Grisa 21.000 €
  - Scenic 130 2009 | Gasolina | 12.000 km | Grisa 14.000 €
  - Scenic 110 2011 | Diesela | 5.600 km | Urdina 17.850 €
  - Kangoo 70 2010 | Diesela | 8.000 km | Txuria 11.000 €
  - Kangoo 90 2011 | Diesela | 0 km | Marroia 16.250 €
  - Latitude 150 2011 | Diesela | 19.000 km | Urdina 18.950 €
  - Megane II 2007 | Diesela | 142.000 km | Beltza 6.500 €



29.500 €

> **CITROËN DS5 20Hdi STYLE 160**  
2012 | Diesela | 3.750 | Philae urdina



Debagoieneko Kontzesionario ofiziala

San andres auzoa 5  
ARRASATE • 943 79 45 22

- CITROËN Berlingo Com. 1.6HDI 90 SXMult. 2011 | Diesela | 13.325 | Azul claro 13.500 €
- CITROËN C3 1.4HDI Furio 2006 | Diesela | 85.000 | Beltza 4.900 €
- CITROËN C3 1.4Hdi Attraction 2011 | Diesela | 15.500 | Gris argia 10.000 €
- CITROËN C4 1.6HDI Cool 110 FAP 2010 | Diesela | 48.000 | Beltza 10.000 €
- CITROËN C4 G.Picasso 1.6HDI SX CMP 2011 | Diesela | 37.185 | Urdin iluna 17.250 €
- CITROËN C5 2.0HDI Business 2010 | Diesela | 36.000 | Gris argia 16.000 €
- CITROËN Jumpy Combi HDI 120 8/9p 2011 | Diesela | 28.715 | Zuria 15.700 €
- CITROËN DS3 eHdi SPECIAL EDITION 90 zaldi 2012 | Diesela | 1.750 | Zuria/Zabai beltza 17.200 €
- CITROËN DS4 1.6e-HDI Design STT 2011 | Diesela | 3.000 | Urdin iluna 20.000 €
- CITROËN Berlingo Com. 1.6HDI 110 SX Multispace 2010 | Diesela | 30.006 | Gris iluna 13.800 €

## ARETO-FUTBOLA

# Sonografos irabazle Zaldibarko 50. txapelketan, final estua jokatuta

Hirugarren posturako lehia Dublinek hartu zuen mendean Abokajarro taldea, penaltietan



Sonografos taldeko kideak, garaikurrak hartzen. | USOA AGIRRE

## EMAITZA

SONOGRAFOS

5-3

LASAGABASTER

nahikoa izan Sonografosekoak mendean hartzeko.

**Hirugarren, Dublin**

Finalaren aurretik, hirugarren posturako partidua jokatu zuten Abokajarro eta Dublinek. Partidua 5-5 berdinketarekin bukatu eta penaltietan gailendu zen Dublin.

Liga erregularreko txapeliduna Iriztu taldea izan zen. Pitxitxi eta txapelketako jokalarari onenaren saria Muruarentzat izan ziren. Finaleko jokalarari onena, berriz, Iker Zaitegi atezaina izan zen.



## USOA AGIRRE | ARRASATE

Lehia estua izan zen Sonografos eta Lasagabaster taldeen artean eta emaitzak bestelakorik erakusten duen arren, bi taldeak indartsu aritu ziren Zaldibarko frontoian. Joko aldetik parekatu samar aritu ziren, baina Sonografosekoek gehiago asmatu zuten gola egiterakoan. Hasierako minutuetan 2 eta 0 aurreratu ziren Sonografosekoak, eta horrekin partidua aldapa gora jarri zitzaizen Lasagabasterrekoek. Hala, lehenengo zatia bukatuta, 4 eta 1eko emaitzarekin joan ziren atsedenaldira.

Bigarren zatian, baina, Lasagabasterrekoak langile eta borrokarako gogoz sartu ziren kantxara eta lan handia eman zieten kontrarioei; bi gol egin zituzten bigarren zatian, baina ez zen hori



**IKER ZAITEGI**  
SONOGRAFOS

"Finaleko jokalarari onenaren saria ez nuen espero, taldeko denok jokatu baitugu ondo. Oso zaila eta parekatua izan da; gazte hauek korrika asko egiten dute. Banuen erretiratzeko gogoak eta modurik onenean egingo dut, irabazita".



**IÑIGO JIMENEZ**  
LASAGABASTER

"Tentsio handiko partidua izan da. Baloia asko eduki dugu baina euren gehiago asmatu dute. Bosgarren aldia da finalera iritsi garela eta bakarra irabazi dugu. Datorren urterako gogo handiarekin geratu naiz".



Sonografos eta Lasagabasterrekoak, finalaren ostean. | UBANE MADERA



Txapelketa bukatzeko, afaria egin zuten Biteri plazan. | JOSETXO ARANTZABAL

## GIMNASIA ERRITMIKOA



UBANE MADERA

**Erakustaldi koloretsuak ikasturtea agurtzeko**

Ikasturtea agurtzeko erakustaldiak egin zituzten ibarreko gimnastek Bergaran, Arrasaten eta Oñatin. Egubakoitzean, Bergarako Ariznoa taldeko 110 kidek egin zuten erakustaldia Labegaraietan; dantza klasiko eta modernoak uztartu zituzten bertan. Atzo,



JOSETXO ARANTZABAL

domeka, berriz, Arrasaten eta Oñatin egin zituzten ikasturte bukaerako erakustaldiak. Arrasate Dragoi Gimnasia taldeko 130 gimnastek urte osoan egindako lana erakusteko aukera izan zuten taldeka eta bakarka egindako dantzetan. Horrez gain, Espainiako txapelketan



JOSETXO ARANTZABAL

parte hartu ondoren, klubeko aerobikeko taldea ere bertan izan zen koreografia ikusgarriak eskainiz. Oñatiko Zubikoa kiroldegian, azkenik, Aloña Mendiko 58 gimnastak eta Bergarako Ariznoako bi taldek parte hartu zuten kurtso bukaerako jaietan.



## TXIRRINDULARITZA

# Abiadura handiko lasterketan, bakarrik sartu zen Osintxuko helmugara Joanne Hogan ihes eginda

- ▶ Zapatuan jokatu zuten emakumezkoen III. Soralue Saria eta elite kategorian lortu zuen garaipena
- ▶ Espainiako Koparako eta Euskal Torneorako puntuagarria zen proba eta puntako ziklistak batu ziren

IRATI GOITIA | BERGARA

Emakumezkoen III. Soralue Saria jokatu zuten zapatuan Osintxun eta punta-puntako txirrindulariak batu ziren bertan. Izan ere, proba puntuagarria zen Espainiako Koparako eta Euskaldun Torneorako.

Lasterketan hiru maila ezberdinetako txirrindulariek hartu zuten parte: kadeteek (31 kilometro), gazteek (62 kilometro) eta elite mailakoek (92 kilometro).

## Abiadura handiko lasterketa

Elite eta gazte mailako txirrindulariak batera aritu ziren, baina lehenek itzuli bat gehiago egin zuten Zubillagatik -gazte mailakoak bigarren bueltan batu zitzaizkien-. Abiadura handian aritu ziren (bataz-beste 40km/h) eta ihesaldi askoko lasterketa izan zen. Hala, ihesean irtendako txirrindulari bat harrapatu orduko, beste bat irteten zen erasoan. Halaxe egin zuen Joanne Hogane, gero irabazle izango zenak, azkeneko itzulian Bergara parean. Poliki-poliki denbora hartzen joan zen Bizkaia-Durango taldeko txirrindularia eta bakarrik iritsi zen helmugara (2:21:47). Atzetik sartu zen Ana Ramirez Ouribike taldekoa (2:22:08) eta ondoren tropela esprintean. Taldeko azkarrena Leire Olabarria izan zen (2:22:10). Bestalde, gazte mailako hoberena Alicia Gonzalez izan zen.

## Proba puntuagarria

Espainiako Koparako eta Euskaldun Torneorako puntuak jokoan zeuden zapatuan, eta tropela esprintean iritsi zen. Hain zuen, honakoa adierazi zigun Ana Usabiaga Lointek taldekoak lasterketaren amaieran: "Gure helburua zen bai nik

eta bai Eneritz Iturriagaetxeberriak ere maillotak mantentzea. Izan ere, gure nahia Espainiako Kopa irabaztea da. Ihesaldian ez bagina sartzen, esprintean saiatu behar ginen, eta hala izan da". Biek ala biek lortu zuten helburua. Usabiagak Euskal Torneoko maillota ere jantzi zuen.

## Kadeteetan esprintak erabaki

Kadeteen lasterketan ihesaldi ugari izan zen; laburragoak, tropelak azkar harrapatzen zituen-eta ihesean irtendakoak. Hala, taldean iritsi ziren helmugara eta esprintean jokatu zen dena. Mireia Orengo izan zen azkarrena.



## EMAKUMEZKOEN SORALUCE SARIA KADETEAK

1. Mireia Orengo
2. Elisabet Escursell
3. Eider Unanue

## GAZTEAK

1. Alicia Gonzalez
2. Ziortza Isasi
3. Lourdes Oiarbide

## ELITE

1. Joanne Hogan
2. Ana Ramirez
3. Leire Olabarria



Ana Ramirez, Joanne Hogan eta Leire Olabarria podiumean. | JOSETXO ARANTZABAL



Joanne Hogan Bizkaia-Durango taldeko txirrindularia helmugara iristen. | J.A.



JOANNE HOGAN IRABAZLEA

"Talde lan oso ona egin dugu; amaieran, nik jo dut eraso eta irabazi"

Joanne Hogan australiarra izan zen elite mailako kategorian helmugara iristen lehena eta pozik zen amaieran.

## Zorionak.

Eskerrik asko. Oso pozik gaude garaipenarekin; talde lan ona egin dugu. Izan ere, zantzaz gabe talde lasterketa izan da gaurkoa eta nire taldeak, Bizkaia-Durango, benetan lan ona egin du. Uneoro saiatu gara erasotzen eta ordezkari bat izaten ihesaldi guztietan. Beraz, pozik gaude emaitzarekin.

## Eta zuk zeuk hasieratik diozu gogor?

Lointek eta gure taldearen artean izan da lehia. Amaieran, gu izan gara indartsuago. Nik eraso jo dut eta bakarrik sartu naiz helmugara.

## Australiarra zara, baina hemen korritzen duzu?

Nire lehen denboraldia da Bizkaia-Durango taldeaz, baina bi urte daramatzat European korritzen. Aurreko astean Emakumeen Bira jokatu genuen eta 11. bukatu nuen. Espero dut eginiko lanak fruituak ematea eta irailean jokatu den Munduko Txapelketan Australiako taldeaz izatea.

## FUTBOLA

## Antzuolak lortu zuen garaipena Barkeroren omenezkoan

Zapatuan Xabier Barkeroren, istripuan hildako futbol-jokalari oiharen, omenezko futbol partidua jokatu zuten Antzuolan, Eztalan. Haren taldekideek urtero egiten dioten omenaldia da. Aurtengoan, Antzuolako eta Urolako jokalariek beterranoek neurtu zituzten indarrak eta etxeok izan ziren nagusi: 2 eta 1.



JOSETXO ARANTZABAL



Corpuseko eskubaloia txapelketan parte hartu zuten jokalariek eta entrenatzaileak sariak jaso ondoren. | MIREIA BIKUÑA

## ESKUBALOIA

## Nafarroako selekzioendako izan zen txapelketa

Corpuseko txapelketan, mutilek Errioxa menderatu zuten, eta neskek, berriz, Gipuzkoa

M.B. | OÑATI

Aloña Mendiko eskubaloia sailak antolatzen duen Corpuseko eskubaloia txapelketan nafarrak izan ziren onenak. Bi finalak irabazi zituzten: mutilek 40-34 menderatu zuten Errioxako selekzioa, eta neskek 11-9 Gipuzkoakoa. Bi taldeetako kapitainek txapeldunaren saria jaso zuten Gipuzkoako Federazioko presidenterekin Jose Mari Iztuetaren eskutik.

### Gol festa mutilen finalean

Mutilen finala oso parekatua izan zen. Gol askoko finala izan zen. Hori horrela, erasoan defentsan baino indartsuago ibili ziren bi taldeak. Nafarroak izan zuen abantaila minutu askotan, baina gehienez hiru edo lau golekoa. Errioxarrek hainbat berdinketa lortu zituzten, baina minutu erabakigarrietan, nafarrek jokatu

zuten hobeto. Defentsa indartu zuten eta sei goleko abantaila lortu zuten.

### Nesken finala, eskasa

Mutilen finalean ikusitako gol festaren ondoren, nesken finala oso bestelakoa izan zen. 15. minutuan 1-1 erakusten zuen markagailuak. Bi taldeei kosta egiten zitzaizkien golak egitea.

Mikel Mantxola eta Iñaki Cantero oñatiarrek zuzentzen duten Gipuzkoako selekzioak lau penalti hutsegini zituen lehen ordu laurdenean. Era berean, nafarrak ez ziren oso fin ibili erasoan. Poliki-poliki erritmoa ipini zioten partiduari, eta erasoan jokaldi onak egin zituzten. Gol gutxiko finala izan arren, parekatua izan zela esan beharra dago, azken minutuetan erabakitakoa.

## DATUA

# 144

JOKALARI

Horiek dira Aloñak antolatutako txapelketan parte hartu zutenak. Errioxa, Nafarroa, Bizkaia eta Gipuzkoakoa.

### Aloñako neskei omenaldia

Emakumeen finala hasi aurretik, omenaldia jaso zuten Aloñako infantil mailako neskek. Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketak irabazi dituzte. Harmailetako zaleek txalo zaparradarekin hartu zituzten eta Nafarroako eta Gipuzkoako jokalariek pasilloa egin zieten.

Antolatzaileak gustura zeuden txapelketarekin. "Errioxa, Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroako 144 neska-mutiko etorri dira. Guztira, zortzi selekzio. Maila ona erakutsi dute. Eskubaloia erorkizuna euren eskuetan dago", esan ziguten antolatzaileek.



Errioxako jokalaria bat Gipuzkoaren defentsaren aurrean. | JOSETXO ARANTZABAL


## TXIRRINDULARITZA

## Iban Velasco: "Gaur, astelehena, hasiko naiz entrenatzen"

Suitzako Itzulian erori eta lepaiztaian kolpe gogorra jaso ondoren, gaur, hilak 18, hasiko da berriro entrenatzen Iban Velasco. "Lau egun gelditu egon ondoren, hobeto nago. Orain berriro lanean hasiko naiz", esan digu.

Min handiarekin egon dela ere esan digu arrasatearrak: "Iazko Tourrean lepaiztaia apurtu eta plaka bat ipini zidaten. Suitzara leku berean hartu nuen min. Minduta egon naiz, baina orain ondo nago".

Bizikleta gainean jarriko da gaur, astelehena, Espainiako Itzulirako prestakuntzarekin hasteko. "Oraingoz hori da hurrengo helburua: Espainiako Itzulira ondo heltzea", esan digu Iban Velascok.



IGERIKETA

MIREIA BIKUÑA

## Harrobiko igerilarien lana ikusgai

Aloña Mendi igeriketa sailak antolatzen duen Txantxiku Sariak 26. ekitaldia bete zuen zapatuan. Hamar taldetako igerilariek parte hartu zuten benjamin eta alebin mailetan, nork bere modalitatean. Guztira, 350 bat neska-mutiko lehiatu ziren, tartean Aloñako 50 ordezkari. Amaieran, sari banaketa ekitaldia egin zuten.



ARTE MARTZIALAK

JOSETXO ARANTZABAL

## Arte martzialak ezagutzeko eguna

Aikidoku taldeak antolatuta arte martzialen eguna ospatu zuten zapatuan, Arrasateko Uarkapen. 30 bat ume eta heldu egon ziren Jose Manuel Matas, Julio Gallego eta Rafa Carrieten azalpenak entzuten. Hurrenez hurren, aikidoaz, judoaz eta kenpoaz egin zuten berba. Hainbat tatami ipini zituzten pilotalekuan, ariketak egiteko.

## FUTBOLA

Maitane Roa | Mondrako jokalaria

# "Gipuzkoako Txapelketa irabazi genuenean konturatu ginen zer egiteko gauza ginen"

- ▶ Mondrako aurrelaria Bigarren Mailako pitxitxi izan da, 22 gol eginda
- ▶ Futbola uzteko erabakia hartu du, baina posible da Realaren eskaintza jasotzea

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Maitane Roak (Arrasate, 1986) futbola uzteko erabakia hartu du (nahiz eta oporren ostean gauzak beste modu batera ikusten diren). Hamaika urte egin ditu elastiko zuri-morea janzten, eta nekatu egin da, futboleaz jokatzeari nekatu. Deigarria da 26 urte egin behar dituen jokalaria, kategorian *pitxitxi* izan berri (22 gol), futbola utzi nahi izatea. Halakoetan igartzen da kirol honetan gizonen eta emakumezkoen artean ze alde dagoen, gizonen izandako talde handiagoetako hainbat eskaintza izango zituelako. Dena dela, baliteke Realak fitxatu nahi izatea.

**Bigarren mailara igo eta Mondrak lan oso txukuna egin du; espero zenuten?**

Ez genekien kategorian berri zelan moldatuko ginen, eta egia esan, ilusio handia geneukalako -edo oso ondo hasi ginen. Lehenengo partiduetan puntu garrantzitsuak batu genituen, baina gero urtea luzea egin zaigu. Ez pentsa horren lasai ibili garenik, momentu batean larritu ere egin ginen, hiru taldek galtzen zutelako kategorian, eta gu behera etorrita geundelako. Baina mailari eusteko beharrezkoak ziren puntuak batu eta bizpahiru jardunaldien faltan eginda genituen etxerako lanak.

**Beste kategorian batzuekin alderatuta, non egon da alde?**

Partidu guztietan 90 minutuak lehia gogorrean ibili behar izan dugula, eta hori oso nekagarria da. Iaz partiduak erraz irabazten genituen, gol asko sartuta, eta berdegunean lasaia jokatzeko aukera ematen zuen horrek. Aurten ez, partidu guztiak 1-0, 2-1... halako emaitzekin irabazi ala galdu ditugu, alde txikiak. 90 minutuz topera ibiltzea igarri egiten da.

**Datorren denboraldira begira ilusioz ote zaudeten galdetu behar nizan, eta hara, futbola utzi behar duzula jakin dut.**

[Barre] Bai, konturatu naiz dagoeneko ez dudala duela hiruzpalau urteko ilusioa, eta uztea erabaki dut. Urtea luzea egin zait eta futbolaz aparte beste gauza batzuk egin nahi ditut. Ikasle nintzenean oso gustura jokatzeko futboleaz, baina lanean nabilenetik gehiago kostatzen zait.

**Hogeita bost urte, Bigarren mailako *pitxitxi*, eta futbola uzteko asmoaz. Ez duzu beste talderen baten eskaintzarik izan?**

Beno, Realarekin hainbat entrenamendu saio egin ditut, baina

ez didate ezer esan. Dena dela, Realak ni fitxatzeko asmoa izango balu ere oso ondo pentsatu beharko nuke. Esperientzia polita izan daiteke, baina...

**Realeko emakumezkoak ez daude profesionaltasun mailatik gertuago?**

Baliabideei dagokienean seguru baietz, Zubietako entrenatzaileak, masajistak... eskura dituztelako. Baina kategorian bereko gainontzeko taldeetan ez dut uste halaxe ibiltzen direnik.

**Atzera begiratu, zein da futboleaz izandako momentu gogoangarria?**

Duela bi urte Gipuzkoako Txapelketa irabazi genuen finala, eta Sorluzeri irabazi genion. Oso polita izan zen, eta orduan konturatu ginen taldea zer egiteko gauza zen. Igoera fasean galdu egin genuen Bizkaikoaren kontra, eta hurrengo denboraldian mailaz igo ginen. Horrekin batera, baina, talde barruko giroaz gozatu izan dut nik asko. Garaipen bat lortu eta ospatzeko taldekin afaltzera joatea... Talde barruko giro onari garrantzia handia eman izan diot beti.

**Eta txarrena?**

Duela lau urte izan zen, ez genuen liga hasiera ona izan, eta entrenatzaileak taldea utzi zuten. Akaso hura izan zen momentu delikatuena.

**Denboraldian zehar golak zenbatzen dituen jokari horietakoa zara?**

Ez bereziki. Aurten badakit 22 gol egin ditudala eta *pitxitxi* izan naizela, baina aurreko urteetan... Urteren baten badakit 40 golen bueltan ibili naizela.

**Zenbateko horiekin hutsune handia utziko duzu taldean.**

Ez pentsa, nik gol asko egin ditut aurten, baina beste taldekide batzuek ere gol mordoa egin dituzte.

**Bestalde, taldea 25. urteurrean ospatzen dabil. Zer-nolako balorazioa egiten duzue?**

Nik uste urte polita izan dela, hainbat ekintza egin ditugu eta erakutsi dugu 25 urte Arrasaten emakumezkoen futbola bizirik egon dela, eta dagoela.

**Oraindik ez duzu, baina, Mondraren azken partidua jokatu. Lagun**

**"Erakutsi dugu emakumezkoen futbola bizirik egon dela 25 urtez"**



Maitane Roa, Mondraren elastikoaz; ikusteko dago futbola utzi edo Realean jokatuko duen. | UBANE MADERA

**nartekoa izango duzue ekainaren 30ean.**

Bai, ondo pasatzeko eguna izango da. Goizean (10:00) lagunarteko partidua jokatuko dugu oraingo eta lehengo jokariok, eta ondoren bazkaria izango dugu [Egun horretako ekintzetan parte hartu nahi duenak dei dezala 688 645 863 telefono zenbakira. Ekainak 20 da azken eguna].

**"Nik futbola utzita ere taldekideek berdin egingo dituzte golak"**



Maitane Roa, Mojategin, eraso jokaldian. | JULIO CALLEJA

# Beristain: "Psikomotrizitatea indarra hartzen ari den tresna da"

Manex Beristain adituak psikomotrizitate saioen dinamikak azaldu ditu

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

"Haurrak psikomotrizitate gelatik gustura ateratzen direla ez dago zalantzarik. Gainera azken urteetan psikomotrizitatea ezaguna egin bada, hori haurrei esker izan da", dio Manex Beristain psikomotrizistak *Guraso.com* atarirako idatzitako azken artikuluan.

## Haurra errespetatu

Psikomotrizitatea indarra hartzen ari den tresna eder eta egoki bat dela uste du Beristainek, eta azaltzen digu haurrarekiko errespetua dela psikomotrizitatearen oinarria; "Errespetua, maitasuna eta konfiantza", adierazi du. Haurraren potentzialtasuna, eta aldaketa

gaitasuna hartzen dira kontuan psikomotrizitatean; "Haurrarekiko gure itxaropen eta desioak albo batera uztea ekarriko luke", dio adituak. Oso garrantzitsua da Beristainen esanetan haur bakoitzaren garapenaren erritmoak errespetatzea, eta hori konfiantzazko eta ziurtasun afektibozko giro bat eskainiz lortzen da. Horretan ahalegintzen dira psikomotrizitate saioetan.

## Gorputza

"Haurrak bere bizitza jolasten du psikomotrizitate gelan. Bertan, bere beldur, desio, segurtasun eta fantasiak jolasaren bidez landu nahiz garatzen ditu", azaltzen du

Beristainek. Gorputza da pertsonaren komunikazio tresna nagusia eta psikomotrizitateak jolasa bultzatzen du modu naturalean eta askean. Hala, mugimendua eta emozioaren arteko harremana bultzatzen du, eta ikusi emozio ezberdinen aurrean haurrak hartzen duen jarrera. "Haurraren potentzialtasunean sinesten dugu, bere gaitasunak hartzen ditugu, eta zailtasunak gainditzeko erabili. Adibidez, mugitua den haur baten kasuan, haurraren mugimendua bera gaitasun bezala ikusiko genuke eta gaitasun hori erabili lasaitasunerako bidea egiteko". Artikulu osorik dago irakurgai *Guraso.com* atarian.



Psikomotrizitatea gelan. | AMARA BERRI ESKOLA



Ikasle bat piano eskola jasotzen. | PARA SCUBA SAILOR

## Irizpide argiak behar ditugu haurren eskolaz kanpoko ekintzak aukeratzeko

Adina, izaera eta motibazioa kontuan hartzeko gomendioa egiten dute, behin eta berriz, adituek

L.Z. | ARRASATE

Plaza mugatuak direla-eta sarri ikasturtea amaitu barik dagoen honetan aukeratu behar izaten ditugu hurrengo ikasturteko eskolaz kanpoko ekintzak seme-alabendako. Egun, haurren denbora librea betetzeko irtenbiderik ez zaigu faltako, izan ere, eskaintza oso zabala da. Eta eskaintza honen aurrean komeni da gurasoek irizpide argiak edukitzea.

## Helburua finkatu

Gurasoek jakin behar dugu seme-alabei zein heziketa eredu eman nahi diegun. Hala, eredu horrekin bat datozen heinean aukeratu ditugu eskolaz kanpoko jarduerak; haurrak zerbait ikasiko du, balore jakin batzuk transmitituko dizkiote... Zer lortu nahi dugun argi izan behar dugu. Bestalde, jakin behar dugu ez dela egokiena aste barruko arratsalde guz-

tietan ekintzak izatea. Ahal den neurrian jolas librerako eta atsedenerako tarreak ere utzi behar dizkiegu haurrei.

## Haurraren motibazioa

Erabakia hartzeko komeni da haurraren adina, izaera eta motibazio kontuan hartzea baita erabakia haurrarekin batera hartzea ere, izan ere, ekintza batera behartuta doan haurrak ez dio ekintza horri bere etekina aterako.

Ala eta guztiz ere, gurasoek haurrak egin nahi ez duen ekintza bat aukeratu badute haurra animatu egin beharko dute, eta ekintzaren arduradunarekin harremanetan egon haurraren jarrerari jarraipena egiteko. Eta ikusten badugu azkenean jarduerari hori bertan behera utzi beharra dagoela, ez dugu dramarik egin behar.

## Jantoki zerbitzua garestiago irailetik aurrera

L.Z. | ARRASATE

Eusko Jaurlaritzak 0,60 zentimo garestitu du eskola jantokietako otordu bakoitza. Prezio igoera irailetik aurrera aplikatuko dute. Hala, ohikoa den erabiltzaile batek 4,60 euro ordainduko du otordu bakoitza, eta erabiltzaile ez ohikoei 5,20 euro.

## Tupperrekin eskolara

Egoera ekonomikoak bultzatuta albiste izan da egunotan Kataluniako Gobernuak onartutako eskaera. Ikasleen gurasoen elkarten federazioak eskatuta Generalitateak eskola publikoetan tupperak erabiltzea baimendu du krisiak jota daude familia askok ezin dutelako jantoki zerbitzua ordaindu. Ikasleen osasuna bermatzeko protokoloa ere adostu dute, eta eskolek baldintza batzuk bete beharko dituzte; hozkailuak eta mikrouhin labeak jarri beharko dituzte baita zaintzaileak ere. Monitore bati ordaindu edo gurasoen elkarterko norbait begirale lanak egitea proposatzen dute gastua gehiegi igo ez dadin. Azken erabakia zentro bakoitzeko Eskola Kontseiluak du.

Hala, orain arte Kataluniako ikastetxe pribatu batzuetan uzten zuten aukera datoren ikasturteetik aurrera eskola publikoetan ere aplikatu ahal izango da.

## Goiena telebistaren tertulia saioan hezkuntza hizpide

Eguaztenean, hilak 20, 2012-2013 ikasturtea izango dute aztergai Goiena telebistako Tertulia saioan. Hezkuntza Saileko arduradunek behin eta berriz esan dute EAEn ez direla Madrilgo Gobernuak ezarri nahi dituen murrizketak aplikatuko. Baina horrek esan nahi du ez dela murrizketarik egongo? Erantzuna eguaztenean, 22:30ean.

## Gipuzkoako lehen haur-etxea Osintxun zabalduko dute

Olatz Azkondok formazioa jaso du, eta bere Osintxuko etxea egokitu du irailetik aurrera 0-3 urteko haurrak hartzeko. Momentuz haur batekin zabalduko du zerbitzua. Azaldu duenez haurrek 4-8 ordu bitartean egon daitezke habian, eta gurasoen beharretara egokitzen dute ordutegia. Gipuzkoan zabalduko den lehen habia da.

## Arrasaten amatasunari zuzendutako zerbitzua antolatzen ari dira

Ekin emakume elkartearen asmoa da ama direnen eta izango direnen arteko lan-taldea sortzea informazioa trukatzeke. "Bilgune baten moduan antolatuko dugu", esan du taldeko Tamara Perezek. Interesatuak 943 79 83 70 zenbakira deitu behar dute edo ekin.emakumeak@telefonica.net postara idatzi.



# KULTURA

## Oholez eta arrapalez gain, musika eskaintza zabala Laino skateparkean

- ▶ Ibarreko kultura eskaintzaren zati garrantzitsu bilakatu da
- ▶ Estilo eta formatu askotariko taldeak ekartzen ahalegintzen dira

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Egubakoitz gaua, 23:00ak pasata eta Bergarako Laino skateparka, beste behin ere beteta. Oraingo honetan blues doinuek erakarri zuten jendea. Hain justu ere, ZZ Blues Band eta Transit Blues taldeen doinuek giro berezi eta ederra ipini zuten.

Argi dago, skateparkea baino askoz gehiago da Bergarako Laino; herriko eta ibarreko kultura eskaintzan zati garrantzitsua betetzen du. Bi urte pasa dira ateak ireki zituela eta asko eta askorendako asteburuko ezinbesteko hitzordu bilakatu da skateparketik bueltaxoa egitea. "Denetarik bezeroak ditugu eta hori da gehien gustatzen zaiguna. Neska-mutiko gazteak, gazte helduagoak, txikiteroak... Horrek xarma berezia ematen dio eta oso pozik gaude. Gainera, bezero gehienak oso leialak dira, egun bakoitzean edo ordu bakoitzean badakizu nor topatuko duzun", kontatu digu Hodei Elepuru Lainoko Ugazabak.

### Helburuak beteta

Alex Molanok eta Hodei Elepuru argi zeukaten hasiera-hasierratik erreferente izango zen skateparka zabaldu nahi zutela, baina kultura ekintzei protagonismoa emanaz. "Oso pozik gaude lortu dugunarekin. Skatearen alorrean lan ona egin dugu, hainbat txapelketa egin dira eta skater oso onak pasatu dira hemendik. Horrez gain, eta kultura alorrean, lan polita egiten ari garela uste dut, batez ere azken urtean. Juanjo Benitez ari da kontzertuak lotzen laguntzen eta ia astebururo daukagu zerbait".



Bigarren urteurrenoko txapelketa jasotako irudia. | LAINO.INFO



Transit Blues taldea izan zen taula gainera igotzen lehena. | J.A.

### Denetarik estiloak

Egubakoitzean blues doinuek izan ziren, baina egia da edozein estilotako musika topatu dezakezula Lainon. Horixe da jabeen asmoa, ahalik eta estilo gehien ukitzea: "Hasieran rock kontzertuak ziren gehienak, guk gehien ezagutzen genuen mundua hori zelako, baina apurka-apurka zabaltzen joan gara eta uste dut oso erabaki ona izan dela. Denetarik izan dugu, dijeridoo kontzertua, bluesa, rocka, dj-ak... Uste dut jendeari ere gustatzen

zaiola nahasketa hori". Eta musikariei ere bai, izan ere Elepuruaren hitzetan gero eta gehiago dira Lainon jo nahi duten musika taldeak: "Lehen musika talde bila ibiltzen ginen, baina denetarik taldeak onartzen ditugunez, gero eta jende gehiagok deitzen digu eta hori ere oso ona da guretako".

Dena dela, musika eta kontzertuak ez dira skateparkearen eskaintza bakarrak, antzerki emanaldiak ere egin izan dituzte, eta baita erakusketak ere:

argazki erakusketak, tatuajeak... Hilabete honetan, esaterako, Azkater Peloxen marrazkien erakusketak dago ikusgai.

Fiachras, Quadrophenicos, Lolas Club, Los Galerna, Mikel Uraken, Bikustik, Klakson... Urritik hona 17 taldetik gora igo dira Laino skateparkeko oholtza gainera eta zerrendak izenak gehitzen jarraituko du aurrerantzean. Argi dago beraz, oholtzak eta arrapalak baino zerbait gehiago bilakatu dela Bergarako skateparka.



HODEI ELEXPURU  
SKATEPARKEKO JABEA

**"Oso profil askotariko bezeroak ditugu baina, gehienak oso leialak"**

Bi urte pasa eta gero Hodei Elepuru pozik dago Laino Skatepark proiektuak eman duenaz.

**Ze balorazio egiten duzue?**

Balorazio ezin hobea. Oso pozik gaude. Gaur egun bizi dugun egoerarekin bizirik irautea ere ez da gutxi, eta gure kasuan nahiko ondo doaz gauzak. Bestetik, jarritako helburuak bete ditugula uste dut, skateparkeari dagokionez bai, eta kultura eskaintzari dagokionez ere bai.

**Nola deskribatuko zenuke Lainoko bezeroa?**

Denetarik dago eta hori da gehien gustatzen zaiguna. Skateparkean ibiltzera datorren jendea dago, baina horiez gain txikiteroak ere etortzen dira, familiak ere bai afari pasada egitera, eta kontzertuek ere jende asko erakartzen dute. Oso profil ezberdinetako bezeroak ditugu, baina gehienak oso leialak dira, eta hori ere garrantzitsua da.

**Skatepark moduan ere nahi-ko izen handia hartu duzue?**

Bai. Ezingara kexatu. Hainbat txapelketa egin ditugu eta skater oso onak pasa dira hemendik. Orain apur bat geldo dago skatearen kontua, eta erabaki dugu uztailean eta abuztuan doan izatea skateparkea. Udan eguraldi ona dagoenez jende gutxiago etortzen da, beraz, ia doan jarrita jendea etortzera animatzen den.

**Bi urte hauetan zein izan da zuretzat egun, gau edo txapelketa bereziena?**

Zalantza barik bigarren urteurrena ospatu genuen eguna. Itzela izan zen. Skate txapelketa oso ondo egon zen eta kontzertuak ere bai. Horrelako egunetan harro sentitzen zara, lokala jendez beteta eta horren pozik ikusteak sekulako indarra ematen dizu. Oso egun berezia izan zen hura.



Hodei Elepuru, Juanjo Benitez eta David Acosta. | JOSETXO ARANTZABAL



Dj festak ere egin izan dituzte Lainon. | J.A.

Musikalak taldeko kideak, Hertzainaken *Aitormena* abesten. | JOSETXO ARANTZABAL

## Amaia antzokia bete egin zen Arrasate Musikalen ikasturte amaierako kontzerturako

100 bat ikasle igo ziren taula gainera eta musika, kantua eta dantza tartekatu zituzten

USOA AGIRRE | ARRASATE

Urduri sumatu genituen kontzertua hasi aurretik Arrasate Musikaleko ikasle gaztetxoak. Ez zen gutxiagorako. Izan ere, ikasleen senitarteko eta lagunez bete egin zen Amaia antzokia, eta urte

guztian ikasitakoa jende horren guztiaren aurrean erakusteko unea iritsi zen. Guztira, 100 bat ikasle igo ziren taula gainera eta musikaz gain, dantza ere ikusi ahal izan zuten bertaratutakoek. Tailer musikaleko 5 eta 7 urte

bitarteko gaztetxoak izan ziren aurrenekoak. Musikaz lagunduta, europar kutsuko hiru dantza eskaini zituzten.

Ondoren, Musikalak taldeak Hertzainak taldearen *Aitormena* abestia interpretatu zuen, pianoz,

gitarraz eta perkusioz lagunduta. Biolin talde txikia igo zen taula gainera ondoren. Lau abesti herrikoi eskaini zituzten biolinarekin: *Un elefante*, *Reel Sheila Nelson*, *Oh when the saints* eta *Rock rock bubly jock*.

Musikarekin bukatzeko, Junior's taldean musika tresna asko ikusi eta entzun ahal izan genituen: akordeoiak, biolinak, oboea, flautak, perkusioa, tronboia, tronpa, fagota, pianoa, gitarra elektrikoa eta ahotsa. Horiek guztiak bat eginda Arrasateko Deskontrol taldearen *Duintasunez* abestia eskaini zuten.

Amaitzeko, ballet taldeak zazpi dantza ezberdin egin zituen.

### 600 matrikula

Ikasturte honen balorazio positiboa egin digute Arrasate Musikaleko ordezkariak. 600 bat matrikula izan dituzte bukatu berri den ikasturte honetan eta 90 bat ekintza antolatatu dituzte urte guztian. Hurrengo kurtsorako matrikulatzeko epea egubakoitzean bukatu zen eta datorren ikasturtean ere ikasle asko izango dituztelako pozik daude.

Egubakoitzeko kontzertua izan zen ikasturte amaierako kontzertu handia, baina oraindik datozen egunetarako beste zenbait ekintza ere badituzte musika eskolan: sokazko ikasleen kontzertua 18an, 18:30ean; klarinete kontzertua 19an, 18:30ean; tronboi, bonbardino eta tuba kontzertua 19an, 18:00etan; ikasleen kontzertua 20an, 18:30ean; eta kantuko kontzertua 22an, 17:30ean.



**MANEX BAQUERO**  
ARRASATE

"Duela bi urte hasi nintzen Arrasate Musikalen. Perkusioa jotzen ikasi dut orain arte eta bateria asko gustatzen zait. Gustatzen zait jendea erakustea zer ikasi dudana eta kontzertuan ez naiz urduri jartzen".



**EKAITZ ZUGASTI**  
ESKORIATZA

"Duela bi urtetik ikasten dut Arrasaten musika. Hurrengo urtean bigarren pisura joango naiz eta gitarra elektrikoa jotzen ikasi nahi dut. Orain arte danborra jotzen aritu naiz. Kontzertuan ez naiz jartzen urduri".



**BEÑAT BARRUTIA**  
ARRASATE

"Aspalditik nabil musikan eta pianoa, saxofoia eta danborra jotzen ditut; asko gustatzen zait musika. Kontzertuak asko gustatzen zaizkit, erakustea ikasi dudana, eta horretarako asko entseatu dut".



**JULEN LETE**  
ARRASATE

"Fagota ikasten nabil duela bost urte. Dagoeneko asko ikasi dut. Zergatik aukeratu nuen? Ez zuen jende askok hartu behar eta nik hartzea erabaki nuen. Gustatzen zait kontzertuetan jotzea jendearen aurrean".



**ANE ARRONDO**  
ARRASATE

"Taldeen akordeoia jotzen dut, baina horrez gain dultzaina eta bateria ere jotzen ditut. Zortzi bat urte noa Arrasate Musikalen ikasten. Musika zaletasun bat baino gehiago da niretzat eta nahiko nuke musikatik bizitzea".

## Herria morez jantzita, eskubide zibil eta politikoen alde



Herri-bazkaria egin zuten eskolako patioan. | USOA AGIRRE

USOA AGIRRE | ANTZUOLA

Zapatuan egin zuten lehen aldiz *Ez Dot Moztuko Bizarra Eguna*, izen bera duen taldeak antolatuta. Egunaren helburua zen ekimena herriari zabaltzea eta horretarako ekintza ezberdinak antolatu zituzten: umeendako jolasak izan ziren goizean, triki-potea eguerdian, herri-bazkaria ondoren, bertsolariak eta jokoak bazkalostean eta, bukatzeko, kontzertuak gauean.

Herri-bazkarirako 130 lagun inguru elkartu zen, ia gehienak taldeko kamiseta morea soinean zutela. Taldearen helburuetako bat da eskubide zibil eta politikoen alde egiteko kaleko mugimendua sortzea, eta horretarako parte-hartze naturala bultzatu eta herritarrak elkar ezagutzeko ekintzak antolatzea. Zapatuko jaiak horretan lagundu zuela esan digute antolatzaileek.



USOA AGIRRE

## Abesti ezagunak kontzertuan

Bergarako Orkestra Sinfonikoak kontzertua eskaini zuen zapatuan Bergarako Santa Marinan. Elizak eskaintzen duen akustika onaz baliatuz, sei pieza eskaini zituen orkestrak bertaratutako gozamenarako. Abesti ezagunenak izan ziren Beethovenen 5. sinfoniako lehenengo mugimendua, *Forrest Gump Suite* eta Abba taldearen abestiez osatutako *Abbaphonic* pieza.

# 12 urte eta gero gaztetxea oso bizirik dagoela erakutsi zuten zapatuan

- ▶ Bi aste iraun duten ospakizunak Gaztetxe Egunarekin amaitu zituzten
- ▶ Eguerdian bertsoek berotu zuten giroa eta gauean musika eta bertsoiek

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Mahaiaren bueltan entsalada, gisatua eta mazedonia jaten talde polita elkartu zen zapatuan Bergarako gaztetxean. Ospakizun potoloa zuten: Gaztetxe Eguna. Hain justu gaztetxearen hamabigarren urteurreneko ospakizunei amaiera ipiniko zien eguna.

Bazkariaren aurretik poteoa izan zuten, baina poteo berezia: pati-poteoa. Uste baino jende gutxiago elkartu zen arren, gurpil gainean egin zuten bazkaldu aurreko tabernaz tabernako buelta.

Bazkaltzen hasi orduko festa gogoia eta umorea nabarmenak ziren, baina bazkalostean barre

algara gehiago etorri ziren hamai-ka bertuteko bertsolarien eskutik. Bazkalostean luze jo zuen, baina oraindik asko geratzen zen ospatzeko, gaua luzea izan zen. Bergarako musikariek bertso gaua egin zuten, eta ondoren La Familia Iskariote taldeak kontzertua eskaini zuen. Gaua boro-

biltzeko Bergarako gaztetxean dagoeneko ondo ezagutzen duten Dj Elvis Cainoren emanaldia izan zuten.

Hamabigarren urteurreneko ospakizunak beraz, asmoa zen moduan, egun osoko festa borobilarekin amaitu zituzten Bergarako gaztetxean. Eguna goizean

goiz hasi zuten eta amaitu ere halaxe egin zen, goizaldean, domeka goizaldean.

**Parranda baino askoz gehiago** Urteurreneko ospakizunak parranda on batekin amaitu zituzten arren, Bergarako gaztetxean bi astez jardun dute denetarikoko ekin-tzak egiten. Erakutsi nahi izan dute "gaztetxea festa eta parranda baino askoz gehiago" dela: "Denetarikoko ekin-tzak egin ditugu: liburu aurkezpenak, hitzaldiak, mahai inguruak. Oso aberasgarriak izan dira bi asteak", azaldu zuten Maialen Maraurik.

Zentzu horretan Bergarako gaztetxea osasuntsu dagoela izan du Ekaitz Aranberrik. "Sasoi onean dago, oso bizirik. Tailerrak, ikastaroak... ekin-tza asko antolatzen dira. Gure helburua orain bizitasun hori mantentzea da".



Talde polita elkartu zen zapatuan gaztetxean bertso-bazkariak gozatzeko. | ARRITXU BARRUSO



Taldeko argazkia ateratzeko herriko plazan elkartu ziren. | I.A.

## Gaztetxeko gazteak, herriko umeekin

Elgetako gaztetxeak Umeen Eguna berreskuratu nahi izan du aurten, beraz, gaztetxeko gazteek herriko txikitxoekin pasatu zuten zapatua. Eguraldi ederra egiten zuela-eta Asentziara joan ziren eta bertan denetarikoko jolasak egin zituzten. Eguerdi partean lagunarteko bazkaria egin zuten eta arratsaldean, Umeen Egunak izandako arrakastak erakusten duen taldeko argazkia atera zuten udaletxe parean, "Pausoz pauso bidea eginez" zioen pankartarekin.



USOA AGIRRE

## Gazteak euskararen alde

Ttak Arrasaten euskarari bultzada emateko gazteek osatuta dagoen taldea da eta zapatuan izan zen ezagutzera emateko eguna. Herri-bazkaria eta koadrilen arteko olinpiadak egin zituzten Biterin.

## Txatxilipurdi Araba Euskaraz

Atzo, domeka, Arabako ikastolen aldeko jaia egin zuten Bastidan eta, ibarreko beste zenbait kide bezala, bertan izan ziren Txatxilipurdi elkarteak lanean. Umeendako jolasak eskaini zituzten 3. gunean.



OIHANA ELORTZA

# TOKIKOM

GOIENA TELEBISTA | MAGAZINEA | TOKIKOM JARDUNALDIAK  
EKAINAK 18, 20:16 | TXOMIN MADINA ETA MIREN ARREGIK AURKEZTUA



# POLTSIKOAN

Goiena.net prest sakeleko telefonoan!


- Albisteak
- Blogak
- Gaiak
- Gida komertziala
- Iritziak
- Irratia
- Parte hartzeko atala
- Telebista

## Deskargatu!

Beheko QR kodea irakurrita, aplikazioa jaitsi daiteke Google play edo App Store dendetan.



[m.goiena.net](http://m.goiena.net)




**PARTE HARTU** Parte hartu zorion agurrak, eskelak eta ezkon-zorionak bidaltzen.



**HERRIAK** Albisteak, herrika eta gaika antolatuta. Etxeko ordenagailuan bezala



**AGENDA** Edozein unetan dataren, herriaren edo ekintza motaren arabera bilaketa.



**GIDA KOMERTZIALA** Ukitu batekin nahi dugunari telefonoz deitzeko aukera.



BITTER  
HONEY

GURE MUSIKA TALDEAK

Bitter Honey taldearen *Symbolized* diskoaren argazki promozionala. | XABIER REZABAL

# "Abestiak sortzeko orduan ez dugu mugarik ezartzen, hori gure filosofiaren aurka doa"

- ▶ Lorentzo Record estudioan grabatu dute Aitor Ariñoren gidaritzapean
- ▶ 60ko hamarkada bukaerako eta 70eko hamarkada hasierako soinua dute oinarri

ANDER MONEDERO | ARRASATE

Ekainaren 8an aurkeztu zuen Bitter Honeyk *Symbolized* izeneko lana Arrasateko Iluntz tabernan. Talde arrasatearra abesti berriak zuzenean aurkezteko irrikan dago, eta hurrengo kontzertua ekainaren 29an Eskoriatzan izango da.

**Aurreko diskoarekin alderatuta, zer du berria oraingo lanak?**

Arlo guztietan hobekuntza nabarmenak egin ditugu. Bigarren disko honetan, lehenengoa egiteko aldatu nahi izango genituen gauza guztiak hobetu ditugu. Lehen diskoarekin taldearen nor-tasunaren bilatu genuen; orain, estilo hori garatu egin dugu. Lan helduagoa da *Symbolized*.

**Songs Of Love & Destruction-en soinua The Cult-en hasierakoa du, eta bigarren diskoan, berriz, Led Zeppelin bezalako taldeen estiloko riffak dira nagusi.**

Bi talde horiek guretzako inspi-

razioa dira, baina baita beste talde asko ere. Pozgarria da gure musika entzuterakoan talde horietaz gogoratzea.

**Traveller Song da zuen hit berria, zaleek abesteko moduko abestia. Zertaz hitz egiten du abestiak?**

Guretzat, *Traveler Song* oso abesti berezia da, handia, zabala, ahotsaren melodia eta musika asko landu dugu. Ordu asko eskaini dizkiogu, baina emaitzak merezi izan du. Ispiritu bidaiari eta abenturazale guztiei eskainitako abestia da.

**Ronnie James Dioren omenez Devil**

**Horns abestia egin duzue. Zergatik? Zuen abesteko eran eragina du?**

Dioren abesteko era iraultza izan zen; gainera, rockaren munduan oso pertsonaia maitatua da. 2010ean hil zenean, omenaldi bat egitea pentsatu genuen. Diok Black Sabbath taldean abestu zuen garaian oinarrituta *Devil Horns* (*Deabru adarrak*, hark bilakatu zuen ikono) konposatu genuen, eta hitzak garai hartan idatzi zituen abestietan oinarritzen dira. Abesti iluna da, baina sentimenduz betea.

**Bederatzi abesti, guztiak ere lau minututik gorakoak... Kasualitatea, ala abesti luzeak egitea gustuko duzue?**

Abestiak sortzeko orduan ez ditugu mugak ezartzen, hori gure filosofiaren aurka doa, abestien iraupena kantuek berak zehaztu behar du. Arlo instrumentalaren eta bokalaren arteko oreka ona baldin bada, abesti luze bat motz

## ZERTZELADA



### SYMBOLIZED

**Estiloa:** Hard Rock, Hard Blues.

**Egilea:** Bitter Honey (Arrasate, 2012).

**Argitaletxea:** Autoargitaratua.

**Iraupena:** 48 minutu.

Benetako hard-rocka, klasikoena

**B**itter Honey sortzean Arrasateko eta Bergarako hainbat musikaririk aspaldi amestutako oreka lortu zuten. Taldeak instrumentista borobilak eta hunkidura gehitzen dion abeslari sinesgarria ditu. 'Songs of love & destruction' nabarmentzeko lana izan zen, eta hau are eta borobilagoa da. Hard-rocka lantzen jarraitzen dute bere zentzu klasiko eta aberatsenean (ez gitarraz jositako punk-rocka eginez) eta kantuek gorputz handia dute, detailera erakitakoak dira. The Culten itzala hor dago, baita dinosuario handienena ere; eta zergatik ez, sleazy zein ildo epikoa ere ez daude beraien koordinatetik kanpo. Sona gehiago merezi dute.

### IKER BARANDIARAN

bilaka daiteke... hor dituzu *Free Bird* edo *Stairway To Heaven*. **Bigarren lan honekin taldea musikaliki hazi egin dela uste duzue?** Bai, maila guztietan. **Zergatik *Symbolized* izena? Led Zeppelini omenaldia da?** Egia esan, diseinua bukatuta ikusi arte ez geneukan garbi zein

izango zen izena. Sinbolismoz beteriko diseinua da, hortik *Symbolized* izena. Led Zeppelin taldearen laugarren diskoak, izenik gabekoak, azalean lau ikur ditu, eta, horregatik, *Four Symbols* moduan ezagutzen da... modu batera, omenaldia ere bada.

**Banaketa tradizionalaz aparte, diskoak hedapen digitala du. Zergatik? Ekonomia, publikoarengana heltzeko erraztasuna... Gaur egun tabernetan Spotify bitartez jartzen da musika...**

Bizi garen garaian, Spotify bezalako plataforma digitalek duten hazkundera aprobetxatzea ezinbestekoa da. Gure musika mundu osoaren eskura jartzeko aukera da; formatu fisikoan argitaratzea zerbaitek ia erromantiko bilakatu da... Hala ere, deskarga digitala formatu fisikoak duen xarmarekin ezin da alderatu.

**Diskoa zuek ekoiztu eta kaleratu duzue. Nola dago gaur egungo rock merkatua? Zigiluak topatzea zaila da? Ala banaketa digitalek, gaur egun, diskoetxeek baino aukera zabalagoak eskaintzen dituzte?**

Gaur egun, lehengo rock merkatua desagertu egin da, gelditzen diren diskoetxe handiek talde handiekin lan egiten dute eta gainontzekoak *management* agenzia moduan funtzionatzera pasatu dira. Zigilu bila denbora galtzen ibili beharrean, deskarga digital bidezko hedabide guztietara igotzea erabaki dugu. Internet bidez promozioa egiten ari gara, sare sozialak duten ahalmenaz baliatuz, eta musika aldiakari digitaletan *banner*-ak jarri ditugu. Hala, zigiluek gure berri izateko aukera gehiago dituzte.

**Bi urtean behin lan bat kaleratu duzue. Abestiak egin, grabatu eta zuzenean aurkezteko tarte egokia dela uste duzue?**

Kasualitate hutsa izan da. Ondo legoke erritmo honetan jarraitu ahal izatea!

"Abesti baten iraupena kantak berak zehaztu behar du"







Gama osoa berri dute eramangarrietan. Irudian Mac Book Pro-a | APPLEWEBLOG



Mapak 3Dan aurkeztuko ditu aplikazio berriak. | APPLEWEBLOG

## Erabilpen esperientzia berria iOS6an udazkenetik aurrera

Nobedade berriak aurkeztu ditu Apple-ek WWDC-an, bereziki, sistema eragilearen errendimendua eta aukera berriak aprobetxatzeko

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Urteroko aurkezpen nagusia egin berri du Apple-ek, WWDC delakoa, udazkenera begirako nobedade nagusiekin. Ordenagailuei dagokienez, apustu nagusia Mac Book Pro eramangarrien gama da, diseinuz finagoa eta definizio altuko Retina Display pantailarekin, azken iPad eta iPhone-ek daukatena. Eraman-

garrien gama guztiak eguneratuko dituzte, baita ere.

### App Store berria

Diseinuarekin jarraituta, App Store-eak ere itxura berria izango du eta beheko barra-menu beltz klasikoari ukitu berria eman diote iOS-etako bertsioan, lehen aldiz. Zuzenean parteka daitezke orain loturak sare sozialetan,

loturak kopiatuta. Udazkenean egongo da mundu guztian erabilgarri. Datuak ere eman dituzte: 400 milioi kontu daude App Store-ean eta 30 mila milioi deskarga egon dira aplikazioetan.

Software-arekin jarraituta, nobedade nagusietako bat Power Nap delako eguneraketa da. Aurreantzean ordenagailua itzaltzerakoan eguneratuko dira eta aldi

berean segurtasun kopiak egin Time Machine-ean.

### IOS6, udazkenean

Udazkenean egongo da eskuragarri sistema eragilearen bertsio berri 200 utilitate berrirekin. Siri asistentea hizkuntza gehiagotan etorriko da (gaztelania barne) eta Yelp sarearekin etorriko da integratuta. Facebook-ek ere, Twitterrek izan duen moduan, integrazio osoa izango du sisteman. FaceTime ere aukera berriekin etorriko da eta udazkenetik aurrera 3G sarearekin ere erabili ahalko da. Pasahitzak gordetzeko aplikazio berezi oso praktikoa ere aurkeztu dute Passbook izenekoa. Nobedade asko daude aplikazioetan, esan moduan, 200 aukera berritik gora.

## Sarea, txiki gera daiteke 2016rako egun dagoenetan

J.B. | ARRASATE

Bell konpainiako laborategien arabera, 2016 urterako 45 eta 80 aldiz artean biderka daitezke sarearen kontsumo maila. Urkila lar zabala da aurreikuspena fidagarria izan dadin baina hazkunde txikiaren kasuan ere, lehenengo aldiz, datuen transmisiorako ahalmenaren balizko saturazio baten aurrean geundeko. Elkar konektaturiko zerbitzari eta makina kopuru jakin batek osatzen dute sarea eta loturen arteko banda zabalera mugatua da. Teknologia aurrera egin ahala, trafiko handiagori eutsi diezaioketen protokoloak sortu dira baina ez erabiltzaileen kontsumo mailaren hazkunde itzelaren parera. Erritmoa bizitu da azken urteetan eta aurreikuspenak gaititu.

### Gailuak eta sareak

Arazoa orain gainera zabalgia da sare bera teknologia mota askok erabiltzen baitute: ordenagailuek, sakelakoek ala telebistek, erabilienak aipatzearen. Erabiltzaileek, darabilten gailua erabilia ere, zerbitzua unean eta lekuan behar dute eta sarearen erabilera oso handia da. Operadoreek ere ez dute oraindik sarearen ahalmena handiagotzeko inbertsio handirik egin esandako laborategiak hartarazten duenez.

### iTunes Match, musika streaming-ean

iTunes bete betan sartuko da orain streaming-eko musika eskaintzera. Erabiltzaileek, tarifa bat ordainduta iTunesetik erosi ez duten musika ere entzun ahalko dute lainoan IOS duten gailu guztietan iCloud-en bitartez. iTunes Match dauka izena zerbitzu honek. Lainoan dagoen abesti hori entzun eta, nahi bada, deskargatzeko aukera emango da aurrerantzean.

### Mapak, 3Dan

Google Maps-i agur esango dio Apple-ek iOS-en bertsio berrian. Nabigazioa berria eta mapak 3D-an erakutsiko dira aurrerantzean, apustu garrantzitsu moduan. Nabigazio berriak mapen gainean 3D-an "hegaz" egiteko aukera eskainiko dute eta ibilbideak ere errealitate birtualaren itxuran eskainiko dira, ohiko lerroen sistemarekin batera.

## Argazki historikoak mapetan kokatzen dituen aplikazioa atera du Euskomedi Fundazioak

J.B. | ARRASATE

Euskal Herriko kaleetako ondarearen erakusleho bihurtu gura ditu telefonoetako pantailak Euskomedia Fundazioak KulturMapp izeneko aplikazioarekin. Momentu honetan Euskal Herriko 175 tokitako informazioa eta 400 argazki eskaintzen dituzte, gida birtualaren itxuran, monumentu esanguratsuekin, gertaera historikoei buruzko informazioarekin eta pertsonaia ezagunak aipatuz.

Aplikazioa, momentuz, Android sistema eragilea darabilten gailuetarako soilik eskuragarri, geolokalizazioaren bitartez erabiltzaileari dagoen tokian aurki dezakeen onformazioa jakinarazten dio unean bertan. Herri bakoitzean egon daitezkeen kultur-guneak identifikatu eta mapetan kokatzen dizkio KulturMapp-ek aplikazioak berak. Doan deskargatu daitezke Google-en Play den da birtualetik.



Aplikazioa, Donostiako Igeldo mendiko informazioa emanez. | EUSKOMEDIA

## Albisteen lotura luzatuak, Twitterren laster

J.B. | ARRASATE

Zerbitzua hobetzeko gehigarriak aurkezten dabil Twitter azken asteetan. Joan zen astean hashtag-en orria aurkeztu zuen eta orain iragarri du The Wall Street, NBC, TIME ala TMZ moduko hedabide handiekin hitzarmenak sinatu ditzutela edukien sustapena hobeta eta, ondiorozta daitekeena, diru sarrerak ere beratzeko.

Nobedadeen artean luzatutako tweet-ak argitaratzeko aukera emango du eta lortura, argazki eta bideoak integrazteko modu berriak ere, goiburua hutsa bidaltzeaz aparte. Hala, aipatutako hedabideetako eta beste askoren albisteak tuiteatzerakoan erabiltzaileak titularra, sarrera, argazki eta editorearen profila ikusteko aukera ere izango ditu, orain arteko 140 karaktere horietaz harago, aurreikuspen moduan.

## Amena marka berreskuratuko du Orange 'low-cost' operadore bezala, gazteak erakartzeko

Orange-en etorrerakin, 2006an desagertu zen Amena konpainia. El Economistak zabaldu duenez, orain Orange berpiztu egingo du Amena gazteei operadore merke bat eskaintzeko asmoarekin, Movistarrek Tuenti Móvil-ekin egin duen antzera eta Simyo, Pepehone ala Masmóvil operadore birtualen eremuan sartuta. Orange berak ez du ezer konfirmatu, soilik esan du Amena markarekin proiektu baten lanean dihardutela.

## Megauploaden gordetako edukiak berreskuratuko ordaindu egin beharko dute erabiltzaileak

Estatu Batuetako Justizia Departamenduak erabiltzaile bati ofizialki jakinarazi berri dio bere edukiak berreskuratu ahal izango dituela harik eta bilaketak, mantenuak eta berreskurapen lanek eragingo dituzten kostuak bere gain hartzen baditu. Gai nontzeko erabiltzaileek euren datuak berreskuratzeke moduaren aurrekaria ezar lezake honek.

## Android sistemarako ere eskuragarri da Joyn aplikazioa, "operadoreen WhatsApp-a"

Movistar da lehen konpainia eta doakoa izango da bai aplikazioa eta baita datuen kontsumoa, alta eman ala erregistro barik. Poliki-poliki, operadore gehiago eta plataforma arteko komunikazioa ere batuko dira zerbitzura. Momentua sistema eragile berdinen artea baitabil bakarrik Joyn, WhatsApp aski ezaguna ez bezala. Modu natihoan etorriko da aurrerantzean aplikazio hori bat egiten duten operadoreetan.

## TELE-BEGI

AINHOA VITORIA



## Erreskatea eta Eurocopa

Azkenean iritsi da. 'Gu ez gara Greziarren modukoak', 'Espainiako finantza sistema osasuntsua da...', 'Erreskatetik oso urrun gaude...' Hamaika aldiz entzun ditugu tankera honetako hitzak, eta fedunen bat baldin bazegoen, aste honetan utzi dio sinisteari, ebidentea eta begi bistakoa baita espainiar egoera ekonomikoa uste baino ustelagoa dela. Usteak erdiak ustel.

Baina espainiar estatua erreskatatua zela jakin genuen egun berean, badakizue zein berrirekin zabaldu zituzten telebistako albistegiak? Eurocoparekin! Gorbatahun aurkezle serioak argi utzi zuen bere 'buenas tardes' ostean aste garrantzitsua zela Espainiarentzat. 'Historia egitera goaz!' errepikatzen zuen behin eta berriz. Zer dela eta? Selektzio 'gorriak' (eta ez 'gorritxoak') Eurocopako lehen partida jokatzeko zuelako.

Jaun andreok, hori da komunikabideak maneiatzen dituztenen idiosinkrasia. Erromatarrek ere egiten zuten, ogia eta zirkoa herriarentzat. Zirkoa soberan dugu telebistan futbolarekin; ogia faltan, ordea. Eta zer esanik ez, Eurocopa horretan gutxienez selektzio bat falta dela. Gurea, ezta?

## ASTEA GOIENAN

## GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA 18



## Tokikom

Tokikom jardunaldiei buruz arituko gara eta Joxe Rojas izango da aste honetako *Magazinean* saioan | 20:16

12:30 Magazinea  
13:30 Zorion Agurrak  
13:35 Onein  
14:03 AsteON  
14:38 Zorion Agurrak  
14:45 Berriak  
15:05 Eguraldia  
15:10 Ur eta lur  
15:40 Ikusmira  
16:13 Iru&ntilde;eko Hotsak  
16:43 Zorion Agurrak  
16:48 Berriak  
17:08 Eguraldia  
17:13 Zorion Agurrak  
17:18 Ur eta lur  
17:50 Onein  
18:15 Berbaz  
19:23 AsteON  
19:53 Berriak  
20:13 Eguraldia  
20:16 Magazinea  
21:01 Berriak  
21:26 Eguraldia  
21:31 Harmailatik  
22:16 Magazinea  
23:01 Harmailatik  
23:46 Berriak  
00:09 Eguraldia

MARTITZENA 19



## Errekan Gora

Aitzorrotz kultura elkarteak antolatutako Errekan Gora ekimenaz hitz egingo dugu *Magazinean*. | 20:18

12:30 Magazinea  
13:15 Zorion Agurrak  
13:20 Harmailatik  
14:05 AsteON  
14:40 Zorion Agurrak  
14:45 Berriak  
15:05 Eguraldia  
15:10 Harmailatik  
15:55 Onein  
16:20 Altxor Txokoa  
16:50 Berriak  
17:15 Eguraldia  
17:18 Bizitegia  
17:48 Harmailatik  
18:28 Berbetan  
18:55 Hamaika.bit  
19:25 Iru&ntilde;eko Hotsak  
19:55 Berriak  
20:15 Eguraldia  
20:18 Magazinea  
21:03 Zorion Agurrak  
21:08 Berriak  
21:28 Eguraldia  
21:33 Harira  
22:03 AsteON  
22:33 Magazinea  
23:18 Goierri Creation Center  
23:44 Berriak

EGUAZTENA 20



## Ikasturte berria

Larraitz Zeberioen eskutik, hezkuntza izango da hizpide *Tertulia* saioaren emanaldi berrian. | 22:33

12:15 Magazinea  
13:00 Zorion Agurrak  
13:05 Harira  
13:40 Beranduegi.tv  
13:55 Harmailatik  
14:41 Zorion Agurrak  
14:46 Berriak  
15:06 Eguraldia  
15:11 Iru&ntilde;eko Hotsak  
15:43 Onein  
16:13 Goierri Creation Center  
16:39 Zorion Agurrak  
16:44 Berriak  
17:04 Eguraldia  
17:07 Harmailatik  
17:50 Ekogune  
18:20 Altxor Txokoa  
18:50 Beranduegi.tv  
19:10 Harira  
19:45 Zorion Agurrak  
19:49 Berriak  
20:09 Eguraldia  
20:14 Magazinea  
20:52 Lehiaketa  
21:00 Berriak  
21:23 Magazinea  
22:03 Ekogune  
22:33 Tertulia  
23:33 Berriak  
23:58 Eguraldia  
00:16 Eguraldia  
00:21 Planik bai?..

EGUENA 21



## 'Planik bai?'

Asteburuari begira, agendaren eta ikuskitzunen erreposoa egingo dugu *Planik bai?* saioan. | 19:35

12:25 Magazinea  
13:10 Zorion Agurrak  
13:15 Ekogune  
13:45 Tertulia  
14:45 Berriak  
15:05 Eguraldia  
15:10 Hamaika.bit  
15:42 Esatea libre  
17:22 Altxor Txokoa  
17:55 Eguraldia  
18:00 Tertulia  
19:00 Ekogune  
19:35 Planik bai?  
19:55 Berriak  
20:15 Eguraldia  
20:20 Magazinea  
21:00 Planik bai?  
21:20 Berriak  
21:45 Eguraldia  
21:48 Hamaika.bit  
22:20 Goierri Creation Center  
22:46 Planik bai?  
23:06 Magazinea  
23:51 Berriak  
00:10 Planik bai?  
00:30 Berriak

EGUBAKOITZA 22



## Trauti elkarte

Mugitzeko oztopo arkitektonikoak salatzeko dituen elkarteak ezagutuko dugu *AsteON* saioan | 21:37

12:20 Magazinea  
13:05 Zorion Agurrak  
13:10 Berbetan  
13:37 Onein  
13:59 Beranduegi.tv  
14:19 Planik bai?  
14:39 Zorion Agurrak  
14:44 Berriak  
15:04 Eguraldia  
15:09 Planik bai?  
15:19 Bizitegia  
15:49 Berbaz  
16:57 Berriak  
17:17 Eguraldia  
17:22 Planik bai?  
17:42 28.Klip  
18:06 Harira  
18:36 Ekogune  
19:06 Beranduegi.tv  
19:25 Berbetan  
19:52 Zorion Agurrak  
19:57 Berriak  
20:17 Eguraldia  
20:22 Planik bai?  
20:42 Harira  
21:12 Berriak  
21:32 Eguraldia  
21:37 AsteON  
22:07 Berriak  
22:27 Eguraldia  
22:30 Planik bai?  
22:40 Tertulia  
23:40 AsteON

## ARRASATE IRRATIA

## Sanjuanak badatoz, jakin behar duzun guztia gurean

Sanjuanei aurre hartuko dio Arrasate Irratiak. Ate joka daude aurtengo San Juanak eta jai giroan murgilduko gara Arrasate Irratian. Herriko jaietako egitaraua eta ekitaldi nagusiak nolakoak izango diren kontatuko dugu *Igo autobusera!* irratsaioan, 107.7an.

## Furgoneta fotovoltaiko bat nola egiten den jakiteko aukera

Eguzki energia erabiliz furgoneta fotovoltaiko bat nola egin azalduko dizuegu Arrasate Irratian. Nola erabili daiteke eguzkiaren energia furgoneta batean? Galdera horri eta antzerako zalantzei erantzun diote gaur, astelehena, Arrasate Irratian, 10:30ean.

## Ospital berriaren inaugurazioa eta beste kontu batzuk

Debagoieneko ospitalaren inaugurazioan egongo da Arrasate Irratia. Aste honetan Debagoieneko ospitalea inauguratuko dute eta horren berri emango dizuegu. Bertaratu-tako kazetarien bitartez gertutuko informazioa jaso ahal izango dugu. Horrez gain, asteko beste gertakizunen berri ere izango duzue.

## TELE-ALBISTEAK

## Ekolapiko ekimena eta bidezko merkataritza 'Ekogune' saioan

Eguaztenean, 22:00etan, bidezko merkataritzari buruz arituko gara galdezka Legazpi inguruan

AKETZ ZUBIA | ARRASATE

Aste honetako *Ekogune* saioan Ekolapiko ekimenari buruz jardungo dugu. Ikastetxeetako jantokietan elikadura ekologiko eta osasuntsua xertatzeaz arduratzen den proiektua dugu hau, eta gertutik ezagutu ahal izango dugu.

Horrez gain, bidezko merkataritzari buruz ere arituko gara. Postrea ere ez da faltako, aste honetan, Idiazabal gaztarekin egindako flana.



Haurrak ikastetxe bateko jantokian. | BIBE.ORG

## Javier Goienetxea Konfekoopeko presidentea 'Harira saioan'

Martitzenean, Konfekoopeko presidentea elkarrizketatuko du Eneko Azkarate aurkezleak

A.Z. | ARRASATE

Javier Goienetxea Konfekoopeko presidentea izango du Eneko Azkarate kazetariak *Harira* saioko aste honetako gonbidatu.

Konfekoop da euskal kooperatiben konfederazioa. Bertako kide dira Euskal Autonomia Erkidegoko kooperatiba elkarte guztien %95. Krisiaren aurrean kooperatibek zela erantzun duten, egoera gordin honetara zela egokitu diren... dira landuko dituzten gaitako batzuk. Gaur egungo egoera ere aztertuko dute: Bankia, finantza merkatuen krisia, Euroa eta beste.



Javier Goienetxea. | GOIENA


## ZORION AGURRAK



**OÑATI**  
**Arantzazu Eskibel**  
Ekainaren 22an, urtebetetzea. Zu bai zu, fina. Kazetari, gremio koordinatzaile eta orain gozogle izateko bidean. Ondo ospatu. Untxi-erleen lagunak eta lankideak.



**BERGARA**  
**Xabier Igartza Amasorrain**  
Ekainaren 22an, 8 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu urtebetetzia eta laister Debara surfeatzera! Patxo potolo bat etxeko guztien partetik.



**BERGARA**  
**Yasmína Moreno**  
Ekainaren 21ean, 22 urte. Zorionak, tia Yas! Oso ondo pasatu zure egunian eta opari asko jaso, merezi dozu-eta! Pila bat muxu Kenar eta Uxueren partetik.



**ANTZUOLA**  
**Lore Kortabarria**  
Ekainaren 21ean, 4 urte. Zorionak, txiripittintxo! Ondo-ondo pasatu zure egunean. Zorionak etxeko guztien partetik.



**ARRASATE**  
**Ane Urrutia**  
Ekainaren 21ean, 2 urte. Zorionak, pitusi! Oso ondo pasatu zure egunian! Muxu handi bat etxeko danon partetik!



**ARETXABALETA**  
**Markel eta Julen Larrinaga Sierra**  
Ekainaren 20an, 3 urte. Zorionak, Markel eta Julen! Ondo-ondo pasatu zuen eguna eta patxo handi bat etxeko guztien partetik.




**OÑATI**  
**Eneritz Romano**  
Ekainaren 20an, 35 urte. Zorionak eta urte askotarako familiaren partetik! Muxu potolo bat eta oso ondo pasatu!



**ARETXABALETA**  
**Gorka Etxabe**  
Ekainaren 19an, urtebetetzea. Pose eta kantuarekin ez da nahikoa. Aurtengo 'Hezur hauslea'-n zazpi ezetz... Hala ere, zu zara gure Marino. Ondo ospatu. Lankideak.



**ARETXABALETA**  
**Angelika eta Luisa Xpe Unanue**  
Ekainaren 19an, 72 urte. Zorionak, amona eta Pixita! Oso-oso ondo pasatu zuen urtebetetzea eta orain bezain guapa eta marxosa izaten segi hemendik aurrera ere! Muxu handi-handi bat bakoitzarentzat denon partetik baina bereziki familiako txikien partetik, Oxel, Lur, Hodei eta Beñat!.




**OÑATI**  
**Iزار Arzuaga**  
Ekainaren 19an, urtebete. Zorionak eta urte askotarako familiaren partetik! Muxu potolo bat eta oso ondo pasatu!



**OÑATI**  
**Ibai Zugasti Sarasketa**  
Ekainaren 19an, 5 urte. Zorionak, txikitin! Dagoeneko bost urte! Ondo-ondo pasatu zure egunean. Muxu potolo-potolo bat etxeko danon partetik.



**ESKORIATZA**  
**Iker Fernandez Sedano**  
Ekainaren 18an, 11 urte. Zorionak, txapeldun! Muxu handi bat familiaren partetik eta bereziki Junek.



**BERGARA**  
**Maddi Oregi Alberdi**  
Ekainaren 18an, 8 urte. Zorionak, guapa! Ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Muxu bat Ander, amatxo, aitaxo, amona, amama eta aittaren partetik.



**BERGARA**  
**Aitor Curado**  
Ekainaren 18an, 40 urte. Zorionak, aitaxo eta tio. Egun oso polita pasatu eta hurrengo urtian gehixau eta hobeto. Segi orain bezala errealzale handia izaten. Aupa Reala! Zorionak danon partetik baina batez ere Izar, Ekaitz, Oier eta Elenek.




**ARRASATE**  
**Libe Calvo Ugalde**  
Ekainaren 17an, urtebete. Etxeberriko neska txikiak bere lehen urtebetetzea ospatuko du ekainaren 17an. Arrasateko aitita, amama eta tio Anderren partetik, zorionak eta muxu handi bat!




**ARETXABALETA**  
**Haitz Eskibel**  
Ekainaren 17an, 2 urte. Zorionak eta patxo handi bat familiako guztien partetik.



**BERGARA**  
**Ane eta Nerea Larrañaga Arregi**  
Anek ekainaren 1ean, 8 urte eta Nreak 16an, 15 urte. Zorionak eta patxo bat familia osoaren partetik.



**BERGARA**  
**Arrate Martinez eta Jaione Loiti**  
Arratek ekainaren 22an eta Jaionek 16an, urtebetetzeak. Zorionak, tia eta amatxo! Ondo-ondo pasatu urtebetetzia, eta laister Parisera. Maria eta Josu.



**OÑATI**  
**Aitana Estomba Gesalaga**  
Ekainaren 15ean, 2 urte. Zorionak, potxola, familiako partetik eta ondo pasatu Olakuako jaietan! Muxu handi bat Ainhoa eta Aneren partetik. Mua!




**OÑATI**  
**Maixel Lazkano**  
Ekainaren 15ean, urtebetetzea. Zorionak eta urte askotarako, amama! Txokolatezko laztan ugari etxeko danon partetik, bereziki zure bi pusketaxuen partetik. Afari eder batekin ospatuko du egun berezi hau. Muxuak.



**BERGARA**  
**Hodei Ibañez Garitano**  
Ekainaren 15ean, 2 urte. Zorionak, Hodeitxo! Egun politx bat pasatu eta patxo handi bat danon partetik!



**ARRASATE**  
**Ainhoa Lasa Zabala**  
Ekainaren 15ean, 41 urte. Zorionak, marisorgintxo! Ederto ospatu egun zoragarri hau Araba aldean, Arrasateko laguntxo guztien partetik, patxo pila-pila patata eta tortilla! Muxutxuek, poxpolin!




**ARETXABALETA**  
**Eneko Makazaga Manteka**  
Ekainaren 14an, 5 urte. Zorionak amatxo eta aitaxoren partetik. Ondo pasatu, txapeldun.



**ARRASATE**  
**Maren Alonso Amador**  
Ekainaren 14an, urtebete. Zorionak, Nani! Ondo ospatuko dugu zure urtebetetzia. Musu eta besarkada bat etxeko guztien partetik.



**ARRASATE**  
**June Barandiaran Garai**  
Ekainaren 13an, 2 urte. Zorionak, bihotza! Bi urtetxo beteko dituzu eta zoragarri zaude! Segi horrela! Urtebetetze egun ahaztezin bat izan dezazula eta muxu eta besarkada erraldoi bat etxeko guztien partetik.



**ELGETA**  
**Ander Sarasua Zeberio**  
Ekainaren 13an, 6 urte. Dagoeneko sei urte! Oso bizkor ari zara handitzen, Ander! Zorionak eta patxo handi bat. Aitaxo, amatxo eta Urtzi.



**ARRASATE**  
**Juan Antonio Gomez de Segura**  
Ekainaren 12an, urtebetetzea. Zorionak eta patxo handia familiako guztien partetik.



**ARETXABALETA**  
**Oier del Fresno Lezeta**  
Ekainaren 11n, 3 urte. Zorionak eta ondo-ondo pasatu zure eguna, etxeko guztien partetik. Laztan mordo bat.



**OÑATI**  
**Garazi Irazabal Plazaola**  
Ekainaren 8an, 5 urte. Zorionak, Garazi, eta ondo-ondo pasatu urtebetetze egunian. Marrubizko txokolatezko muxu pila bat zuretzat familixa guztixaren, eta bereziki, zure ahizpa Marenen partetik.



**BERGARA**  
**Andoni Gomez Familiar**  
Ekainaren 2an, 4 urte. Zelako motor polita handia zarenerako. Oso ondo pasatu zure urtebetetzean eta patxo handi bat gurasoen, Ainararen, izebaren eta aiton-amonen partetik.

## Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak. Hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

## Internet

Sar zaitez [Goiena.net](http://Goiena.net) atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu; bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra, baita GOIENA paperean ere.

## Posta elektronikoa

Mezua bidali [zorionagurra@goiena.com](mailto:zorionagurra@goiena.com) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

## Ordezkaritzak

Etor zaitez Goienaren ordezkartzaren batera.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako zorion agurra bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

JAIOTAKOAK



**Danel Navarro Vicente**

Arrasate. 3,060Kilo. Maiatzaren 26a. Gurasoak: Ainhoa eta Ruben. Argazkian, Danel amaren besoetan.



**Alazne Murgiondo Kortabarria**

Bergara. 2,870Kilo. Ekainaren 5a. Gurasoak: Nerea eta Ion. Argazkian, Alazne bere ahizpa Naiarekin.



**Ibai de Miguel Perez**

Aretxabaleta. 3,220Kilo. Maiatzaren 30a. Gurasoak: Laura eta Gaizka. Argazkian, Ibai araba Maialenekin.



**Alain Moto Escolar**

Arrasate. 3,900Kilo. Ekainaren 9a. Gurasoak: Nerea eta Jose. Argazkian, Alain jaioberria amarekin.



**Ibai Zarain Quintanilla**

Arrasate. 3,700Kilo. Ekainaren 12a. Gurasoak: Rosa eta Alex. Argazkian, Ibai aitarekin.

**Jaio da!**

**Eman jaiotzen berri Goiena paperean eta interneten. Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz GOIENAREN ordezkari batzera.**

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.



**Intza Lopez de Briñas Biteri**

Legutio. 2,160Kilo. Ekainaren 16. Gurasoak: Mirian eta Gorka. Argazkian, Intza amarekin.



**Martzel Abezia Ania**

Abadiño. 2,600Kilo. Ekainaren 11. Gurasoak: Esti eta Ruben. Argazkian, Martzel amarekin.



**Kloe Leturiondo Guisasola**

Eibar. 3,100Kilo. Ekainaren 12a. Gurasoak: Miren eta Igor. Argazkian, Kloe amarekin.



DENBORA-PASA

HITZ GEZIDUNAK

	Asto marraduna	Jokoan ipini	Azaleko gogorrunea
	* Arrasateko elizatea	Errepikatuz, ikara	Nabarrak
	Ez du lagunik		
	Aiakoa		
Dantza mota	Arrainen arrautzak		
Afrikako estatua	Ipar eta Naf., bost	Tik-... erlojuaren hotsa	
		Gaude	
Joaki naiz		Nahia	
Ez atzea		Diosal hitza	
		Kontsonante bikoitza	
		Iridioa	
Etruriako			
Atzapar kolpea			

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.



SOLUZIOAK

A	K	R	A	P	Z	T	V
R	A	R	U	R	E	T	R
R	A	R	E	A	R	R	A
A	U	R	A	N	O	A	R
K	A	T	A	L	I	B	L
A	B	A	R	A	M	A	
R	A	K	A	R	B	A	
A	N	A	O	N	A	B	
Z	J	Z	B	E	D	O	

3	6	7	9	5	6	7	9
7	3	6	9	2	4	8	1
8	5	9	1	7	3	2	4
6	8	4	7	3	5	9	8
4	5	7	8	2	1	9	6
3	9	1	4	6	8	5	2
6	8	3	5	4	7	1	6
4	2	5	6	8	1	3	7
8	6	1	7	3	9	2	4

A	I	Z	A	R	O	L	T	R	
S	T	A	Z	G	N	A	P		
O	G	I	E	A	X	I	N	O	
L	A	O	N	Z	A	R	J	L	
U	I	K	A	L	M	N	B	R	
B	G	A	L	A	X	I	A	P	
L	E	D	G	P	E	T	Z	A	L
N	H	I	X	O	A	P	M	A	
A	S	T	E	R	O	I	D	E	

SUDOKUA

	1			4	5	
	2				7	9
	8		7		6	
3		4		5	2	
	8	2		6		4
		7				
			3			
7			2			
		8	6	9	3	



HIZKI SALDA

Topa itzazu bost objektu astronomiko.

A	S	T	E	R	O	I	D	E
N	H	I	X	O	A	P	M	A
E	D	G	P	E	T	Z	A	L
B	G	A	L	A	X	I	A	P
U	I	K	A	L	M	N	B	R
L	A	O	N	Z	A	R	J	L
O	G	I	E	A	X	I	N	O
S	T	A	T	Z	G	N	A	P
A	I	Z	A	R	O	L	T	R

HIEROGLIFIKOA

Zer ekarri zuen ekaitzak?



Hieroglifikoak:  
Katte handiak.

## AI, ENE!

### Txakurrendako ere, 'self-service'-a

Asmakizuna ez dakigu zeinentzat den hobe: txakurrarentzat edo uraren ontzitxo hainbestetan bete beharko ez duen jabearentzat. [www.sarda.es](http://www.sarda.es)




## AHOBERO

### "Erloju horrek nire bizitza aldatuko zuen (...) Zortea emango zidan"

CHRISTIAN A. | HOTELEKO LANGILEA

Nor den Christian A.? Aste honetan, Rafa Nadalek Roland Garros irabazi zuen egunean bertan, Mallorkakoari erloju lapurtu zion pertsona. Zortea emango ziola dio. Salduz gero, hori baino gehiago ere bai, izan ere erlojuak 300.000 euro balio zuen. [www.sport.es](http://www.sport.es)

## EGURALDIA



Max. 21°

Min. 15°

Hodeiek zerua estaliko dute berriro eta zaparradak botako ditu. [euskalmet.net](http://euskalmet.net)

ASTELEHENKOA

# goiena

2012-06-18

## HAMARREKOA

**Francis Diez** 'Al amanecer... seguir soñando' da Doctor Deseo taldearen disko berria; bilbotarren hamahirugarrena da, baina Francis abeslaria ez dago superstiziotarako, ezta etsipenerako ere. | TXOMIN MADINA

## "Ez baduzu zuk zeuk amesten, zugatik egingo dute"

### 1. 2012an hamahirugarren diskoa kalera. Superstiziorik ez?

Bat ere ez. Krisi betean, 13aren eta gorriaren alde apustu egin dugu. Urteurrenak ez ospatu arren, hamahirua berezia iruditu zaigu eta zerbait gehiago jarri diogu.

### 2. Izenburuak dioen legez, bada amesten jarraitzeko motiborik?

Inoiz baino gehiago. Etengabe imajinatu behar dira errealitateak; amestu soilik ez, egia bihurtzera ausartu ere bai. Ez baduzu zuk zeuk amesten, zugatik egingo dute.

### 3. Literatura eta pintura ere badi-tu diskoak. Garaiotan merezi du horrelako lanak hartzea?

Gauzak gaizki badoaz, gehiago zaindu behar dira. Amildegia baten aurrean gaude eta horrelakoetan indar kontserbadoreenak berragertzen dira; horren aurrean, hegan egin dezakegula jakin eta amildegira bota behar dugu.

### 4. Zenbat lehenengo alditan entzungo zen Doctor Deseo?

Akustiko baten, bikote bat zegoen alabari titia ematen. Esan ziguten gu entzuten elkar ezagutu eta ernaldu zutela eta alabak gu entzutea gura zutela. Hori sekulakoa da! Musikari moduan guretzat eta besteentzat baliagarriak izan gura dugu.

### 5. Posible da Corazón de tango bako zuen kontzertu bat?

Ez, *Abrazame*-rekin gure ume mima-tuenetakoa da; ez dugu talde batzuen puntu *snoob*-a, horrek gaixotzen nau. Plazer handiz jo eta gozaten dut.



### MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

### "Etsipena desagerraraziko nuke"

"Hoy seremos tan valientes abestian diogu etsipena dela bekatu-rik handiena; bada, horixe egingo nuke, etsipena desagerrarazi".

### 6. Zer da zuretzat probokazioa?

Eskandalizatze zentzuan ez zait interesatzen; suposatzen da nire publikoa ez eskandalizatze besteko argia dela. Baina emozioak, sentazioak, hausnarketa, mugimendua probokatzeko musikan oinarritzakoa da. Ez bada horretarako gai, musikak ez du zentzurik.

### 7. Agertokian ikusten dugun Francis kalekoaren berdina da?

Ez. Agertokiko Francis kalekotik dator, baina agertokian bakarrik gertatzen da. Musikari orori gomen-datzen diot *Barrio Sesamo*-ko *Cocoren goia eta behea* ikasgaia ez galtzea. Aldaketa oso bat dago, egoa kamerinoan utzi eta gertatzen denaren aurrean harkor egoteko.

### 8. Gutxi imajinatuko dute Francis eskalaten.

Musikari izan aurretik eskalaten dut, 14 urte neuzkanetik. Nire pasio gogorrenetakoa da. Oso primarioa da; lanerako burua erabiltzen dugunondako oso egoera primarioa bueltatzeko modua da.

### 9. Musikaria eta okina. Ez da konbinazio ohikoena...

Ez, baina nik uste dut pertsonok alderdi asko ditugula, eta bai eskalatzeko eta baita okina izatea musikaren kontrapuntua dira; lurrera lotzen naute, eta burua ez galtzen lagundu.

### 10. Nola dago batzokiko neska?

Beti bezain morbosoa, beti gustatu izan zaizkit eskuineko neskak; morbo maltzur bat da.

## BIHARAMUNA

MARIA AGIRRE



Ni ere zaborraz

Hernanin badut ezagun bat, eta oso ondo hitz egiten dit atez-ateko bilketari buruz. Diziplina beharra? Baietz dio, baina laster ohitzen zarela. Oartzunen, berriz, badut lagun bat, eta sistema hori desastre hutsa iruditzen zaio. Zikina. Ez dago konforme. Bi herrietan atez-ateko zabor bilketa dute, eta bakoitzak muturreko iritzia adierazten dit. Ibiltzen naiz dezente Hernanin, eta egia esan ez dit begiko minik egiten kubotxoak zintzilik ikusteak. Kalerik kale pasiatzen, normal ikusten dut.

Debagoienean ere jarriko omen dute atez-atekoa edo dena delakoa. Dena delakoa diot, Aretxabaletan bataiatu gabe baitago. Joan den martitzenean Arrasaten izan zen desastrearen ondoren, badirudi Aretxabaletan bataioa beste baterako utzi dute-la. Izenik bako hondakinen kudeaketa da oraingoz. Rajoyk erreskatea beste hitz batzuekin bataiatu duen moduan, ematen du Aretxabaletako Bildurenentzat ekidin beharreko marka bihurtu dela atez-atekoa.

Egia esan, ez dut zaborren gaian sakondu, baina, bi sistemak ondo ikusten ditut: atez-atekoa eta 5. edukiontzia. Ezartzen dena ezartzen dela, betetzeko asmoa dut. Bereziki, eta politikarien alderdikeriak alde batera utzita, bi planteamenduen atzean dagoen filosofia ezinbestekoa iruditzen zaidalako: birziklatu, berrerabili...



Ondo pasa San Juanetan!



Hipermerkatuak



zurekin

Musakola 11 ARRASATE  
Tel.: 943 71 10 30

[www.grupoeroski.es](http://www.grupoeroski.es)